

JON ALONSO

Euskal karma

SS narratiba
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2001 Jon Alonso

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2001eko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

RAPSODIA: obra literarioa, bertsoz edo prosaz idatzia, osorik edo partez besteren esanaz eta adieraziaz osatua.

Idazleak, lan bakoitzean, erantzun kulturalki esanguratsuak eman nahi izaten dizkio inguratzen duen errealitateari. Maiz nahasi, kontraesankor eta are absurdua izaten den errealitateari. Idazleak, gero, bere erantzuna ontzat ematen duten konplizeak bilatzen ditu. Agian horregatik, esan ohi da asmo onez idatziriko liburu bakoitzak bere irakurleak bilatu nahi dituela. Agian zeu zara horietako bat.

Hodeiez beteriko astelehen ilun batean jakin genuen, Euskalgintza Orokorraren Batzar Nagusian, baina ezin genuen sinetsi, edo ez genuen sinetsi nahi: Kolko Mitxoletak erretreta hartu eta hor nonbaiteko bazter galdu batean erretiratuko zela erabaki zuen. Kolko Mitxoleta zen gure arteko onena, gure argi gidaria, Belengo izarra; gure aitalehena, jakinduriazko iturri agortezina, begiratu beharreko ispilua, eredu gorena, aita pontekoa. Haatik, Amazonas aldeko zoko ezkutu batera betiko joan zelakoa nahikoa kolpe gogorra izan bazen ere, askozaz ere kolpe gogorragoa izan zen jakitea burua arras galdurik zebilela. Kolpe gogorra ez ezik, B-12rena gertatu zenez geroztik hondamendia zela iritzi genion, itzulbiderik eta atzerabiderik gabeko desastrea.

Amazonastik etortzen ziren berrien arabera, Mitxoleta burutik zeharo egina omen zegoen, soa infinituan galdu egiten zitzaion, estramonioa edo asma-belarra neurritz gain hartu dutenei gertatu ohi zaien bezala; lerdea omen zerion, ez zen

esfinterrak gobernatzeko gauza, eta ez omen zuen ezer edo ia ezer esaten, eta hau hain zen harrigarria hainbat eta hain ongi mintzatu zen batengan, non batzuk larritu ziren, agian mintzamenaren galtzear edo are ahalmen hori arraso galdurik egongo ote zen. Ez zirudien halakorik zegoenik, baina; gaixotu zenetik, eliteko andereño talde batek zaintzen zuen, eta Mitxoletaren buru-osasunaren egoera gai kasik *tabu* bat zen arren, eta Mitxoletaren egoeraren inguruan nolabaiteko sekretismoa hedatu bazen ere, andereñoek esanda jakin genuen oso noizbehinka hitz batzuk esaten zituela, behintzat. Ulergaitzago egin zitzaigun jakitea beti hitz berberak errepikatzen omen zituela, eta are arraroagoa ere hitzok zeintzuk ziren, azkenik, jakitea: «*Paripé... alua... paripé...*». Gero isiltzen omen zen, eta handik ordu, egun edo aste batzuetara ekiten zion osterara berriz: «*Alua... paripé... alua*». Esanahi ezkutu, kabalistiko, magiko, tantrikoa agian, suposatzen zitzaien hitzei (egia esan, ez dakit zergatik egozten zitzaien inolako zentzurik burua joaniko baten hitzei, baina gure artean beti horrela izan denez, eta zoroen hitzek, oraku-

luarenak bailiran, esanahi sakona dutela uste izan denez, logikoa zela iritzi nion), inork atze-man ez, baina hermeneutika-saio luzeak eragin zituen esanahia, nahiz behin-betiko ondoriorik ateratzea ezinezkoa gertatu. Ofizialtasunik gabeko iritzi ezkor eta zabaldu baten arabera, Kolko Mitxoletaren hitzak etsipenezkoak ziren, «Elementia Nebrijana» talde higuinarriko elementurik preklaroenak sorrarazia. Funtsean, Kolko Mitxoleta, bere jarrerarekin, frogatzen eta bermatzen ariko zen, *de facto*, dena *paripé* bat dela dioen teoria, Luis Ferdinando Gorrigualdok sustaturiko horixe bera, egiazkoa zela, eta, beraz, hitzok aipatu teoria horren aurrean amore ematen ari zela frogatuko zuten. Honek bereziki kezkatzen gintuen, eta nazkatzen eta etsitzen, halako moldez non gutariko gehienek, gaia solasbidera orduko, Bereterretxeren khantoria eta arbasoen beste hainbat lelo kantatzen, doministiku saio-luzeak egiten edo belarrietan tapoiak jartzen baikenituen.

Baina, egia esan, goian esandako guztia bai-noa areago, B-12ren agertzea izan zen Kolko Mitxoletarengana burua jirarazi ziguna, zein ume-

zurtz ginen konpreniarazi ziguna. Hau da, Mitxoleta Amazonian zegoela ahaztu ere egingo genuen B-12 agertu izan ez balitz. Eta B-12ren agertzea, bere aldetik, inork aldez aurretik pentsa zezakeena baino mila bider sinpleago izan zen. Egia esan, beti bere zain egon izan bagina bezala izan zen, eta, neurri batean bederen, hala zen, hau da, haren aiduru egonak ginen betidanik, euskara paradisuko hizkuntza zela esaten zuten garaietatik, bederen, eta nork daki lehena-gotik ere ez ote geunden zain. Beraz, gertaera bere hartan hartuta oso harrigarria zen arren, guretzat oso berezkoa izan zen, oso naturala. Hain natural eta berezko non batzuen jarreretan halako haserre txiki bezalako bat nabarmentzen baitzen, pixka bat larderiaturako balute bezala, esan nahiko bailuten, garaia zen, edo, berantetsiak ginen, edo, a zenbat arazo konponduko zen mila urte lehenago etorri izan bazina, auskalo zertan ibili zaren orain arte. Gero aitortu behar da B-12k ere, bere aldetik, bere baitatik jarri zuela zer edo zer, baita ere, agerpena natural-natural onar genezan: Arantzazun lurreratu zen, noiz eta frantziskotarrak bertara heldu zirenetik

500 urte betetzen ziren urtean. Arantzazu... euskal orubea eskuzabal ureztatzera etorririko hainbat jario emankorren iturburua, eta, bide batez esan dezadan, apaltasunez maskaraturiko harrokeria pittin batez, nire sorlekua. Bestalde, B-12 berde-berdea zen, beti-beti-beti esan izan diguten bezala, eta, hori gutxi izanik pixka bat gehiago lagundu nahiko baligu legez, E.T.ren peto-petoa zen, haren bikia zirudien.

Azkenik berresten zen, aldez edo moldez, mila bider susmaturikoa: euskara zela, paradisu-koa ez bazen, bai behintzat Marteko hizkuntza. Horren frogatzat, B-12ren gaitasun linguistiko izugarria. Bere buru berde erraldoian, garai, toki eta erregistro guztietako euskara guztiak kabitzen ziren: berdin egiten zizun Axularren liburuak bezala nola Bizkaiko azken baserriko aitona hortzik gabeak orain bi mende egingo zizun bezala, era arrunt eta estandarrenak ere ahaztu gabe, noski. Harrigarria zen; denok, une batean edo bestean, izatea amesturiko hiztun aparta, bikain, egoki, tenoreko, ezin hobea zen. Hau oso garbi eduki genuen hasiera-hasieratik.

Bestondoa -ajea, biharamuna... erabat-erabat, baina- kentzeko erremedioaren jabe zelakoa, ordea, ez zitzaigun, hasierako elkarrizketa haietan bederen, guztiz garbi gelditu. Iritzi kontrajarriak zeuden horri dagokionez, zerbait entzun bai baina esan denaren zentzua erabat ulertu ez denean gertatzen den bezala. Batzuek esaten zuten baietz, argi ulertu ziotela, bere ahotik, ajea erabat sendatzeko botika edo erremedioa ezagutzen zuela, eta guri erakusteko prest zegoela; beste batzuek zioten ez zuela inolaz ere horrelakorik esan, hori B-12ren egiazko hitzen interpretazio oso zabal eta baikorra zela, B-12k benetan esan zuena zela batzuetan, hau da, baldintza jakin batzuk gertatzen zirenean, eta orduan bakarrik, sendatzen zuela bestondoa, eta baldintza horien barruan, gainera, ajea kendu nahi zuenaren borondateari zegokion zerbait bazegoela, hau da, nork bere aldetik zer edo zer ipini behar zuela. Beraz, ez zegoen erabateko adostasunik, eta hortik hainbatek ateratzen zuen ondorioa zen B-12, puntu horri zegokionez, nahita eta berariaz anbiguo agertu zela. Ostera, ez zegoen anbiguetaterik bere buruari beston-

doa erabat, erotik, zeharo, guztiz kentzen zionaz bezainbatean. Puntu horretan B-12 oso garbi mintzatu zen. Eta, jakina, oso-oso garbi gelditu zen, baita ere, euskararen auzia konpontzen lagunduko zigula; ohartarazi zigun, ordea, eman beharreko urratsak zeintzuk ziren esango zigula, baina berak ez zuela lanik egingo, lana guk egin beharko genuela, horixe zela ordaindu beharko genuen prezioa.

Esan genion baietz, ez zegoela arazorik, gu lanerako prest geundela, gogotik ekingo geniola. Konforme, esan zuen, orduan, behar duzuen lehenbiziko gauza, hasteko, kanon literario bat da. Ez, ez, ez -moztu zigun, gutariko batzuek zer edo zer esan nahi genuela iruditu zuenean-, bigarren, hirugarren edo are laugarren mailan bai-zik ez naiz ari linguistikaz edo gramatikaz. Kanon literario-literarioa. Obrak. Liburuak. Eta orduan, B-12k kanon bat behar genuela esan zuenean, hain zuzen, hasi ginen Kolko Mitxoletarekin gogoratzen, bera baitzen, gure artean, soziolinguistika, filatelia, matematika, sumo, eraikuntza, filologia, apikultura, psikologia, zinema, latina, enologia, zientzia, literatura, numismatika eta

abar, hau da, zer edo zer, kanon bat zer izango zen ere barne, esaterako, eta gauzak, orokorrean, zekizkiena. Earrainyú, esan genuen, Kolko Mitxoletak jakinen du kanon bat zer den eta zertarako balio duen, baina Amazonian galdurik dago, eliteko andereño batzuek zainduta, eta «alua, paripé, alua» baizik ez du esaten. Earrainyú. Baina B-12 ez zen gutaz errukitu; kanona bilatzetik hasi eta gero mintzatuko gara, horiexek izan ziren bere hitzak.

Bestetik, aise ulertzen da B-12ren agerpenak eta bere errebelazioek sortu zituzten poza eta ilusioa itzelak izan zirela; eta, hori ulerturik, are aiseago ulertzen da denok -B-12 ere barne, noski- sagardotegira afaltzera eta gero parranda egitera joan ginela. Eta parranda ikaragarria egin genuen, sekula ez bezalakoa, kanona bilatzen hastearena hurrengo egunerako, geroko, bai, geroko utzirik; eta edan ere, luze, ikaragarri luze edan genuen, batez ere B-12ren botika probatuko genuelakoan eta bestondorik edukiko ez genuelakoan (zeren, gure artean esan dezadan, bestondoa baita edateak sortzen duen arazorik txarrena). Eta horrela, hurrengo goizean, porru

eginda geundenean, elkartu eta B-12ren bila joan ginen, orduan argituko zelakoan bestondoa kentzeko botikaren misterioa. Beharra ere bage-nuen, eta ez nolana hiko.

Baina, gutxien espero genuenean, B-12 bai-naka eta aitzakiaka hasi zitzaigun. Agian ez zi-tzaigula botika gustatuko, bigarren mailako on-dorioak eduki zitzakeela, norberaren aldetik prestazio gogortxoak eskatzen zituela... Ez ge-nuen deus ulertzen, eta, aldiz, B-12 udaberriko lilia bezain fresko zegoela ikusten genuen. Tira, B, esaten zioten gutariko batzuek -zeren, aurre-ko gaueko parrandaren ondorioz, B-12 kide berri bat bezala ikusten hasiak ginenez, batzuek «B» deitzea erabaki baitzuten, izena laburtzeko eta nolabaiteko familiarrekotasuna erdiesteko, eta munduan zehar ezizenak jartzen famatu gaituen omenari omenaldia egiteko (B-12 zenez B deitu, ulertzen?)-, eta halaxe esaten zioten, B, zuk ez duzu bestondorik, beraz edabea hartu duzu, ezta? (Edabea esaten genuen, zergatik ez daki-dala denok edabea zela uste genuelako). B-12k zalantzati erantzuten zuen, bai..., esaten zuen aurrena, eta gero berriz, ez..., eta gero, bai baino

ez..., zeren..., agian ez zaizue gustatuko..., oso pertsonala da... Baina gure sabai idortuak, ura ere metabolizatzeko ez ziren gure gibelak, gure buru lodiak, gure puxika hanpatuak, ez zeuden B-12ren atzera-aurrerak, duda-mudak eta planta herabetiak jasateko moduan, eta orduan orro batean hasi gintzaizkion edabe eske, gure neurona matxuratu eta zulatuei gelditzen zitzaien kemen guztia -asko ez bazen ere- bilduz.

Orduan B-12k, erabakia harturik, nonbait, jarreraz aldaturik, isilarazi eta argi hitz egin zigun. Ongi da, esan zuen, hala nahi baduzue... Baina garbi gera dadila eskatu egin didazuela. Edabea neure barruan dago, esan zuen. Edabea neu naiz. Hemendik atera behar duzue, eta hau esaten zuelarik, bere gorputz berdearen hanka arteko konkortxo bat seinalatzen zuen, ordura arte oharkabean pasatu zitzaiguna.

Labanaz mozten ahalko zen isiltasun erabatekoa pausatu zen gure gainean aldarrikapen hau entzun zenean.

Garbiago esanda: Zurrupatu egin behar didazue, esan zuen, ozen eta klaru.

Gure artean inork ez zuen txintik ateratzen.

Zurupatu, lamikatu, zupatu, miaztu, txupatu, miazkatu, mizkatu, milikatu, zurgatu, hurupatu, edoski, murduskatu, xurup egin behar didazue, ekin zion osterara ere B-12k, denok ongi konprenitzea nahi zuela argi ikus genezan.

Baina gure artean inork apurtzen ez zuen isiltasunak garbi erakusten zuen arazoak ez zuela zerikusirik euskararen aldaera diatopiko edo diakronikoekin, ez erdararen presioak eragindako isoglosa-ezabatze tamalgarri batekin, ez euskal bokalismoaren galerarekin, ez autogorrotozko agerpen batekin, ezta mintzagaiaren auzi ia-metafisiko eta hainbeste eta hainbeste aldiz eztabaidatuarekin ere.

B-12k eskatu zigun kanonaren bila nor joango zen erabakitzekeo hainbat premiazko bilera egin zela egia da, baina nago Arantzazuko fraideek ni hobestea izan zela pergutada honetarako aukeratu izatearen arrazoi nagusia. Nago, baita ere, agian egin behar dela hemen *excursus* txiki bat, zergatik hobetsi ninduten Arantzazuko fraideek azaltzeko.

Badakikezuenez, Arantzazuko Andre Maria, jatorrizkoa, 1493koa da, eta zenbait sute eta eraso jasan ditu historian zehar. Lehiaketa nazionalaren bidez, Luis Laorga eta Javier Saenz de Oiza arkitektoek, izen handiko hainbat eskultore eta arkitekto lagundurik, berreraikitze lanaren lehen urratsak emateari ekin zioten, 1950ean. Ni munduratzeko lanaren lehen urratsak ere, Arantzazurenak berak bezala, 1950ean eman ziren. Jakina denez, Arantzazuko fatxada, bertako apostoluak eta Pietatea Oteizarenak dira; atea Txillidarenak; beirateak Eulaterenak; absideko pinturak Muñozenak eta kriptako freskoak, zur

landu erre eta polikromatuaz egina, Nestor Basterretxearenak. Laorga, Saenz de Oiza, Oteiza, Txillida, Basterretxea, Eulate, Muñoz... Harrigarri samarra da, zati bakoitza nork egin duen hain erraz jakiten den toki batean, inork ez jakitea nire egilea (nire egile materiala, biologikoa) zein izan zen. Kontuak kontu, zozomikote eta tenpo-rekin bueltaka zebilen fraide batek ikusi omen ninduen aurrena, elizako ate ondoan, saskitxo batean. Grazia egin omen zion komunitateari nire izaerak, itsusi mortala izan arren arlo fisikoan, gehiegi maite ez nautenek diotenez, eta ez hain azkarra izpirituzkoan, eta inude batenean hazi ondoren, mundu anker hau ez zela niretzat iritzirik, nonbait, Arantzazuko fraideek hartu ninduten besoetako. Eta hantxe pasatu nuen nire gaztaroa, lehen ikasle eta gero baratzezain, munduaz eta bere ponperiaz deus jakin gabe, hogeita bost urteko adina bete nuen arte; orduan, nahi izan zuen halabeharrak ni aizkolari australiar baten erakustaldian suertatzea, eta ni neu aizkorarekin nahikoa trebea izaki, euskal ebakera erakusteko aitzakiarekin Australiara joan nintzen; han hamabost urtez, munduaren

maleziak oro ikasi nituen; gerora, baina, munduaz enoaturik, Arantzazura itzuli nintzen, non seme bati egiten zaion bezalako harrera egin baitzidaten, eta berriz hartu bainuen lehengo lana, baratzezaina, fraideen komunitatearen oniritziaz eta abegi onaz.

Baina nahikoa hitz egin dugu nitaz, oraingoz bederen, eta erasten eta kontaktzen ari nintzen historiari lotzeko garaia iritsi da, berriz ere. Beraz, sorlekua utzirik, erlatiboki (gero eta erlatiboagoki) gazte nintzalarik, Amazoniara joan nintzen, kuraiez beterik. Helburua: Mitxoleta topatzea, eta, topatu ondoren, bere senera itzularaztea, zer zen eta nola baliatzen zen ez nekien kanon bat eskuratzen nola lagunduko zigun aztertzeko. Hara abiatu nintzen, jantzirik nuen laneko arropa, Kandido Zubizarretaren salakota, Bitoriano Gandiagak behin erabili zuen estola bat eta Villasanterena izana zen Oteizaren hamabi apostoluen postala ekipaje bakartzat.

Kontatu nahi denaren ikuspuntutik munta handikoa da jakitea ezen, garai haietan, menturazale, txerpolari, errekaitu-saltzaile, buhame, ijito eta mota guztietako petral saldoek mukuru

betetzen zutela Amazonian sartzeko atari zen San Oximoron herria, Oximoron Leibnizbarrutia idazle famatu zenaren oroimenez horrela deitua. Oximoron Santuaren Aita Zaindarien Gazteluak, Aita Zaindarien bizilekua ere bazenak, ehun metro gorago zegoen muino batetik, etxolaz betteriko karrika asfaltatu gabeko herria zaintzen zuen.

Esana denez, San Oximoron zen Amazonian, ibaian barna, sartzeko porturik usuena. Kolko Mitxoletaren arrastoan jarriko ninduen flete baten bila nenbilela, pito luzeak estaltzen zizkien oihal txikiez jantziriko indio matxetedunak, bolizko adarrak garraiatzen zituzten ehiztariak, etsaien erraiak jaten zituzten piratak, koko-oskolez trile-ro-jokoak egiten zituzten buhameak, krokodilokiak saltzen zituzten bisuteroak, aire iluneko esklabo-saltzaileak, urre-bilatzaileak, drogamenpekotasun anitzek jotako esploradoreak, burutxikitzaileak, hegaztien zirinen kontrabandoan zaildutako patibularioak, txoto hegalzabaleko begibakarrak, presondegi izugarrienetatik ihes egindako zorritsuak, putaner ardankoiak eta horien arteko bulegari itxurako ale bakanak (euro-

parrak edo estatubatuarrak, nire ustez), gehien-gehienak gizonezkoak, begiratzen entretentzen ari nintzela, Gandiagaren estola lepoaren inguruan airoski bildurik, sudurra oihan-txori baten hezurraz zeharkaturik zuen indigena batek keinua egin zidan itzalean zegoen etxola baten atetik. Eskuan zuen paper luzanga bat inarrosten zuen ni nengoen tokirantz.

Indigenak keinua errepikatu behar izan zidan, ez nuelako uste niretzat zenik; ez nuen inor ezagutzen San Oximoronon, inori ez nion nire bidaiaren berri gaztigatu, eta inork ez ninduen espero. Beraz, zer zela eta deitzen zidan inork? Nola ezagutu ninduten, nork ezagutu ninduen? Seguru-seguru jakin nuenean keinua niretzat zela, hurbildu egin nintzen, nahikoa harriturik, algodoi-fardelak eta errinozeroen adarrak garraiatzen zituzten morroiak bazterrera bultzatuz. Indigenak atea zarratu zuen bere gorputz handiaz, eta batere ulertu ez nituen hitz batzuk jaurti zituen. Ez det zure mintzaje barbaroa entendiuten, esan nion. Belzkoteak zaparrada errepikatu zuen, eta eskuetako paper luzangak jarri zituen nire sudur azpian. «Ajá!», esan nuen.

Barrutik, ahots batzuk entzun ziren («Txomin!! Berriz derbirako sarrerak saltzen harrapatzen bahaut, txikitu egingo haut!»). Beltzak etsi zuen, sarrerak sakelan gorde, eta hatz batez etxola barrura sartzeko keinua egin zidan.

Etxola umel eta ilunaren barruan bi lagun zeuden; batak europar itxura zuen. Euskarri beltzezko antiojo modaz paseak janzten zituen. Altua eta meharra zen, eta bere begiek zoramen-izpi bat destilatzen zuten irribarrea egiten zuenean. Britainiar armada kolonialeko kapitainen antzeko jantzia zuen soinean. Bera zen buru egiten zuena. Bestea txikiagoa zen; Saimazako gizonaren eta Rabindranat Tagoreren arteko nahasketa bat bezalakoa zen, itxurari dagokionez, eta *sari* bat janzten zuen. Honi Prostatas deitzen zioten. Atea zaintzen zuen belzkotea, Txomin izenekoa, antza, bermeotarra omen zen. Altua despistatu zen une batean, Prostatas delakoa hurbildu zitzaidan, eta zera esan zidan, ahapeka, etzaiok beltzari sarrerarik erosi, nik merkeago saltzen dizkiat. Euskarri beltzezko antiojoduna hurbildu zitzaidanean Prostatas braust isildu zen. Burua egiten zuena hasi zen hizketan.

Badakigu nor zaitugun eta zertara etorri zaren, ekin zion etiketa askorik gabe, baina alfer-alferrik ari zara, bota zidan, honela, lehor, hasteko. (Nabarmena zen elkarren arteko gangar usaina eta katxondeo airea nirekin ari zirenean, Txominek eta Prostatasek zirikadez zipriztintzen zituztenean bestearen hitzak, zirtolari). Ez duzu zer eginik. Kolko Mitxoletari burutik egin zaio. Marlon Brandon dela uste du. (Hau esan eta hirurek irri-karkaila luzeak egin zituzten). Marlon Brandon dela uste du, eta andereño guztiei jo die larrua, brankako zirrikitutik eta atzeko latinetik. (Honek gerria tolesterainoko irriak sorrarazten zizkien). Ez dizu kanonik bilatzen lagunduko. Ezin dizu lagundu. (Barre gehiago). Eta, arren, kendu Oteizaren apostoluen postala paparretik. (Barrenak lehertzearainoko algarak).

Jakina, Arantzazutik abiatu nintzenetik kendu ez, eta soinean neukala jada gogoratzen ez nuen apostoluen postalaz ari ziren. Zer zuten apostoluen kontra, fedegabe zantarrok? Gero beste pentsamendu batek asaldatu ninduen; agian, horregatik ezagutu ninduten? Denbora irabazte aldera, ergelkeria batzuk esan eta irribarre urdu-

riak egin nituen beren algarekin bat egiten nuela adierazteko, herabeti. Baina, haiek ni nor nintzen baldin bazekiten, ni hasia nintzen susmatzen haiek nortzuk ziren. Britainiar armada kolonialeko kapitainen antzeko jantzia zuena Ugatza baizik ezin zen izan. Ugatza, K.A.T. (Kanonetik Askatzeko Txatarreroak) erakunde entzutetsuko buru anker eta odolgosea. Tesi zuzendari bat, unibertsitateko bi errektore, literatura-irakasle bat, kritikari bat, hiru argitaratzaile eta mandatarari bat, bi txofer eta zerbitzari bat garbitzea izan zen bere azken azaina odoltsua. Hamabi lagun, denetara: hamabiak klub bateko bainu turkiarrean zeuden. Katarrak bainua lurrinez betetzen zuten hodian tokira sartu ziren, eta juduak hiltzeko erabiltzen zuten gas berdina ipini zuten lurri- na botatzen zuen mekanismo automatikoan; birtartean, beste katar batek, edo bik, ez dago oraindik argi, atea silikonaz itxi zuten, kanpotik. Gero ihes egin zuten. Klubeko zaindariak iritsi zirenean, eta atea irekitzea lortu zutenean, ikusgarri danteskoa kausitu zuten (albotik esan dezadan: zer pentsatuko luke Dantek ikusiko balu bere obra guztiak adjektibo bat baizik ez duela

balio). Denak zeuden bainujantzian, edo toallan bilduta. Denak itota. Zaindariak esan omen zuen, hilik ikusi zituenean, ez zitzaizkiola hain gizon jakintsuak iruditu: heriotzak berdintzen gaituela esateko modu bere gisakoa, nonbait.

Ugatzak eta bere bi katarkideak irri ederrak egiten ari ziren nire kontura. Kanon bat, zioen Ugatzak, halakorik! Zertarako nahi duzu kanon bat, ordea? Horrek ez du ezertarako balio, baina! Nork sartu dizu horrelakorik buruan? Martetarkoxkor berderen batek? Prostatasek mihi puntaz betetzen zuen ahoaren matrail aldea, eta gero higitu egiten zuen, eskua ukabil eginda aho aurrean mugitzen zuen erritmo berean. Belzkoteak prakak jaitsiko zituen mehatxu-keinua egiten zuen. Hirea bai kanon ederra, e, Txomin?, esaten zuen Prostatasek, erakutsi, erakutsiok laguntxo-ari!

Nekatu nintzen beren panparroikeriez eta arrandiez, ez nuen beren gustu txarreko umore matxista aintzat hartu, eta gizarte zibilaren nagusitasun morala erakutsi beharrez, solemneki aldarrikatu nuen Kolko Mitxoletarengana iristeko delibero irmoa hartua nuela, kosta ahala kosta,

hitz hauek erabiliz nire asmoen berri emateko: Bereziki pozten naiz zuen umore ona ikustean, jaun txit agurgarri horiek, zuei begiratzea baizik ez dagoelako ikusteko hizkuntzaren senak ukitu-ta zaudetela, ez delarik hori Jainkoak -halakorik bada- Leninek -halakorik nahiago baduzue- edo dena delakoak zuen saihetsetik behera barreiatu duen dohain bakarra, sinpatiak ere gainez egiten baitizue, eta grazia apartaren txinpartak, eta esan gabe doa ez dudala zalantza txikienik ere egiten zuen ausardiari, kalipuari, adoreari, kemenari eta bizkortasunari dagokienez; alabaina, eta bere jokabide horretatik inolako ezbeharririk eta deserosotasunik sortuko ez zaizuelako uste osoan, apo nazkagarri honek, zuen zapaten zola garbitzeko ere duin ez den zomorroide, perguta, afrusa, hankabiko arrunt honek erabaki du, orain arte esandakoaren kalterik gabe, Euskalgintza Orokorraren Batzar Nagusiak (EOBN) era orokorrez, eta Arantzazuko fraideek partikularzki emandako agindua betetzea, zeina baita Marlon, barkatu, Kolko Mitxoletaren altzora bildu eta bere jakinduria agortezinetik eskuratu orain gure

salbamendurako ezinbestekoa eta guztiz beharrezkoa omen den kanon delakoa.

Katarren nagusia ez zen ulerbera agertu nire erretolika frantziskotarraren aurrean. Nik eman-go dizut zuri, berbalapiko horri, esan zuen Ugatzak, burdina hotz bat nire saihetsean jarriz. Ez al zenuen kanonik nahi? Hau duzu kanona!

Burdinaren hotzak eta gogorak, eta zer esanik ez formak, argi eta garbi erakusten zuen Ugatzak nire saihetsean jarritakoa pistola bat zela, eta, hortaz, Ugatzak Walter, Beretta, Firebird edo agian Smith&Wesson zeukala kanon baktartat.

Aho-sabaia sikatu, zangoak dar-dar hasi eta heste meharraren jarioak uzki aldera etorri zitzaidan esfinterreko atea jotzera. Une batez astapotro haren aurrean belaunikatzea eta errukia eskatzea bururatu zitzaidan, beste ideia hoberik ezean. Otoitz egin nuen oraindik paparrean neraman Oteizaren apostoluen postaletik, Villasantek bere eskuaz ukitu zuen aldetik, bilau horiek txokarratuko zituen su-mihi bat atera zedila; edo inoiz Kandido Zubizarretarena izandako salakotari etxola hartatik hegan aterako ninduten

helize txiki batzuk hazi zekizkiola; edo, besterik ezean, Gandiagaren estola, nire eskuetan harturik, Daviden habaila bihur zedila. Baina deus horrelakorik ez zen gertatu, eta denbora irabaztearren, Ugatzari estola kentzeko baimena eskatze-kotan nengoenean, beroaren aitzakiaz, ustekabeko zerbait gertatu zen.

Txominek, ate ondoan zelatan zegoenak, oihu bat egin zuen eta, barru aldera ziztuan itzulirik, mahaietan barreiatuak zeuden hainbat paper, plano, kargadore, arma eta abar biltzen hasi zen, su herioan. Prostatas batu zitzaion eginbehar premiazko hartan, eta Ugatzak berak, nitaz ahazturik, azken begiratu bat bota ere gabe, pistola bere zorroan sartu eta buztinezko zoruan ordura arte nire oharkabean egondako tranpatxo baten ate irekitzeari ekin zion, Aita Zaindaria! azkar, goazen hemendik, agintzen zuela, oihuka.

Hirurak desagertu ziren tranpatxotik, azkar demonio, eta atea doi beren atzetik itxi zenean, nik kalamar-latek, hautsontzi beteek, tabako paketeek eta botila metal-urek osatutako paisaje kaotiko samarraz doi-doi une batez konturatzeko

denbora eduki nuenean, gizon saldo burrunbatsu bat barneratu zen etxolan. Katarren baten etzatokia zatekeen hamaka baten atzean kukutu nintzen, gelako zoko batean.

Etorri berriek kalamar-latak eta, orokorrean, mahai gaina estaltzen zuten gauza guztiak bota eta bultzatu zituzten, kalapita handiz; baina ni beren itxura arras bitxiari gelditu nintzen so: tunika zuri luzeak zeramatzaten, oinetaraino iristen zitzaizkienak, eta burua punta zorrotzean bukatzen zen kapirota batez estaltzen zuten, aste santuko marmo edo mozorroen moduan. Euren tuniken beheko parte zirimolatsuek, hegalariek, ozta-ozta estaltzen zituzten tuniken azpian sumatzen ziren terlenkazko praka grisak.

Ihes egin dute! oihu egin zuen denetan buru behar zuenak. Mira dezagun gela azken zokoraino!

Martxa hartan, ez zen oso luze joango nire ezkutaleku badaezpadakoa aurkituko zuten arte. Etxolaren banbuzko paretarekin estuagotu nintzen, kafe-borra eta kafea galtzerdi batetik zehar nola, nire gorputza eta arima, pareta galbahe, bitan bereiz zitezela desiratuz, hala bata ez

bazen, bestea behintzat libratuko zelakoan. Aldi berean, desesperatuki hasi nintzen buztinezko zorua atzaparkatzen, sator trebeena izanik ere ez nuela ihesbiderik banekien arren; gutxienez, nire ahalegin patetikoek fruitutxoa eman zuten: buztinezko zoruaren azpian Prostatasen edo agian Txominen derbirako sarreren ezkutaleku sekretua zegoen.

Artean «Ihes egin dute!» aldarriaren azken bibrazioak erabat desagerturik ez zeudelarik, laguntzaileetako batek hatzaz seinالاتu zuen ni nengoen aldera. Ez, denak ez! Hor bat dago! Doi-doi eduki nuen denbora derbirako sarreramultzo bat hartu eta poltsikoratzeko.

Nire gainera etorri ziren. Konturatu orduko ostikoka, txistuka eta atzamarkaka ari zitzaidan tropel baten erdian nengoen. Irainak ere -Hiltzaille! Fanatiko! Intolerante!- ugari ziren. Konortea galdu nuen.

Esnatu nintzenean, gelaxka hits batean giltzapeturik nengoela konturatu nintzen. Ez du merezi ziegaren deskribapen fisikorik egiterik: ziega bat zen, kitto. Ez du merezi, ezta ere, nire urradura, zauri eta kolpeen berri ematea.

Hainbat egun egin nituen bertan. Gorputzeko ubelduak hobetzen zihoazen poliki-poliki. Egunero, ezer esaten ez zidan marmo batek ekartzen zidan jatekoa eta edatekoa; urria, eskasa, txarra. Eskerrak frantziskotar peto bat edozerekin moldatzen den.

Marmoak, hainbatgarrenean, erantzun zuen nire eguneroko galdera: horrela jakin ahal izan nuen -sumatzen nuen bezala, bestalde-, Oximoron Santuaren Aita Zaindarien Gazteluko kalabozoan nengoela, Kolko Mitxoletaren bila abiatzeko aukera gutxirekin, beraz. Zerbait egin behar nuela erabaki nuen.

Gizakiaren berezko berriketa-gogoia ezin eten daitekeen iturria denez -are eta gutxiago berezko joera hori estimulatzen duen pizgarririk,

oraingo honetan derbirako sarrera pare bat, mutur aurrean paratzen bazaio-, egun batzuen buruan jakin nuen, nire zaindariari esker, beren buruari Aita Zaindari izena ematen zieten jende haien hainbat ezaugarri. Aita Zaindariak hogeita hamar ziren, eta beren arteko antolamendua oso hierarkikoa zen. Denen agintaria Aita Guebokinder Artximandrita zen. Tuniketan zeramaten hainbat zeinu bereizgarri ezartzen zituen maila hierarkikoak. Nire zaindariak, esaterako, pipa bat zeukan marraztuta gutxi gora behera titiburu edukiko zuen tokiaren gainean, eta piparen inguruan esaldi hau zegoen idatzita, letra txikiez: «Hau pipa bat da (?)». Aita Pipadunak -hala esaten omen zieten besteek ikur hori zeramate-nei- Aita Zaindarien artean, maila hierarkiko baxuenekoak omen ziren. Guebokinder Artximandrita agintari moral eta izpirituzko gorena zen, eta bere esanak diskutiezinak ziren. Bera kilonbo hartako burua zela sinbolizatzen zuen arrautza zen Guebokinderren ikur bereizgarria. Pipadun hauetaz aparte, Aita Katxinetak -horrela deituak bufanda erabiltzeko baimena zeukatelako-, Aita Argazkikoak -hauen bereizgarria zen egoera

edozein izanik ere, edo ia, burua bermatzen zutela esku-ahurrean-, Aita Kokospekoak eta Aita Gonbidatuak zeuden. Hauek mundutik zehar barreiatuta omen zeuden, eta, hortaz, ez ziren Gazteluan bizi.

Baina ez dut kontakizuna gehiegi zamatu nahi antolamendu hierarkiko bitxi haren narrazioarekin. Bistan da nik nahi nuena kalabozotik irtetea zela, eta nire pipadunaz baliatu nahi nuen horretarako, nahiz eta jakin ez zela egiteko erraza izango, besteak beste atzaparkada batez, presaka, hartutako derbirako sarrera bakanak, informazioa erosteko saioan ahitu nituelako.

Bereziki pozik zetorren egun bat aprobetxatu nuen. Egund hartan Aita guztien urteko bilera nagusia zen egitekoa, eta bilerako une jakin batean, Aita Pipadun batzuk Aita Katxineta izatera pasako -igoko- ziren. Horien artean, nire zaindaria. Ezin alegerago zegoen, uros eta satisfos, esposatzera doan emaztegaia bezala. Gaur jantziko dut bufanda lehenengoz, zioen, bozkarioz. Tunikako piparen inguruko esaldia ez nuela ongi ikusten aitzakiarekin hurbildu nintzaion, eta besteak, harro, kopetagoi, fier, bularra aurreratu

zuenean, berebiziko koskada eman nion titiburuaren erdian.

Minak garrasi sarkorra eginarazi zion, eta ezertarako ez zela egon zen uneak profitatu nintuen bere arropak kendu eta eskuak estolarekin fermuki estekatzeko, hagin artean geratu haragi-pusketa txikiak botatzeari utzi gabe. Gero tunika eta kapirotea jantzi eta kalabozo hartatik atera nintzen, di-da, Fred Astaire baino zaluago, beste mozoloa iltzez eta giltzez itxita utzirik.

Eskailera batzuetatik gora eginez atera nintzen kalabozoetatik. Eskailerek pasabide estu eta ilun baten hasieran utzi ninduten. Aurrera egin nuen. Kalabozoen mailaren gainetik egoteagatik, pasabide hura Gazteluaren azpian zegoela nabarmena zen, beti lurpean. Halako batean, pasabidea bitan banatzen zen. Ezkerreko adarra hautatu nuen. Pasabideak ezker-eskuin batzuk egin zituen berriz bitan banatu aitzin. Itsasoko marruma bezalakoa zen zerbait entzuten zen urrutian. Ezkerra hartu nuen osterera ere. Pasabideak angelu zuzen bat egin zuen eskuinerantz, gero beste bat ezkererantz, eta gero berriz eskuin, eta gero berriz ezker, bi aldiz, hirutan ba-

natu baino lehen. Norabidearen zentzua erabat galdua nuen ordurako, labirinto batean nengoe-la ulertu nuen. Itsasoko marruma ozenagoa zen, eta orain otoitz erritual baten antza hartzen ari zen. Galdurik, otoitz-soinu arraro horri segitzea erabaki nuen.

Poliki-poliki otoitza marmar bihurtu zen, marmarra ahots-koru identifikagarri, ahots-koru identifikagarria elkarrizketa ozen. Gela zirkular batera iritsi nintzen. Gazteluko sotoetan nengoen oraindik. Orain argi eta garbi, garden eta klaru entzuten nituen zurezko ate batez haratago izaten ari ziren solasak eta elkarrizketak. Ez dakit zer espero nuen atiaz beste aldean. Agian ez nuen egoki jokatu, baina ordurako nahikoa buru-nahas nengoen. Atea ireki egin nuen.

Beste aldean kapirotedun elementia zegoen bildurik, elkarren artean hizketan, binaka, talde-txoetan, biribiletan. Ez dakit zerk ematen zuen hori pentsatzeko bidea, baina oso aspalditik, mendeetatik edo agian baita milurtetatik ari zirela eztabaida hartan iruditu zitzaidan. Otsoaren ahoko zuloan sartzen ari nintzela konturatu eta atzeraka egin nahi izan nuen, atea berriz zehar-

katzeko, oraingoan etorritako bidetik alde egiteko, baina beranduegi zen: zurezko atetik gertuen zeudenek (haien artean mahaiburu zeudenek, eta hartan, erdian eseririk, neke handirik gabe Guebokinder zela identifikatu nuenak) ikusi ninduten. Guebokinder bera etorri zitzaidan; besoak zabaldu nituen bere aurrean, eta begiak altxa zeru urdinerantz. Hala nengoela, irudipen berezi bat izan nuen. Iruditu zitzaidan zabaldutako nire bi beso horiek niregana biltzen zirela ostera, eta beso horiek, nik nahi gabe, inguratu egiten nindutela, eta besarkatu. Laster konprenitu nuen bi beso horiek Guebokinderrenak zirela; hauxe esan zidan: baina, seme, gaur, gaur hain zuzen ere, agian zure bizitzaren egunik zoriontsuena den honetan, gaur abandonatu nahi gintuzun?

Aita Pipadun izatetik Aita Katxineta izatera pasatzekotan zeuden beste hiru neofitoren ondoan eserarazi ninduen, albo bateko aulki luzean, mahaiburu, oholtza eta atriletik hurbil.

Bistan zenez, ez zidan matrakaren tormentua barkatu nahi izan.

Kaputxadunak Oximoron Leibnizbarrutiaren omenezko urteko Jardunaldi Printzipala egiten ari ziren. Nik ez dakit zein zen kaputxadun haien jokoa, baina zin dagit ez zitzaizkidala batere fidatzekoak iruditu. Mintzaldi luzeak, solas amaiezinak, platika betirakoak, ogirik gabeko eguna oinaztargi bihurtzen zuten diskurtso oparoak egiten zituzten berbalapikook, erretolika hanpatu, farfaila eta hutsalez. Izan zen bere hizketaldiaren muina ilustratzeko sarrera Prekanbrikotik gaur egunera doan tartean gertatutakoaren laburpena eginez burutu zuenik. Australiako basoan egurretan egon balitez! Pertsona normal batek nekez uler ditzakeen gauzak esaten zituzten, eta guztiz erotuta zeudela erabakiko nukeen, baldin eta beren jarduera estrainio horri probetxuren bat eta are plazera ateratzen ziotela konturatu izan ez banintz. Nola juzga psikiatrari ordaindu gabe bere buru arazoak garbitzen dituenena? Kapirote zorrotzaren azpitik, izerdi tanta lodiek korritzen zuten nire burutik behera,

kokots azpian bildu eta, finean, paparra pelaturik uzten zidatenak. Ez nuen gainerako entzuleen aurpegirik ikusterik, baina ikusi izan banitu, zahartuta zeudela sumatuko nukeen, ezbairik gabe. Aurpegirik ikusterik ez banuen ere, batzuen gorputz-jarrerek argi asko salatzen zuten entzuleria hinduismoko metodo zaharrek *-joga-sutran* sistematizaturik daudenek- azaltzen dituzten erlaxatzeko teknikak erabiltzen ari zela, nagusiki, eta are, bakarren batzuk hain ekialdekoak ez diren metodoak -siesta, kasu- praktikatzen ari zirela, beronek ohi dituen berezko soinu adierazpenei -zurrunga egiteari, alegia- muzin egin gabe.

Noizbait egin zuten atsedenaldira, jardunaldi haren antolamenduak aske utziriko hariak -gauzatxo domestikoa, esan dezagun- lotzeko asmoz, eta, kapirotea kentzeko tentazioari eutsiz, eszenari begira jarri nintzen; berrehun edo hirurehun kaputxadun bazeuden, denak marmar betean. Hura anabasa zen: ez omen zegoen gelarik jardunaldietako parte hartzaile guztientzat, nonbait, hainbat akreditazio falta omen zen edo oker zegoen, areto hartako aire egokituak ez

zuen behar bezala funtzionatzen (omenik gabe, neu lekuko), interpretarien zerbitzuak are eta gutxiago (baina, interpretariekin, artean esan dezadan, gauza jakina da...). Berandu iritsi eta gela eske borrokan ari ziren estatubatuar batzuk bazeuden. Han, denak kaputxadunak izanik, ez zegoen inor ezagutzerik, baina haiek behin eta berriz esaten zuten estatubatuarrak zirela, euren nazionalitatea adierazteak nolabaiteko eragin disuasorioa edukiko zuelakoan edo.

Betikoa, esan zidan nire ondoan eseritako ni bezalako beste neofito batek. Amerikano puta horiek! -neofitoak paper-sorta bat gordetzen zuen bere altzoan; horretaz ohartu eta datua bu-ruan gorde nuen-. Baina antolatzaileak luzitu dira, hori ere egia da. Kanpoko gonbidatuak ekartzen tematzen dira eta gero ez dira gauza jardunaldiak behar bezala antolatzeko. Ez al duzu entzun azkena? Interpretarietako bat auto-lesionatzen saiatu da saioa hasi aurretik, mikrofonoko kablea lepo ingurutik bi buelta eman eta kabinako goiko habetik eskegita.

Atsedenaldea bukatu eta tortura saioarekin segitu zuten. Jarraipeneko lehen hitzaldiak taba-

rra hutsa izan ziren. Oximoron Leibnizbarrutiari buruzko datu oinarrizkoenez jabetzeko balio izan zidaten, bederen. Farfaila, zioen ondoko neofitokak, nirea askoz hobea duk. Eta hau esanda altzoko paper-sortaren gainean kolpetxo batzuk ematen zituen.

Saioari bukaera eman zion mahai-ingurua xelebrea izan zen. «Heroiak eta Traidoreak Leibnizbarrutiaren obran», horixe zen gaia. Lau kaputxadunek hartzen zuten parte, eta Guebokinderrek moderatzailearen lana egiten zuen. Bitxi irudituz gero, zitzaidan ikustea parte hartzaile guztiek -Guebokinder ere barne- kokotsa esku ahur gainean bermatzen zutela. Bestalde, mahaikide gehienek harriak ez eta iritziak baino gehiago topikotzarrak botatzen zizkieten elkarri, asmorik petralenarekin. Denak denboraz, zirkularitateaz, eternitateaz eta betiereko itzultzeaz mintzatu ziren, luze bai luze. Baina, hitz berberak erabili arren guztiz gauza kontrajarriak ulertzen zituztela zalantzari zirrikiturik utzi gabe baieztatu zenetik, moderatzailearen lana funtsezkoa gertatu zen. Guebokinderrek lortu zuen, laburpen gisa, denak puntu baten inguruan konforme jartzea.

Puntu Oximoron Leibnizbarrutiak hainbat eta hainbat aldiz gogoraraziko gauza bat zen: ezen, idazleaz gaindi, irakurleak direla testua egiten dutenak. Nik, nire artean, marmo haiei entzunik, beste gauza bat pentsatu nuen: are, Leibnizbarrutiak inoiz esan ez zuen zerbait ere frogatu zela, alegia: zenbait irakurlek testua egin ez ezik, jasangaitz, enpagugarri, ezin aspergarriago ere egin dezaketela eta egin egiten dutela. Mahai-ingurua bukatu eta partaide guztien arteko solasari ekin zitzaion.

Galderen txanda kanpoko gonbidatuetako batek ireki zuen. Nahiko nahasita zegoela zirudien, honelako zerbait galdetu zuenean: «Orduan, Heraklitok esan bazuen gizon bat ezin dela bainatu bi aldiz ibai berean, baina, beste aldetik, hemen entzun dugun bezala, baldin eta egia bada, baita ere, edozein gizon bainatu dela Ganges ibaian, igerian ez badaki ere -igerian ez badaki ere azpimarratu zuen berriz, halako tonu enigmatikoarekin-, esan nahi al du honek, hau da, ulertu beharko lirateke metafora hauek Arkimedesen printzipioaren aplikazio zuzena diren aldetik?». ».

Adituak eta Aita Zaindariak ez zetozen bat, eta halako iskanbila sortu zen, zeinean publiko arteko askok ere bere iritzia eman baitzuen. Gangesen eman omen dugun bainuak bereganatu zuen jakintsuen arreta. Batzuek zioten hori heriotzaren metafora garbia zela, beste batzuek gizonaren berezko batasunaren adierazgarria zela. Orduan, ezin gaitezke Gangesen berriz bainatu? kezkatu zen, itxuraz behin bainatu zen zenbait. Izan zen gorabehera prosaikoagoetara jaitsi zena, esanez Ganges ibaia txikiegia zela denok batera bertan bainatzeko; beste batzuek Gangesen egon gabeak bildu nahi zituzten, bertara txango bat antolatzeko, sikiera behin bainatzeko. Ahots lodiko kankailu batek errotik moztu zuen eztabaida, hitz hauekin: «Gangeseraino joan gabe, inork esaten ahalko lidake, mesedez eta faborez, non arraio bainatu ahalko naizen, edo, besterik ez bada, dutxatu?». Arestian gela lortzeko borrokan ikusitako estatubatuarretako bat zen. Hasierako marmarrak buila eta algara bihurtu ziren, eta Guebokinderrek, eztabaida an-deatzen ari zela ikusirik, moztu egin behar izan zuen dei honekin: has bedi neofitoen zeremonia!

Mahaikideak altxatu eta beren tokietara joaten hasi ziren. Harrigarria iruditu zitzaidan ikustea ezen, mahaitik altxaturik ere, kokotsa eskuahurrean bermatzen segitzen zutela, eskua kokotsari itsatsia edukiko bailuten, edo hagineta min larria.

Behin isiltasuna eginda, eta Guebokinder guregana hurbildu zen, niri begira-begira gelditu arte. Orduan keinu bat egin zidan libre zuen eskuaz (bestea kokotsean pegatuta baitzuen), oholtzara hurbil nendin eskatuz.

Hankak dardarez hasi zitzaizkidan. Ez ikusiarrena egin nuen.

Guebokinderrek bere keinua errepikatu zuen, baina orain hitzez, hitz apalez lagundu zuen keinua: zatoz, anaia, zure lehen bufandaren bila!

Ez entzuna egin nuen.

Publikoa berantesten hasia zegoen. Guebokinderrek ahotsa altxatu zuen, ni berriz deitzeko. Ondoko marmoak ere oholtzara joateko esaten zidan (zure sarrera hitzaldia emateko tenorea da!), eta esan ez ezik, bultzatu egiten ninduen. Gaixo ni! Sarrera hitzaldia! Zer esango nien, baina? Dentista ona ezagutzen nuela eta nahi

bazuten telefonoa emango niela? Jendea mar-
marka hasi zen, zeharo luzetsita. Egoera leher-
tzeko puntuan zegoen. Dardararik gabeko keinu
erabakigarriaz zutitu, eta eskukada lehor batez,
nire ondoan eserita zegoenaren altzoko paper
sorta hartu, oholtzara igo eta irakurtzen hasi nin-
tzen:

«Labur mintzatuko naiz -esan nuen, ekin nio-
nean-. Ni kultura motz bateko ordezkari erudizio
laburrekoa naiz, eta, segurutik, sinplekeriak iru-
dituko zaizkizue esateko ditudanak. Oximoron
Leibnizbarrutiaren lanak irakurtzeak sorrarazten
dizkidan kezkak, inpresioak, iradokizunak eta
galderak aletu nitzake neke askorik gabe: esate-
rako, oroimena, denboraren beste forma bat bai-
zik ez da? Zenbat forma eduki dezake denborak,
guk pertzibitzen dugunaz landa? Esaterako, Jain-
koak bere irudiaren eta izaeraren araberako egin
bagintuen, ez al da Jainkoa agure txotxoloa, edo
haurra, edo, okerrago litzatekeena, ero ankerra?
Esaterako, ez al da egia izango, Leibnizbarrutiak
iradoki eta behialako poeta indiar batek esan
zuen moduan, gizon handi bat dela mundua eta
mundu txiki bat dela gizona, hau da, gizon guz-

tiak, finean, gizon berbera gabela? Horretaz guztiaz ari ninteke ahalegin handirik gabe, baina dagoeneko hori guztia topiko bat da. Horretaz guztiaz ari ninteke ahalegin handirik gabe, baina, aldi berean, bada beste arrazoi bat sobera alegaraki ez aritzeko; ariketa hagitz arriskutsua litzatekeela niretzat, zeren, inork ezin baitezake atzeman literatura-obra batean norberak duena baina filosofia gehiago, adimen gehiago, izpirituaren ñabardura gehiago; bestela esanda, nire jardunak nabarmen utziko ninduke zuen aurrean, naizenaren luze-labur eskasa argi bai argi geldituko litzateke zuen begietara, nire erretratu intelektuala edukiko zenukete. Ni kultura motz bateko ordezkari erudizio laburrekoa naiz: zer dakit nik heroiez eta traidoreez? Ezer ere ez. Heroiak eta traidoreak eduki ahal izateko, lehen-lehena kausa bat eduki behar da, kausa justu eta eder bat, zeren alde borrokatu; eta gero beharrezkoa da nazioarteko komunitateak -zuek ordezkatzeko duzue komunitate hori, hemen eta gaur- zure kausa ederra eta justua dela onartzea, eta gero -hau berezkoa izaten da, ia- zure kausa eder eta justua famatzea. Bi osagarri ho-

riek ez badira, kausarik ez badago, alegia, ez dago heroirik, ez traidorerik. Nik ez dut kausarik, eta ez dakit deus honetaz. Susmoa dut kausa bera benetan ederra eta justua izatea baino zerbait gehiago behar dela zuek hala dela aldarrikatzeko, baina hori gaurko sarrera-mintzalditik aparte gelditzen zaidan gaia da. Beraz, lehengogan geldi gaitzen: ez dut kausarik eta ez dakit ezer honetaz».

Guebokinderren lehen zurrungak aditu ziren. Horrek konpreniarazi zidan gauza lasaitzen hasia zela berriro, eta agian, tentuz jokatzuz gero, ataka horretatik onez atera nintekeela. Paperak kendu nizkion neofitoak kezkatzeko arrazoia ematen zidan, baina: oihurik-eta egiten ez bazuen ere, beso-keinuen bidez bere burua nabarmendu nahi zuen. Nik, tarteka, zirkinik egiten nion eskuz, atril azpitik, lasai zedin.

«Ni kultura motz bateko ordezkari erudizio laburrekoa naiz -segitu nuen-, eta zuek, zuen kultura boteretsuetan, bizitza osoa egile bakar bati buruzko ikerketak egiten pasa dezaketen dozenaka pertsona, ehunka agian, daukazuen bezala, gure kultura laburrean, gutariko batek dozenaka

idazleren ikertzailea izan behar du, ehunena agian, bizitza bakarrean. Horrek txiki, mugatu, ahul egiten gaitu. Baina, paradoxikoki, nire ahulezian datza nire indarra; nik oraindik deskubritu beharreko hodeiertzak ditut, zuek ortzimuga guztiak agortu dituzue. Nik zelai berde eta birjina-kanak zanpatzen ahal ditut, basamortuan ibili behar izatea da zuen kondena. Haur bati begiratzeko zaion aitakeriaz eta kondeszententziaz begiratzeko ahal didazue, baina ni oraindik emoziorako gauza naiz; zuengan, bitartean, emozioa ezinezkoa da, hil egin duzue emozioa, hitz zaparrada baten pean ehortzi duzue, milaka tona sintagma gaineratik ezin kendurik dabilen gaixoa da, zuengan, emozioa; gehienez ere emozioaren planta tristeak egiten dituzue, simulakro hitsak, itxura patetikoak, antzezpen penagarriak. Agian, bidearen hondarrean, zuek bezalakoak izango naiz; are, oso litekeena da. Baina, zuek ez bezala, oraindik badaukat salbaziorako aukera bat, eta, azken-azkenean, bidea da niri benetan interesatzen zaidana. Bide hori zeharkatzeko eskubi-dea daukat. Eta nik neuk egiteko beharra daukat. Bai, ez naiz konformatzen besteren bidea

ikustearekin; nire bidea behar dut. Asko hitz egin izan da Leibnizbarrutiaz. Gehiegi, agian. Milaka liburu idatzi dira bere obra interpretatzeko, bere estiloa diseinatuzko, bere ideologia aztertuzko, bere gaiak zerrendatzeko, bere kezka ikeritzeko, bere psikoanalisi egiteko, bere filiak nabarmentzeko, bere fobiak zehazteko, bere mozkorak deskribatzeko, zer janari zuen gustuko adierazteko, egunean zenbat aldiz joaten zen komunera zenbatzeko, bere gorozkien zenbatekoa eta nolakoa kalibratzeko, bere oinarrizko metabolismoa analizatzeko... Bai, gehiegi idatzi da Leibnizbarrutiaz. Idatzi den gehien-gehiena zaborra da. Nire jardun pobreak badu zentzu bat. Zuenak aspaldi galdu zuen zeukan zentzu guztia».

Publikoaren arteko batzuek protesta adierazi nahi zuten imintzioak eta eztulak egin zituzten. Guebokinderrek lo seko zirauen. Neofito papergabetuak oihi txiki batzuk bota zituen, baina, zorionez, gehienek isiltzeko eskatu zioten «sssshhhh» luze batez. Ni paperean idatzita zegoena irakurtzen ari nintzen, besterik gabe.

«Bai, gehiena zaborra da -nagusitu nintzen trumoi ahotsaz, marmarren eta zurrungen gainean, neure burua ere ustekabeen harrapatu zuen pasioaz-. Zabor hutsa. Zuen artean, gutxi batzuek ulertu dute ('ulertu' honek zerbait esan nahi badu) Leibnizbarrutiaren obra, nahiz eta, zuzenago izango zen esatea, agian, ideia baliagarri eta interesgarri batzuk atera dituztela obra horretatik. Gutxi horien artean hiru klasetako kritikariak edo adituak zeuden: batzuek ulertu bai, baina ez ziren ulertu zutena adierazteko gauza; beste batzuek ulertu bai, baina gogotik saiatu dira ulertu dutena ahalik eta ilunen transmititzen, beste inork uler ez zezan, beren jakinduriari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, beren burua kasta baten moduan iraunarazteko; pare bat baizik ez dira ulertu bai, garbi adierazten jakin bai eta, gainera, garbi adierazi nahi izan dutenak. Esan beharrik ez dago hauek idatzi eta esan dutela, aspaldi, idaztea eta esatea merezi zuen guztia. Gainerakoa zaborra da. Gehiago edo gutxiago eskukaturiko gorotz-pikorra, mila bider oratu den ore lika. Hortik aurrera, gainerako sasiaditu edo sasikritikariak maisu horien il-

dotik sartu dira; gehienek, maisu horiek esanda-
koa errepikatu dute, askotan ulertu ere egin
gabe zer esaten zuten, eta bigarren, hirugarren
edo are laugarren mailako iturriak erabiliz; beste
batzuek, beren buruari listoago iritzirik, zerbait
gaineratu nahi izan diote maisu zaharren lanari,
eta Oximoron Leibnizbarrutiaren gaineko exege-
sia paroxismoraino luzatu dute, erridikuluaren
eremura sartzeraino. Horixe da zuen kondena:
hain listo zaretenez denak, eta hainbeste eta
hainbeste zaretenez, jada ez dakizue zer txorra-
da esan, zer mozolokeria idatzi, zer txatxukeria
asmatu, zer zentzugabekeria irudikatu gainera-
koengandik bereizteko, gainerakoak epatatzeko,
eskola-gelako lehenak izateko, debalde bazkal-
tzeko, dirulaguntzak kobratzeko eta kolpe zorri-
rik jo gabe bizitzeko. Zuen exegesia besoez ab-
surdoa besarkatzen duen olagarro erraldoia da;
funsgabea eta alferrekoa atxikitzen ditu. Nire
kultura urria den bezala, zuena gehiegizko -hau
da, hanpatu, harro, faltsu- da, zuen gehiegizko
kulturaren pisuak zanpatu egiten zaituzte, topi-
kozko itsaso batean itotzen zarete. Benetan dio-
tsuet: kultura urri eta pobre batekoa izan ezean,

ez du merezi Leibnizbarrutiaz kezkatzea, Oximoroni arreta eskaintzea. Zuentzat topiko gogaikarria dena, niretzat esanezinari erauzten diodan harribitxi bat da. Beste modu batean esanda, zuena bezalako kultura aberats batekoa banintz, ez nukeen segundo bakar bat ere galduko Oximoron Leibnizbarrutiaren pitokeriekin. Eta adi, jendeak, jende arruntak arrazoia ematen dit, egunero ogia erosten duen jende arruntak bizkarrara eman dizue, eta jada ez dizue kasurik egiten, den mendrenik ere. Horixe da zuen kondena. Zuen kondena justua».

Diskurtsoaren puntu honetan protesta-oihuak eta asaldura-garrasiak nahiko orokortuta zeuden, jendearen ezin egona nabarmena zen. Irakurri nituen paperen jabea, neofitoa alegia, zutik, jauzi txikiak egiten zituen ukabilak biribil-biribil eginda. Baina ni suelto ari nintzen, bero. Inork bere barneko egia nire baitara aldatu izan balu bezala zen. Guebokinder iratzarri zen.

«Galdu duzue, inoiz eduki baduzue, kultura abentura bat bezala bizitzeko gaitasuna. Galdu duzue edo, egokiago litzateke esatea, agian, zuen kulturaren egoera esklerotikoak ez duela

abenturarako zirrikiturik uzten. Helburu militar guztiak bete dituen eta jada zer kolonizatu ez dakien armada hatsantu bat bezalakoa da zuen kultura. Nahikotasunaz begiratzen didazue ni txiki naizelakoan, eta ez zarete konturatzen nirean usu direla zuen sudurrentzat aspaldi debe-ku diren urrin gozoak. Nik baratzeke letxugak jaten ditut eta zuek hipermerkatuko lerrokada hits batean zaudete, tetrabrik bat eskuan, zain, eta, etiketa sozialaren gorabehera hutsal baten-gatik, nitaz errukitzeko kirola praktikatzeko behartuta ikusten duzue zeuen burua. 'Barbaroa', 'basatia' naiz zuen begietan, edo korromioak jandako erresumina, baina ez zarete konturatzeko barne-muinetaraino ustelduriko sagar bat baizik ez daukazuela esku artean. Gogora zaitez-te nola jausi zen Erromako Inperioa. Umoreak baizik ezin zintzaketen salba, edo agian kritikak, baina horretarako ere ez zarete gauza, serioegitzat hartzen duzue zeuen burua. Izan ere, horixe izan zen Leibnizbarrutiaren irakaspen interesgarrienetakoa; ez zela, ez bera eta ez bere lana ere, erabat seriotan hartu behar uneoro gaztigitzen zuen umore fin eta argigarri, argi-eragile

bat. Zuek ez duzue horrelakorik usaindu ere eginen, eta hamar mila kongresu eginik ere ez duzue usainduko. Autokritika faltak lerdotu egin zaituzte, eta iseka zakarra, trufa mutiria, ahulari zartako ematea, itsuari lapurtzea, babesgabea zafratzea munduan den jardun distiragarri eta ohorezkoentzat dauzkazue, doilorkeria eta umorea gauza bera bailiran...».

Hura gehiegi izan zen. Oximoron, Oximoron! -egiten zuten oihu, denek, ezin jasanez entzuten zutena-. Aski da! Aski da! Isilik! Oximoron, Oximoron! Txistuak, oihuak entzun ziren, ukabilak, ukabil itxi eta mehatxukorrak airean ikusten ziren, eta are, jende horrek, Guebokinder buru zutela, goizeko *buffet*-etik disimuluz ebatsitako fruitu-aleak hasi ziren erortzen nire inguruan. Aski da! Oximoron, Oximoron! Isil bedi! Oximoron! Oximoron, Oximoron!

«Oximoron, Oximoron!». Jainko oso urrutiko bat deitzen ari zen artaldea zirudien. Doike ni lintxatzea helburu zuen talde bat eratzen hasi zen, baina ordurako bileraren hasieran nire ondoan eseririko neofitoa saltaka iristen ari zen oholtzara, eta niri bultzada bat emanaz, mikrofonoaz ja-

betu zen: Hitzaldi hau nirea da! Lapur honek ostu egin dit! Hitzaldia nirea da! Nik idatzi dut! Nik ezin nuen ulertu inork, sortu zuen iskanbila ikusirik, hitzaldi haren aitatasuna erreibindikatu nahi izaterik. Inork ez, goitik beherako ero edo masokista erabateko batek izan ezik.

Nirea da! tematzen zen, aulkiak eta are pupitreak hartuta lintxatzera zihoazenei ezaxola. Orduan, bere bizitzako goren unean, ausaz, amorraziozko keinu batez kapirotea kendu zuen, arrabiaz; honelako keinu erabatekoetan erakusten du bere burua egiazko artistak, bere obrari guztizko lehentasuna ematen dionean, munduko beste gauza guztien gaineratik -bere hortzak barne- jartzen duenean, obrak eta obraren egile izatearen aldarrikatzeak beste ezer -makilaz eta labanaz armaturiko asesinatze-asmoko talde asaldatu eta jendetsu bat barne- baino garrantzi handiagoa duenean. Beraz, artista-puska horrek kapirotea kendu zuen, arrabiaz. Azpitik aurpegi beltz bat ageri zen.

Txomin!!!!

Bai, Txomin bermeotarra zen.

Probokatzailera beltza zela baieztatzeak infinituraino piztu zuen Aita Zaindarien kolera. Txominenak egin dik, pentsatu nuen, guztientzat derbirako sarrerak izanda ere pulpa odoltsu bat eginda utziko zutela kalkulatz, eta nire burua non babestu bilatz. Eta orduan inork espero ez zuena gertatu zen.

Ni neu gazteluko sotoko gela hartara sartu nintzen toki beretik beste bi gizon sartu ziren, metraileta bana eskuetan. Ugatza eta Prostatas, Txominen taldeko katarrak ziren. Rafaga batzuk bota zituzten, sabai aldera; nahikoa izan zen kapirotedun guztien tripak lurrarekin berdin zitezten. Nik neuk mahaitxo baten azpian bilatu nuen aterpe, eta nire abantailazko begiratoki hartatik ikusi nuen hirukoteak Guebokinder harrapatu zuela, eta urkamenditik hurbil egondako Txominek indarka jaitsarazi ziola kokotsaren bermaleku zeukan eskua, gero plazer handiz marinelen korapilo batzuk egiteko, bi eskuak bizkarraren kontra eman eta gero. Bitartean Prostatasek metraileta lokian jarri zion.

Bistan zen hirukoteak egoera menderatzen zuela. Ikusteko zegoen, baina, zeintzuk ziren bere asmoak, Guebokinder lotzeaz landa. Laster jakin genuen.

Ugatzak, metraileta bizkar gainean eskegi, uhal batez, eta txalo batzuk eman zituen, bertan

zeudenen arreata deitzeko. Denek segitu zuten beharri musu emateko planta hartan, berriz hartu zuten metraileta eskuan eta rafaga bat bota zuten, hitz hauek esanez: Ea ba, ez dugu egun guztia, komunikatua irakurri behar dut.

Marmok lurretik altxatzeko asmorik agertu ez zuten, Prostatasek ostiko batzuk banatu zituen, han eta hemen, zoriz, oholtzatik gertuen zeudenen artean. Hauen arteko ausartenek jaiki eta Ugatzari begira jarri, beste erremediorik ez zuten izan. Ugatzak, nahiko *quorum* zeukala irizirik, nonbait, komunikatua irakurtzeari ekin zion:

«Guk, Kanonetik Askatzeko Txatarreroak (K.A.T.) erakundeko ekintzaileok, erabaki dugu, gaurko egunean, Oximoron Santuaren Aita Zaindarien aurkako ekintza hau burutzea, zeinaren bidez une honetan bertan bahitu egiten baitugu aipatu Zaindarien buru egiten duen Guebokinder Artximandrita, eta 15 egun naturaleko epea ematen dugu, komunikatu hau irakurtzen den egunaren ondorengotik kontaktzen hasita, gure eskaerak bete daitezten. Eta, epe hau bukatuta koan ez bazaie gure exijentziei konplimendua

ematen, hil egingo dugu Guebokinder Artximandrita delakoa. Gure exigentziak honako hauek dira:

- a) Mendebaldeko literatura-araua ezartzen duten Aita Zaindariak, eta denen buru, Guebokinder Artximandritak jarrera aldatu dezaten, eta urratsak eman ditzaten mendebaldeko kanona beltz, ijito, elbarri, emakume eta gutxitu guztiei ireki dadin, edo, bestela, kanona desagertu dadin.
- b) Kolko Mitxoleta aska dezaten, eta
- c) Bereziki guretzat idazle enblematikoa den Isaias Schoppedhauer lehenbailehen kanoniza dezaten. Mortadela Schoppedhauer kanonizatu arte!».

Mortadela!, erantzun zuten Prostatasek eta Txominek.

Gora Kanonetik Askatzeko Txatarreroak!, Ugatzak.

Gora!, Prostatasek eta Txominek. Eta gero «Schoppedhauer, kanonizazioa, Schoppedhauer, kanonizazioa!», egin zuten oihu, Guebokinder

aretoko aterantz bultzatzen zutela. Rafaga pare bat bota zuten despedidarako.

Katarren hirukoteak atea ixteko lanik ez zuen hartu, eta horrenbestez irekirik gelditu zen desgertu zirenean. Haien atzetik joatea erabaki nuen. Arrazoi handiak nituen horretarako. Lehen, ezkutatzeko aukeratu nuen mahaitxoak zinez txikia zenez, hanketako mina nuela. Bigarrena, Aita Zaindarien, deskubritzen zutenean haietako bat utzi nuela kalabozoan, titiburugabeturik, ez nindutela goxo hartuko.

Eta hirugarrena, ezin nuela ulertu nola zen posible Kolko Mitxoletaren askapena eskatzea, gure informazioen arabera ez bazegoen preso, Amazonia urruneko oihan tropikal batean galdu-rik baizik, berak hala nahita, eta eliteko andereño talde batek zainduta.

Aita Zaindarien Gaztelutik atera eta gero, egoera, orain, honako hau zen: hiru eguneko jarraipen isil, zail eta neketsu baten ondoren, oiha-nean zehar, zeinean piztiekin borrokatu, landareen sustraiak jan, eta tribu ezezagunen mesfidantza gainditu behar izan bainuen, Guebokinderren bahitzaileen ezkutalekura iritsi nintzen. Berau, ordurako Artximandritaren bila ibiliko ziren Aita Zaindaria nahasteko, sekula inork pentsatuko ez zuen tokian zegoen: oiha-naren erdiko «Berlusgoñi» liburu-denda erlatiboki ezagun eta famatuan.

Katarrak abilak ziren, gero; inori ez zitzaion burutik pasatuko Guebokinder han izan zitekeenik.

Berlusgoñi dendariak, bahitzaileak eta bahitua ikusi zituenean, ezker-eskuin begiratu azkarrara eman eta pertsiana jaitsi zuen, denbora galdu gabe. Guebokinder Nobedadeen saileko liburu-meta erraldioen artean ezkutatu zuten. Ni denetaz jabetu nintzen liburu-dendako teilatuko

leihararen zirrikitutik barrurantz labaindu nintze-lako, denen oharkabea, sugandilen moduan, Australian basomutil ibili nintzenean bertako aborigen tribu batekoei ikasitako teknika berezi bati esker, zeinari zor baitzioten Australia osoan ezagun egin zen izena: *sugandila-gizonak*.

Behin barruan, «Klasikoak» izeneko sailean gorde nintzen; izan ere, sail hori ezin hobea zen nire asmoetarako: liburu-dendako zokorik ilunena betetzen zuen; zegoen hautsa piloari erreparaturik, handik inor gutxi ibiltzen zela zirudien; eta gainera, bertatik den-dena entzuten nuen.

Uste duzu liburu-denda ixtea beharrezkoa dela? galdetu zioten Berlusgoñiri, ikusi zutenean honek pertsiana jaitsi zuela. Lasai, motellak, barretu zituen denda jabeak; azken bolada honetan negozioa baxu antzean dabil; Vietcong-ek *Marca* baino ez dute erosten, eta ziminoek telebista nahiago dute, badakizue. Noizean behin saltzen diet errezeta-libururen bat pigmeoei. Gauza gutxi. Egia esan, kanona irekitzeko ahalegina... zer nahi duzue esatea, nik...

Ugatzak Berlusgoñiren zalantzak errotik moztu nahi izan zituen: ezer onik iritsi al zaizu?

Berlusgoñik hazka egiten zuen buruan: ezer gutxi... tira, zoro batek idatzita dirudien saiakera bat leitzen ari naiz, traidorea eta heroia aldi berean den baten beste historia bat, eta gero, aitonaren trikitixa galduaren bila abiatzen den hirukote batena...

Txomin bermeotarrari malko bat isuri zitzaion ustekabean: gu bezala... Gogoratzen, lagunak? Gu ere aitonaren trikitixa lapurtuaren bila hasi ginen. Gure borroka...

Indarberriturik nonbait, orain Berlusgoñi liburu-saltzailea izan zen Txomin konfortatzeaz arduratu zena: zer inporta du zergatik, non, norekin, nortzuk, nondik, nora, norantz, norentzat, norako, noiz eta nola hasi ginen... Inporta duena da gaurkoa. Borrokak baizik ez gaitu gizon aske egiten. Nola daude gauzak kanpoan?

Hainbestean -erantzun zuen Ugatzak-. Oraingo ideia da prozesuari aurre egiten utzi nahi ez dizkioten gizarte-taldeak dinamika konstituyente batean sartzea, zeinean, prozesuaren bultzatzaile aktiboak izango ez badira ere, ez baitira erabat prozesuaren aurkakoak izango, indiferenteak izango dira prozesuarekiko, edo ez,

guk gure borrokaren indarrak prozesuari ematen ahal diogun edukia eta bultzadaren arabera, ahaztuz, bidenabar, orain bost urte prozesuaren guztiz aurkakoak zirela, baina ahaztu gabe agian oraintxe bertan prozesuaren alde jartzen ari direla, edo beharbada ez erabat prozesuaren alde baina bai dinamika prekonstituyente, edo rekonstituyente batean sartzeko moduan. Ez al da hala, lagunak? galdetu zien Prostatasi eta Txomini. Ein? erantzun zuten hauek.

Nobedadeen liburu-meta azpitik emakume bat atera zen, lehen begi kolpean pisu-jaurtitzaille edo agian mailu-jaurtitzaille errumaniarraren itxurakoa iruditu zitzaidana.

Denek agurtu zuten. Etorri berriak eskumuturrak igurtzi zituen, bizkor; laxagoa lotzea bahuen, beltz demonio horrek! Txomini herraz begiratu zion. Hau desenkusatu zen: barkatu, Jefe.

Baina Jefe deitutakoak -atleta errumaniarraren itxura edukiagatik, azentu argentinar nabarmenaz mintzo zena- ez bide zuen kontu-berdintzea bukatu. Orain Ugatzari zuzendu zitzaion:

Eta hi, Ugatza, tentuz erabil ezak burdina, gazte-luko sotoko sabaia zuloz josia utzi duk-eta!

Ugatzak ere barkamena eskatu zuen: sentitzen dut, Jefe. Hitz egin zioten moduarengatik ikusten zen Jefe larderia handiko emakumea zela.

Bestalde, eta harridurak gainez egiten bazidan ere, poliki-poliki konprenitzen hasi nintzen Jefe deitzen zuten hura eta Guebokinder Artximandrita pertsona berbera zirela. Arraioa! Beraz, Aita Zaindarien zuzendaria emakumezkoa zen! Beraz, Aita Zaindarien burua bahitu zuten bahitzaileen burua eta Aita Zaindarien burua pertsona bera zen! Hain logikoa izanda, nolaz ez zitzaidan lehenago burutik pasa?

Artximandrita, Jefe, edo, laburrago esateko, argentinarren erara mintzo zen emakume hura eseri egin zen. Janzten zituen likrazko prakek bere izterretako gihar boteretsuen gorabeherak nabarmenagotzen zituzten. Bere mutilei kontueske hasi zitzairen, hitz hauekin: Eta orain esaidazue zer den Kolko Mitxoleta bilatzen ari den morroi horren historia.

Nitaz ari ziren, arraioa!

Ugatzak esplikatu zion ezer ez nekien xelebrea nintzela, arlotea, hankabiko afrus eta mozoloa, funtsean fraideek, eurogero ibili ohi nintzela profitaturik, pergutadan sarturiko zozoa, mokoroa frekuenteki bildu zale, makarra, golos, putaner eta ardankoia, adimenez urri eta bizioz luze, ahul, mengel, mendrea eta, finean, ezertarako ere arriskurik sortzen ez zuen zomorroidea.

Ez nuen uste Ugatzak nitaz hain estimaziozko iritzia zuenik.

Emakumea irriz ari zen. Ez duk jokaldi makala, zioen, ni askatzeko Kolko Mitxoletaren askapena eskatu, ni aske egonik eta Mitxoleta preso dudala, kontrolpean.

Hau guztia argentineraz blaituriko azentuaz esaten zuen; baina ez argentineraz blaituriko euskaraz, baizik eta argentineraz blaituriko argentineraz, gauza jakina baita Argentinako euskaldunak, euskaraz ari direlarik, eibarreraz, goizueteraz edo markineraz egiten dutela, eta Argentinaratutako eibartar, goizuetar eta markinarrak, erdaraz ari direlarik, ordea, argentineraz. (Hau guztia esaten dut argi eta klaru uler bedi zein den egileak, eta obrak honek bereziki,

errealitatearekin, hizkuntz errealitatearekin, bereziki, hartzen duen ikuspuntua eta, bereziki, proposatzen duen harremana, bereziki).

Baina Jefeá ez bide zen hain konforme Ugatzak nitaz esandakoarekin. Etzekiapá, etzekiapá, errepikatzen zuen, agian zomorroide horrek arazoak sor ditzake. Zertarako nahiko luke, nahi dezake, gaur den egunean, kanon bat bere senean eta onean legokeen norbaitek? Morroi horrek atze-asmorik duke, naski.

Emakumeak ezker ukabila itxi eskuin ahurra-
ren gainean kolpea eman zuen. Zer gerta ere,
harrapa ezazue birigarro hori.

Hurrengo goizean denak lekutu ziren, Berlusgoñi izan ezik. Hiru katarrak nire bila atera ziren (ni bertan nengoela ez zekiten, gizajoak). Emakumeak «prozesua zertan den ikustera eta, bide batez, derbirako sarreren bila» zihoalako esaldi generikoa esanda alde egin zuen.

Berlusgoñik denda ireki eta, ikusi ahal izan nuenez, denda aurreko banbuzko estalpeko hamakan etzanik, haizea egiten zion bere buruari *pay-pay* batez. Luze gabe lo seko geratu zen. Zartagina giderretik eusteko aukera iritsi zitzaidala iritzi nion.

Liburu-dendako apalategian begiratu nuen. Duda egin nuen Prousten *Denbora galduaren bila* eta Joyceren *Ulises-en* artean; baina azkenean, XIX.eko nobelaren nagusitasun ustean tin-koagotu nintzen: Balzacen *Giza Komedia*-ko 85 tituluak bost liburuki potoloetan biltzen zituen edizioa hartu eta poltsa batean sartu nituen.

Zarata alimaleaz jausi zen Berlusgoñiren kaskezurraren gainean ozta-ozta jaso ahal izan

nuen poltsa. Pasatu nintzen agian, kolpearen ondorioz ordu betean ez zelako bere onera itzuli. Begiak ireki orduko konturatu zen bere egoera erreala zein zen: eskuak eta hankak loturik, eta ahoa fardelak biltzeko zintarekin estalirik.

Oihanaren erdian, oihu eginda ere inork ez ziola entzungo konturatu nintzenean, ahoko zinta kentzea deliberatu nuen.

Berlusgoñik oso tipo gizabidetsua zirudien. Ahoa ireki zuenean galdetu zuen lehen gauza zera izan zen, aizu, barkatu, erakutsiko al didazu poltsa barruan zer dagoen? Erakutsi egin nion. Mmmmmm, esan zuen orduan, *connaisseur* baten tonu aseaz, eta harrotasun puntu batez, Mmmmmm... Balzac. Baneteguanba. Begira, ez dut ezer Balzacen kontra, baina, hurrengoan, horrelakorik behar izanez gero, erabili beste hori.

«Beste hori» Stendhalen *Parmako Kartusia*-ri buruzko saiakera bat zen, sei mila orrikoa. Nire doktoretza tesia da, argitu zuen. Bene-benetan gehien-gehien nahiago nukeena Kafkaren *Prozesua* litzateke, baina horrekin ez nauzu K.O. hain erraz utziko.

Berlusgoñiren molde onak harritzekoak ziren, benetan. Zegoen egoeran egonda ere, jasotako zartakoa jasota ere, saltzaile aditu eta amultsua- ren moduek gidatzen zuten bere jokabidea. Egia bada betiko liburu-saltzaileak desagertzen ari di- rela, behintzat ofiziorako zaletasuna ez da galdu, alajaina! Zer nahi duzu? galdetu zidan. Bon, hori baino lehen: nor zaitugu? Gero hortzez estutu zuen ezpainaren behe alde, eta gogoetazko beste «mmmmm» bat bota zuen, azkenik garai- penezko «jakina!» bat jaulki zuen arte. Eskuak libre izan balitu eskukada bat emango zukeen kopetan (edo agian kokotsa bermatuko zukeen esku-ahurrean). Zu zara kanon baten bila dabi- len erg... eeee... elementu hura, ezta? Baina, jainkoarren! Zertarako nahi izan dezake inork kanon bat XXI. mendean?

Berehala esan nion neu nintzela galderak egiten nituena; eta hala zela ikus zezan, segi- tuan Kolko Mitxoleta non zegoen ba ote zekien galdetu nion.

Erantzun baino lehen, katarren terrorismoa kondenatzen duzula ziur-ziur jakin behar dut, esan zuen Berlusgoñik. Jakin behar duzunez, nik

ez dut hitz egiten terrorismoa kondenatzen ez dutenekin. Beraz, kondena ezazu edo isolatuko zaitut.

Terrorismoa neuk kondenatu!!?? asaldatu nintzen. Katarra zeu zara, ordea!!!

Ez, ni ez naiz katarra, esan zuen.

Halakorik! Ukatu behar al zuen, bada, ordu gutxi batzuk lehenago nik ikusia? Ukatu behar zuen katarren eta pisu-jaurtitzailen artean izandako bileran parte hartu zuela? Aterpea eta atsedenekua eman ziela, haiekin kolaboratu zuela?

Ez, ni ez naiz katarra, esan zuen, une hone-tan, erabaki taktiko diskutigarri baino erreal baten ondorioz logistikoki laguntzen ari banatzaie ere.

Eraman nazazu Mitxoletarengana, agindu nion, lehor, bortitz, zakar, mutiri, larderiatsu, gogor, zantar, latz, petral.

Zer inporta du Mitxoleta non dagoen. Zuk kanon bat nahi duzu, ezta? Mitxoletak ezin dizu kanonik eman. Nik bai, ordea.

Denbora irabazteko taktika zaharra. Zaharre-gia. Hainbat kontu argitu behar nuen.

Ea ba, Berlusconi, erantzun ezazu hau: zertarako bahitu dute katarrek Jefeá, edo Guebokin-der Artximandrita, dena antzerki hutsa bazen, adiskideak direnez?

Artximandrita eta katarrek adiskideak? Bai zera! Mutur-muturreko etsaiak dira!

Baina orduan... Zergatik zeuden hemen elkarrekin? Zergatik hitz egiten zuten adiskideek hitz egiten duten moduan?

Berlusconi azeri-irriñoa egin zuen. Artximandritak, katarrek garaitzeko -esan zuen-, engainatu nahi ditu. Sinetsarazi die bera ere Schoppedhauer kanonizatzearen alde dagoela, baina, lortu ahal izateko, Aita Zaindarien erresistentzia gainditu behar dela. Elkarri laguntzeko ituna eskaini die. Katarrek ez dira fio, baina, Artximandritarekin ituna eginda eta Mitxoleta neutralizatuta, egoera kontrolpean daukatela uste dute.

Eta, benetan, hala da?

Ezta pentsatu ere! Artximandritak denbora irabazi nahi du katarrek xehe-xehe eginda uzteko baldintzak lortzen diren bitartean. Gazteluan ez dute amore emango, eta katarrek eman

duten epea bukatzen denean, Artximandritak konbentzituko ditu aska dezaten; trukean berak gaztelukoak konbentzituko ditu Schoppedhauerren liburu batzuk eros ditzaten; gero liburuak zoko ilun batean gordeko dituzte, eta horrela hurrengo krisira arte.

Eta katarrek, asperturik, Artximandrita akabatzea erabakiko balute?

Ez zaie komeni. Ez lukete ezer irabaziko. Aitzitik, galdu egingo lukete laguntzaile garrantzizko bat, eta Aita Zaindarien larrutu, akabatu, suntsitu egingo lituzkete. Gainera, Artximandrita hiltzen badute Schoppedhauerren kanonizazioarenak egin du.

Eta zergatik tematzen dira Schoppedhauer kanonizatzen? Ez al daude, ba, kanonen aurka? Ez al dute kanonetik askatzeko jarduten? Eta hain idazle ona al da Schoppedhauer hori?

Berlusgoñik begiak ñarroto zituen. Ona edo txarra, hori katarrei berdin zaie. Ez zaie literaturara interesatzen. Zer nahi duzu esatea? Nire ustez, beste bat askoren artean baizik ez da. Baina hori gutxienekoa da, hain segur. Idazle ka-

nonikoa edukitzea bere kausari nolabaiteko nazioarteko onespén sinboliko bezalakoa litzateke.

Eta zu noren alde zaude, Berlusgoñi?

Galderak pentsakor utzi zuen. Galdera ona da, aitortu zuen azkenik. Batzuetan ahaztu egiten zait, noren alde ari naizen ez dakidala iruditzen zait... Batzuetan batzuen alde, beste batzuetan besteen alde... Liburu-saltzaile naizenez, liburuak erosten dituztenen alde. Artximandrita oso bezero ona da, liburu mordoa kolokatzen dit Gazteluan. Baina, katarrek beren helburuak lortuko balituzte, aberastu egingo nintzateke, agian, Schoppedhauerren liburuen eskusibarekin. Eeee... Esan dezagun nire alde egiten dudala lan. Dena den, aitortu behar dut nazkatzen ari naizela liburuen kontuarekin; telebistak, prentsak, mundu mediatikoak tiratzen nau. Gutxi harritu, denda saldu eta sarean haur-pornografia saltzen hasten banaiz.

Eta Mitxoleta? Zergatik duzue preso Mitxoleta? Zein da Mitxoletaren eginkizuna honetan guztian?

Hori galdera! Benetan ez dakizu zein den Mitxoletaren eginkizuna? Azkarrago zinela uste

nuen. Benetan ez dakizu zer dagoen kanonaren aferaren atzean?

Esaidazu zuk.

Konforme, baina horretarako eskuak askatu behar dizkidazu.

Ergela nintzela uste al zuen? Ulertu zidan ezer esan beharrik gabe.

Benetan ari naiz -esan zuen-. Eskuak askatu behar dizkidazu biluztu behar naizelako.

Zomorroide hura marikoia zela pentsatzera iritsi nintzen; izan ere, errukiak, begiruneak edo gaizki ulerturiko kultura-zentzu batek, edo hirurek, egia gordina estaltzen duten arren, denok dakigu, jakintza zahar batek erakutsita, liburu artean ibiltzen diren gehienak, denak ez esateagatik, marikoiak direla. Bestela, zergatik ibiltzen dira liburuen artean? Marikoiak ez balira, jende normalak -hots, heterosexualak- egiten dituen gauza normalak egingo lituzkete: dirua irabazi, hondartzara joan, mozkortu... Baina, orduko hartan, laster ikusi nuenez, Berlusgoñiren kezkek ez zuen zerikusi handirik aukera sexualekin.

Berlusgoñik, aitortu zidanez, gorputz guztiguztia, burutik orporaino, tatuajez beteta zuen. Hasieran ez nion sinetsi, nik neuk alkandoraren mahuka igo eta besoa ikusi nion arte.

Baina, gainera, harrigarriena ez zen hori. Harrigarriena zen zer tatuaje-klase zeukan ikustea. Galdera moduko zerbait egin nionean, begiz, zera esan zuen: bo, bo, bo, hasieran tatuaje nor-

malak erabiltzen nituen; tigre baten burua zakil puntan, eta horrelakoak. Baina, adin batez gero... tigrearen kendu eta bildots baten buruarekin konformatu nintzen. Hala ere, besteak ez, besteak liburua, euskarri bezala, desagertzeko bidean zegoela konprenitu nuenean hasi nintzen egiten.

Hitz hauek entzunda, eta besoa ikusi eta gero, eskuak askatu nizekion, baina oinak lotuta utzi nuen, zer gerta ere, eta Balzacen obrak gordetzen zituen poltsa ikaragarria eskutik hurbil atxiki nuen.

Eskuak libre eduki zituelarik, Berlusgoñik al-kandora kendu zuen. Ikaragarria zen. Besoak, bularra, bizkarra... azal guztia, zentimetro koa-dro bat ere libre utzi gabe, belztua zuen. Letrek, esaldiek, lerroaldeek, liburuek belztua. Larrua ehun milioika xinaurri korrituko balitzaizkio bezala zen, eta xinaurriak letrak ziren.

Londresen jaioa naiz, esplikatu zuen Berlusgoñik, arbasoak errusiarrak zituen Parisko aristokrata judutar baten seme nagusia; txikitatik eduki dut letra inprimaturako joera oso errotua; familiaratik datorkit. Aitak erakutsi zidan irakur-

tzen; bost urte nituenerako Ovidio irakurria nuen, latinezko jatorrizkoan; etxeko hizkuntzak errusiera eta ingelesa baziren ere, Firenzetik propio etorritako inude batek ematen zizkidan italierazko eskolak, eta ikastetxe frantses batean ikasten nuen; buruz oso betea ez zen osaba batek irakurtzen zizkidan Bibliaren pasarterik adierazgarrienak polonieraz; sei urte nituenean buruz nekizkien Dostoievskiren nobela gehienak, errusierazko bertsioan edo galegozko itzulpenean; zortzi urte nituenean nire familiak Berlinera joan behar izan zuen, aitaren lan-arazoak zirela medio, eta han, ezinbestean, alemanarekin familiarizatu nintzen; baina nire egiazko pasioa serbokroaziera zen, nire lehen amoranteak, Belgradeko opera-kantari batek ohean hitz egiten zidan hizkuntza. Hori Tuaregekin bizitzera joan baino lehen izan zen; islandieraz eta moldavoz defenditzen naiz, Reyjavikeko azentu markatuegia dudala leporatzen didaten arren. Tira, inor ez da perfektua. Hamabost hizkuntza, hil zein bizi, menderatzen ditut, hogeita hamarren bat hala edo nola lardaskatzen, arabiera irakurtzen badaikit, baina oso ahoskera txarra daukat. Berrehun

liburutik gora idatzi ditut, zazpi hizkuntzatan, eta beste hainbeste itzuli. Horietako bat, nik idatzia zena, ingelesez idatzi eta frantsesera itzuli nuen; gero frantsesezko bertsioa hartu eta alemanera; halaxe egin nuen, hizkuntzatik hizkuntzara, zortzi aldiz, azkeneko bertsioa, jada zer hizkuntzatan zegoen gogoratzen ez dudana berriz hasierako ingelesez jarri nuen arte. Inork ez zuen emaitza hasierako liburuarekin identifikatu; hortaz, beste jatorrizko liburua bailitzan pasa nuen merkatuan, baina geroztik itzulpenak egiteari utzi nion.

Hala ere, entzuten ari nintzena harrigarria izanagatik, munstroaren gorputz tatuatuaren ikusgarria izan zen zorabiotik gertu utzi nindue-na. Inpresionatuta, ezta? harrotu zen Berlusconi. Ikusten biribilean zabaltzen den hau? -esaten zidan, titiburuaren inguruan ernatzen eta gero eta handiagoa egiten zen biribil handi bat seinalatuz- *Kixotea* da. Eta beste hau? Orain zilborra-ren inguruan zirimolatzen zen beste milioika xi-naurri sutsuen arrastoa seinalatzen zidan. Prousten *Denbora galduaren bila* da. Baina alperrik esango dizut azal gainean tatuatu ditudan libu-

ruen izen guztiak. Aurkibidea ipurdiko txoko batean daukat. Kanona, zenion? Hau da nire kanona!, esan zuen, harro.

Hori al zen kanona? Hankabiko bat, gizabana-no bat goitik behera marraztua? Egia esan, nik beste zer edo zer espero nuen. Une batean pentsatu nuen zer harrera-klase egingo zidaten Arantzazun gizaki estrefalarario harekin iritsi eta «hemen daukazue kanona» esaten banuen. Gainera, ez zuen berez eta onez etorri nahiko, eta Arantzazuraino garraiatzea ere... laurogei-laurogeita bost kilo izango zen kabroia. Ideia ez zitzaidan oso laket. Bestea ohartu zen nire zaputzaz.

Pentsamendua leitu izan balit bezala, lupa bat atera zuen praketako sakelatik. Nik irakurtzea nahi zuen. Besoa altxatu eta galtzarbeko izkina bat seinalatu zidan. Irakurtzen hasi nintzen:

«Neska urrezkoak pedaletik egin zuen dzanga uretara, eta gizon oliba-koloreko burusoilak besoak astindu zituen hurbiltzeko, ur-azalera itzuliko zeneko unea ikusteko, uraz eta eguzkiaz zipriztindutako haragi hezearen dirdira atzema-teko. Eguerdiaren argiak min egiten zuen. Gizon oliba-koloreko burusoila zutik jarri zen, urak ez

zuela erabat estaltzen baieztatu zuen, eta hon-
dar gainean behar zuen familia zehazki non zen
ikusten saiatu zen. Emakume kubiko batek hau-
rra garbitzen zuen, kemenez. Gizonak, aurpegia
neska urrezkoa gelditu zen tokira itzuliz, bere
begiradaren bidezko ehiza koldarrarekin jarraitu
zuen; neskak bizkarrez egiten zuen igeri, itsaso
bareak doi mugitzen zuen pedaletik beste alde-
rantz.

Orduan ikusi zuen ur gainean flotatzen zuen
gorputza, pedalaren aurkako talkan. Ordura arte
ikusi ez zuen neska urrezkoaren laguna, noski.
Hala ere, horrek ez zion galaraziko begiradaren
jolasarekin jarraitzea. Inork ezin zion neska begi-
ratzea debekatu, inork ez zion galaraziko erreti-
na gatzak eta argitasun dirdiratsuak biziberritu-
riko haragi zehatz eta gogor horretaz mukuru
betetzea. Aldi berean begiratu zituen neska eta
flotatzen segitzen zuen gorputz geldia; neskak
lasterka egiten zuen ur gainean, arrasto apeta-
tsu eta jarraigabeak utziz, gorputza pedalari
atxikia zegoen, setati. Poliki-poliki konturatu zen
gorputz-jarrera hura tematiegi zela, baita arnasa
hartzeko legeen aurkakoa ere. Baina bada arna-

sarik hartu gabe luze irauten duenik, esan zion bere buruari, eta ez dut ergelarena egingo, ez naiz laguntza eske hasiko; bestela, gero, makarra lasai-lasai aterako da eta neskak gogotik egingo du irri nire kontura. Neska, pedalera iritsi baino metro bat lehenago gelditu egin zen, eta uraren joan-etorri geldoak ematen ziona beste mugimendurik ez zuen gorputz tematiari erreparatu zion, susmoz hasieran, harrituta gero. Neska laguntzaile baten bila hasi zen, begiradaz. Handik hogeit bat metrora eszenari so zegoen gizon oliba-koloreko burusoilean tinkatu ziren bere begiak. Bakarrik ez egoteak susperturik, gorputzerantz hurbildu zen. Esku batez ukitu zuen, eta ohi ez bezalako igerilaria metro bat urrundu zen pedaletik, hildakoek men egiten duten bezala men eginez. Begiluzearengana itzuli zen neska, zerbait oihukatu zuen hizkuntza arrotz batean. Gizonak ez zuen gehiago itxoin. Bizkor eta txukun igeri egiten saiatu zen, ahalik eta lasterren eta dotore iristeko, halako neska ederrak ez zuen-eta gutxiago merezi. Neskaren parera iritsi zenean, gizon oliba-kolore burusoi-

lak gorpua bultzatu zuen alde batera, eta neska-ri hitza zuzendu: dantzan ingo al deu?».

Et, et, et, moztu zuen Berlusgoñik. Gaizki ari zara, ohartarazi zidan pazientzia galtzen ari zela erakusten zuen doinuaz. Hor ez, hemen baizik! GaltzARBeko beste puntu bat seinalatu zidan, aurrekoaren ondo-ondoan zegoena. Berriz hasi nintzen irakurtzen, ozenki orain:

«Zer da literatur kanona? Edonork ulertzeko moduan erantzungo dut: beren kalitatea dela kausa, ikastea eta ikertzea merezi duten liburu-zen zerrenda. Definizio honek hainbat gauza ematen du ulertutzat, eta hainbat ondorio dauzka. Ulertutzat ematen diren gauzen artean, lehen-ena da liburu guztiek ez dutela oroimen kolektiboan gordetzea merezi, hau da, batzuk kalitatezkoak direla, besteak baino hobekak direla, eta haiek direla denen oroimenean gordetzea merezi dutenak...».

Tira, tira, moztu zidan Berlusgoñik. Gaur ez nago saiakera irakurtzeko umorez, are gutxiago entzuteko. Begira, kanon bat asmatzeko honako osagai hauek behar dituzu: lehenbizi, hizkuntza bat; bigarrenik, hizkuntza horretan idazten

duten idazle batzuk; hirugarrenik, erakundeak: udalak, epaitegiak, gobernuak, ministerioak, polizia, armadak, banderak, mugak, monetak... badakizu; a!, eta denetan garrantzizkoena, unibertsitatea. Jakina, esan gabe doa erakunde eta gauza hauek guztiak mantentzeko nahikoa hitun, kristau, zergapeko ere eduki behar dituzula. Osagai horiek guztiak dituzunean, kokteleran sartu, astinaldi bat eman, eta koktel horretatik atera diren liburu batzuk gainerakoetatik bereizi: hor daukazu kanon literario bat. Hau biziki inportantea da, baina: liburuak. Libururik gabe ez dago zer eginik, ulertzen? Eta hori guztia zertarako?

Berlusgoñik Danteren *Jainkotiar Komedia* ta-tuatua zeukan tokian -eskuineko mitxelina, zehatz esateko- hazka egin zuen, pentsakor, aurrrera egin baino lehen.

Hori guztia zertarako? -errepikatu zuen, erantzuna jakingo ez bailuen- Ba... handik hainbat mendetara esateko kanonak ez duela ezertarako balio, Teoria barreiatu eta mila zatitan hautsi dela, aztergaia bera zein den ez jakiteraino (eta hortaz, are gutxiago kritika nolakoa behar

den), eta hondar-hondarrean esateko Literatura-ri buruzko ideia bera dela hautsi dena, zeinak inork ez baitaki oso ongi zer esan nahi duen baina oso sakon ematen baitu. Hortik aurrera... Hortik aurrera...

Berlusgoñik pilotatxo bat osatzen ziharduen ezker belarrian hatza sartuta.

Hortik aurrera, hor konpon, bakoitzak ahal duena egin dezala; nik, ikusi duzunez, nire liburu maitatuenak, nire kanona, azal gainean grabatu dut, Amsterdamgo morroi batek egiten dizkit, helbidea emango dizut, nahi baduzu... Ez bada zuk nahiago duzula tigre bat tatuatu zakil puntan... Baina ez, zure itxura orokorra ikusita bildotsa komeniago zaizula dirudi, are katu-txoa... Enfin, zeuk erabaki.

Berlusgoñik uste zuen engainatuko ninduela, antza. Baina ez horixe; kanon bat egiteko hainbeste gauza behar baziren, Kolko Mitxoletak jakin behar zuen non zeuden, nondik atera, nola egin Berlusgoñik aipatutako horiek guztiak. Agian moneta berri bat akuñaturik zuen, edo ba-zeuzkan ministerio bat eratzeko planak. Bai, horixe liteke Berlusgoñiren azpi-asmoa, ni nahas-

tea Mitxoletaren eta bere altxorren bila abia ez nadin... Baina Berlusgoñik jai zuen nirekin.

Eraman nazazu Mitxoletarengana, agindu nion.

Berlusgoñik ezetz eta ezetz, eta beste kankateko bat emango niolako mehatxua egin nuen.

Tematia zara, gero, harritu zen Berlusgoñi, partez izaturik kankatekoaren mehatxuaz, eta partez nire setak inpresionaturik. Begira, nik ezin zaitut Mitxoletarengana eramane, baina, nahi baduzu, liburu bat idazten laguntzen ahal dizut. Horrela, kanon osoa ez, baina zure kanonaren lehen liburua osatuko duzu.

Proposamena ez zen oso erakargarria, baina hankabikoak aukera bat merezi zuela erabaki nuen, zerbait erabakitzeagatik.

Izan ere, aitortu zuen Berlusgoñik, zure kano-na osatzeko idatzi behar duzun liburu eginda dago, ia-ia, baina ez dut bukatzerik lortu; eszena batzuk falta ditut, azkena batez ere. Zuk bukatzen laguntzen badidazu, liburua zurea da. Bestela, inorentzat ez da izango, heroi bat eta traidore bat eduki behar dituen baina sekula bukatuko ez dudan argumentu hau irudikatu baitut:

Edozein herrialdetako hiritan eta edozein gairaitan gertatzen da. Gauzen izenak, zaletasunen deskribapenak, jakien prestaerak, izen propioak... denak konbentzio hutsak dira; edozein izan zitezkeen.

Alegia, kontakizunean «erlojua» hitza agertuko da, edo «pioleta», baina berdin agertzen ahal zen «klepsidra» edo «makila»; agertuko da «auto» hitza, agian, edo «igogailu», baina berdin agertzen ahal zen «koadriga», edo «eskailera»,

edo «HKZ propultsorea», edo «zoru hegalaria»; agertuko da edo ez, «Pello» izena, edo «Arrieta» deitura, baina berdin agertzen ahal zen, edo ez, «Mortimer» edo «Absalon»; protagonistek pata-tortilla jaten ahal dute, edo arraina gordinik, edo pilula energetikoen nahasketa. Azken hau askozaz ere hobea kolesterol-maila txikiagotzeko, noski (hemen esan behar dut, maleziatsuen ahotsak isilarazteko, «kolesterol-maila txikiagotzeko» esaten den tokian berdin-berdin joaten ahal zela, esaterako, «pandemia zabal ez dadin»). Are, liburuko hizkuntza bera ere kasualitate hutsa da, munduan dauden milaka hizkuntzatako edozein izan litekeelako; hau hainbati iraingarria iruditzen bazaio ere, kasualitate hutsa da, berriz diot (bestetik, zer jende-klasek bizi dezake nire aukera hau berei eginiko irain moduan? Zer izen dagokie halakoei?)

Liburuko pertsonaia nagusia Bazofias da, Roger Bazofias, eta hiri honetako -erosoa izate aldera, eta goian definitzen saiatu naizen konbentzioaren babesera etorriz, aurrerakoan Buenos Aires deituko duguna- edozein espioi-taldeko, publiko zein pribatu, espioia da. Adibidez,

Agentzia Dermoestetikoaren espioia, morroia. Agentzia Dermoestetikoa Barne ministro Harrisonen agindupean dago.

Bazofiasek nagusi bat dauka, jakina: Jules Tribuno. Garai nahasiak dira hauek, eta gertaera lazgarriak gertatzen dira. Jendeak, beti bezala, elkar hiltzen du; arrazoiak ere ez dira falta, eta euren osagaiak betikoak dira: dirugosea, boterea, sexua, bekaitz izatea, handinahia, grina politikoa...

Biolentzia politikoaren aroa bizi da; aste honetan bertan jakin ahal izan da zalditeria inperiala eraso nahi zuen hirukotearen istripua (sare telematikoaren bidez halaxe barreiatu da galaxia guztietan, eraso egin baino pixka bat lehenago beren koadriga amildegitik jausi eta hirurak hil zirela) ez dela benetan istripua izan; aitzitik, poliziak bazekien komandoaren berri; segitu zituen, iritzi publikoaren ezkutuan atxilotu, torturatu, mintzarazi eta hil egin zituen; eta, behin hil eta gero, koadrigan sartu eta amildegitik behera bultzatu, harritzaren aurka hartutako zartakoek sorraraziko ubelduak, matxurak, koskak eta mailatuak poliziaren lana ezkuta zezaten.

Halaber, terroristek mendekua hartu dute, eta banku bateko zuzendari bat, bi jeneral, artzapezpiku bat, ministro bat, hiru enpresari, bost iturgin, mandatari bat, bi txofer eta zerbitzari bat garbitu dituzte: hamazazpi lagun, denetara.

Zalditeria inperialaren nagusia Harry Harrison Barne ministroa da. Terroristek *Borges* deitzen duten jefe bat daukate. Borges munduko espioi agentzia guztietako agente guztien helburua da; horrek bere baitan hartzen ditu, noski, Roger Bazofias eta bere agentzia.

Hau da haria, hari orokorra, konforme? galde-tu zidan Berlusconi. Ildo hau garrantzizkoa da, eta buruan ongi atxikitzea beharrezkoa da gainerakoa ulertu ahal izateko.

Hemen, ordea, lehen arazoarekin egin dut topo: pertsonaia hauek, hau da, Harrison eta Borges, antitetikoak dira. Eta hala, Borges heroia baldin bada behartsu, lurrean kondenatu eta pobreen begietara, Ministroarentzat erabateko etsaia da; eta alderantziz, Ministroa ordena bermatzen duen heroia baldin bada, Borgesentzat akabatu beharreko deabrua da. Alabaina nik, obra honen idazlea naizen aldetik, heroi bakarra

behar dut, eta heroiaren aukerak nire jarrera markatuko du aldez aurretik; hau da, beste hitzetan esanda, jarrera, posizio bat hartu behar dut liburuari buruz, aldez aurretik. Bon, honek hainbat gauetako loa galarazi zidan arren, azkenean posizioa hartu nuen, Ministroaren alde. Ministroa da heroia, bere herriak maitatua eta Borges ankerraren aurkako borrokan bekainetaraino, buru-belarri, erabat murgilduta, konprometitu. Alabaina, saiatuagatik, Ministroak ez du sekula Borges harrapatzea lortzen. Azkenean -ez dugu ahaztu behar hasieratik esan dugula traidore bat ere izan behar dela-, ondorio samin honetara iristen da: traidore bat dago Borges harrapatu nahi duten espioien artean.

Bon, esan bezala, antitesi hau liburuaren parte garrantzizkoenetakoa da, baina ez da bakarra. Bestalde, galdetuko diozu zure buruari zergatik ezarri dugun hasierako konbentzioa, hots, gauza guztiak nahi erara izendatzekoa. Truku honekin zure liburuari kanonean sartzeko eskatuko zaion lehen baldintza bete nahi dugu. Zein den baldintza hori? Unibertsaltasuna. Hau da, objektuen, herrialdeen, izenen eta gainerako

elementuen erabilera itxuraz anakroniko horrek frogatzen du kontatzen ari denak edozein garaitan eta edozein tokitan balio duela, hau da, unibertsala dela. Jarri diren izenak ere ez dira arbitrarioak, baina horiek jartzeko arrazoiak maila desberdinetakoak dira, eta horregatik, testuan sortu dezaketen oihartzunen eragina ere desberdina da. Beste ohar bat: lehen pertsona gramatikala erabiliko dugu idazteko.

Nik baietz esan nion guztiari, eta adi-adi jarri nintzen, Berlusgoñik segitzen baitzuen bere liburu bukatugabe eta korapilatsua nolakoa zen adierazten.

Baina bestelako bortxa-adierazpenak ere bada dira, jakina -zioen-. Beste hilketa batzuk ere izan dira, bestelakoak. Adibidez, hondartza ondoan tatuaje bat zeukan morroi bat aurkitu dute, hilik, itota, agian. Arrainek aurpegi guztia janda. Bizkarreko edo besoko tatuajeak honako hau esaten omen zuen: INFERNUA IRAULTZEKO JAIO NAIZ. P.P. Carbayo detektibe ezaguna ardurazten omen da kasuaz.

Izan dira, noski, beste hainbat hilketa: epai-leak garbitzen jo eta ke dabilen hiltzaileak beste

bat akabatu du, adibidez. Baina ez dugu orain hilketa-zerrenda osoa hona aldatuko; azken finen, Agentziako nagusiari, Jules Tribunori, ez zaio horietako bakar bat ere interesatzen, beste bat, oso berezia, baizik: Mendizalearen kasua. Tribunok, Borgesen atzetik ibiltzetik kendu, eta Mendizalearen kasuan lanean jarri du Bazofias.

Berlusgoñik eten zuen bere kontaketa, berriz ere. Harrapa itzazu beste bi izen hauek: P.P. Carbayo garrantzizkoa da pertsonaia bilakatuko zaigulako, eta Mendizalearen kasua, Pioletadun Hiltzailearen kasua beste izenez, garrantzizkoa da, baita ere, haria aurrera eramateko balioko digulako.

Ni nahasten hasia nintzen, eta apunteak hartzeko baimena eskatu nion. Egin erosoan iruditzen zaizuna, erantzun zidan, eskuzabal, osterarik ekin baino lehen:

Bazofiasek lanari ekin dio; Mendizalearen kasua honela deitzearen arrazoia da hiltzailea pioleta batez kalitzen dituela bere biktimak. Pioleta pasioaz, pasio hutsez erabiltzen duelako hipotesia zabaldu da. Hau da, hain gorroto ditu hiltzaileak bere biktimak non ez baitu nahikoa hil-

tze hutsarekin: behar du ikusi beren begietan pizten den beldurra, izuak sortu arnas estua entzun, usaindu esfinterren laxatzeak libratzen duen azken gorotzaren lurrina, odolaren gorria ikusi. Hots, hurbiletik hil behar du, toreatzaileek edo harpeetako bisonte-ehiztariak bezala. Horrek guztiak profil psikologiko zehatz bat margo-tzen du. Gizabanako basati, anker eta grinatsu batena, odolgose fanatiko batek bere egindako killer bero eta bertatik bertarakoa, edozertarakoa. Gizon izugarria, inondik ere. Pioleta erabil-tze honek ekarri dio ezizena borrero ankerrari, noski: Mendizalea, edo eta, beste batzuek esa-ten zuten bezala, Pioletadun Hiltzailea.

Luzea da Mendizalearen biktimen zerrenda: hamabi gizaseme eta lau emakume, hamasei pertsona, denetara, sei hilabetetan, hau da, ia hiru hilabeteko, bat hamar eguneko. Zerrendan dauden biktimak bizi diren lekuetako izenek era-kusten dute Pioletadun Hiltzailea aise mugitzen dela ehun kilometroko erradioa duen zirkunfe-rentzia imajinario baten barruan. Bestetik, neke-za da, hagitx, biktima horiek guztiak zerbaiten arabera antolatzea. Ezerk ez ditu hilketak elkar-

lotzen, elkarrengandik bereizten, pista baliagarriarik ematen: ez biografiak, ez hamaseiren bizitzetatik inoiz pasatu zen gizon edo emakumerik, denak elkarlotuko zituenik. Maniako baten pentsamoldea agerian jarriko zuen nolabaiteko serie edo datu-sailik (deituren hasierako letraren harrimana, krimenak gertatzen ziren asteko egunak, hilketako tokien artean ezar zitezkeen nolabaiteko erlazioak...) ez zen, edo ez zen inondik atzematen. Pioletak, biktimen buruan aurkitzen denean ere, ez du sekula hatz-markarik. Hainbat froga zirkunstantzialetatik -ate, eskailera edo leihoen tamaina, kolpeen angeluak eta abar- inferitzen den ondorio bakarra da Pioletadun Hiltzailea, segurutik, berrogei bat urteko gizon indartsua dela, ez oso altu eta ez oso baxu ere.

Finean Bazofiasek itsumandoka ibiltzera kondenatuta dagoela ulertu du. Gauzak honela, logikoa dirudi, Mendizaleak pioleta erabiltzen zuela kontuan izanda, mendizaleen artean ikerketa batzuk egitea.

Ikerketa-ildo honek argi-itzalak ematen ditu. Mendizaleak ez daude oso interesaturik Pioletadun Hiltzailearen kasuan, pioletaren erabilera

gutziz halabeharrezkoa dela jotzen dute, hau da, uste dute hiltzaileak berdin erabil lezakeela beisbol-makila bat, edo labana, edo beste ezein tresna gogor edo zorrotz. Alde horretatik ez du ezer lortu. Alabaina, bere joan-etorrietan, Bazofiasek aurkitzen du Taigher izeneko mendizale historiko bat: begibakarra eta txikia, zahar samarra mendizalea izateko, baina eskarmentu handikoa. Makila batez ibiltzen da, baita kaletik ere. Baina larderiatsua da; hizketan hasten delarik, gainerakoak isiltzen dira. Gauza bitxiak esaten ditu, ustekabekoak; adibidez, mendizale denen ahotan dabilen Himalaya aipatzen duelarik, berak, ezpainak elkarrengandik bereizi gabe, eta «y» grekoa iksa edo «sh» bezala ahoskatuz, zera dio: «El Himalaya es la risa del dios Shiva. Zor-dun naiz izenez ere ezagutzen ez dudan jendearekin». Bazofiasek Taigher susmagarritzat jotzen du, eta haren inguruko ikerketak hastea erabakitzen du, baina ikerketa-ildo hau ixten da Taigher desagertzen denean, Ipar Polora doan espedizio batean izena emanda.

Bon, laburbil dezagun orain arte ikusitakoa: batetik «trama politikoa» edo daukagu, Borges

eta Harry Harrison ministroarekin; bestetik, «krimenezko trama», Pioletadun Hiltzailearekin eta Taigherrekin; bion erdian harrapatuta, Bazofias dago (eta bere jefea den Jules Tribuno ere bai, noski); Azkenik, P.P. Carbayo dugu, egia esan oraindik ez dakiguna honetan guztian zertan ari den. Apunta itzazu hauek denak zure oharretan, agindu zidan Berlusgoñik.

Alabaina, hamazazpigarren hilketa gertatzen denean ustekabe bat gertatzen da Pioletadun Hiltzailearen kasuan: antza, hiltzaileak bere lehen okerra egin du, oker potoloa, gainera; biktima idazle bat da, eta Popescu Popafrescu literatur kritikaria eta unibertsitate irakasleak, kasualitate hutsez idazle horri bisita egitera joandakoak, hiltzailearen aurpegia, edo silueta, edo traza orokorra atzeman du. Aurpegia, aurpegi-zati edo silueta izan, poliziak uste du Popescu Popafrescuren laguntza erabakigarria izan daitekeela Pioletadun Hiltzailea, azkenik, identifikatu eta harrapatu ahal izateko.

Egun haietan, Popescu Popafrescuk Tokisgra-don egitekoak diren jardunaldi batzuk zuzendu eta koordinatu behar ditu. Jardunaldien izena ho-

nako hau da: «Traidorearen eta heroiaren gaia literaturan», eta espezialista mordo bat elkartuko ditu hiru egunetan zehar. Bazofias, bere jefearekin konforme jarri ostean, bertara doa Popafrescurekin elkarrizketatzera, aztarna berrien bila.

Hona iritsita, Berlusgoñi, arizale trebatuaren gisan, isilune luzean abandonatu zen. Gero, orri batzuk luzatu zizkidan, esanez: Bon, Bazofias ikertzailea Tokisgradora heldu da Popafrescurekin mintzatzeko asmoz; hemen sartzen da P.P. Carbayo. Irakur ezazu:

Bazkaltzeko aukeratu nuen jatetxean ustekabeko topaketa bat eduki nuen. Azelga batzuk jaten ziharduen, eta metal-ura edaten. Liposukzioa egin berri zirudien, baina burua sekula baino soilduago zeukan, eta zaharrago ematen zuen. Zehatz esateko, zotz batean ilkaturiko azeituna bat zirudien. Itxura patetikoa, benetan. Baina bera zen, espioi, detektibe eta polizien belaunaldi oso bat maisutzat hartutako espioia, aspalditik bere kabuz lanean ari zena, kasurik harregarrienak argitutakoa: P.P. Carbayo. Sentiendu kontrajarriak nituen berarekiko. Zalantza egin nuen -izan ere, ez nekien nitaz gogoratuko

zen-, eta Carbayok ere, hasiera batean, ez ikusia egin zuen. Azkenean biok konturatu ginen alferrik zela komediarekin segitzea, elkarren ondoan egonda, eta, batez ere, gatzontzia nire mahaian izanda. Agur protokolarioak trukatu genituen.

Gero serio hasi ginen. Nahikoa diru irabazi dut, esan zuen. Urteak ere aurrera doaz. Nire azken lana da. Erretreta hartuko dut.

Bere itxura eroriari kasu egitera, erraz sines-ten ahal ziren bere esanak. Baina nik so egiten nion begietara, eta azerizko ninietan dantzan ari zen argi maleziazkoari erreparatzea nahikoa zen jakiteko ongi ikasitako posea baizik ez zela. Carbayo bezalako detektibeak ez du sekula erretreta hartzen; eraldatu, itxuraldatu eta mutatzenda, heriotzak azken erretreta harrarazten dion arte. Gibela zaindu beharko zuen, hori bai, dama segaduna agudoegi irits ez zekion.

Zenbat miresten nuen esaten hasi nintzen. Carbayok aztertzen ninduen, isilik, esaten uzten zidan, partez asperturik bailegoen, partez nire ñimiñokeriak, nire xelebrequeriak libertituko bailuen. Zure sinplekeriak xamurtu egiten nau, Bazofias, bota zidan.

Hitz horiek akuilatu ninduten.

Orduan zenbat gorrotatzen nuen esan nion. Laidoen zerrenda aletu nion: lehena, eta barkaezina, hainbat errezeta gaizki emana, batez ere potxak babarrun gorriak balira bezala idatzi zue-neko hura; bigarrena, analisi sozio-ekonomiko guztietan porrot egin izana; hirugarrena, oso irtenbide zaileko edo akaso irtenbiderik gabeko arazoan irtenbideak besteei larderiaz exijitzea, berak irtenbide horien bila porrot egin eta gero, porrota galaxia periferikoetako nazionalismo periferikoei egotziz; laugarrena komeni ez zaizkion errealitate hurbilak -tortura, esaterako-, ikusi nahi ez izana... nahi al duk segitzea, Carbayo? Hireak egin dik! Halaxe bururatu nuen nire predikua.

Carbayo mihi-arrain bat jaten ari zen, lasai, hezurak poliki-poliki bereiziz, ardo zuri eta hoztaren laguntzaz.

Nirekin ez zara zuzen ari. Egozten dizkidazun horiek ez dira nireak, nire nagusia den Bartolo Márquez Tarambánenak baizik. Aspertuta nago, gogait eginda. Hirugarren mailako espioia baino ez zara. Eta badakizu zergatik?

Zuk zergatia azaltzearen zain nago esatera joan nintzen, baina besteak aurrea hartu zidan, eta bere kabuz segitu zuen aurrera.

Garai batean esaten zen informazioa boterea zela. Zuk falta duzu, esaterako, nik nahiko banu, aurrera egiteko gainezka dudan zerbait: informazioa, eta informazio-bide onak. Baina jada ez da aski informazioa edukitzea; horretaz gain, informazio hori maneiatzeko bideak behar dira. Zuk falta duzu informazioa, eta gainera, batez ere, informazioak maneiatzeko, manipulatzeko, errealitateak sortzeko aukerak. Adibidez, nik potxak babarrun gorriekin nahasten baditut, eta «hau potxa bat da» esaten badut, babarrun gorri bat seinalatuz, zer lortzen dut? Zer aldatu da? Nik esanagatik, potxak potxak dira, eta babarrunak babarrunak. Baina handik aurrera, hamar milioi pertsonak esango dute, nirekin batera, «hau potxa bat da», babarrun gorria seinalatuz. Nik esaten badut «Lizardi versolari bat zen», hamar milioi pertsonak errepikatuko dute; kontuan hartzen bada hamar milioi baino askoz ere gutxiago zaretela Lizardi poeta bat zela esaten duzuenak, Lizardi versolari bat izango da, edo ez

da deus izango. Zuek kontra egiten saiatuko zarete, noski. Ulergarria iruditzen zait. Ulergarria iruditzen zait zerbait izan nahi izatea. Arrazoi pixka bat ematen ari natzaizue, zuena, neurri txiki batean bada ere, ulergarria iruditzen zaidanla esaten ari naizenez; baina nik, beharrezkoa den une eta toki guztietan, ukatu egingo dut ulergarria iruditzen zaidanik zuen nahi izate ero eta tenorez kanpoko hori. Ez duzue zer eginik. Sinets ezazu, sistemaren barruan baizik ez da posible zerbait izan. Sistemak ezartzen dizkizun baldintza eta muga guztiekin, noski. Sistema zuek hartzeko prest dago, baina zareten bezalakoak ez izateko baldintzarekin; damurik, sistemako gaur egungo baldintza da zuek ez izatea.

P.P. Carbayok ez zuen sekula irribarrerik egiten mintzatzen zenean.

Guk jende askok, batera eta oso denbora laburrean, sinesten dituen erdizkako egiak edo gezur egiantzekoak sortzen ditugu, hau da, errealitate birtualak. Botere hori daukagu. Botere hori ez da berria, alderantziz, oso zaharra da, baina aurrerapen teknikoari esker, ikaragarri azkartu da. Botere hori izugarria da, orain arte se-

kula ezagutu den handiena, egoerak kontrolatzeko, Estatuburuak aldatzeko, komunitateak elkarren aurka jartzeko, santuak eta bekatariak izendatzeko eta beste makina bat gauza egiteko bidea ematen baitigu, biolentzia erabili gabe, eta horrek biolentzia benetan azken baliabidea izan dadin posible egiten du. Botere hau Jainkoaren antza handien ematen diguna da, giza-kontzientzia buztina bailitzan lantzeko abagunea ematen duen ber. Jakina, botere honek, hain izugarria izanik, berebiziko kontrola behar du. Piramide baten eitea duen egitura batek erabiltzen du botere izugarri hori: piramide horretan, zenbat eta gorago, orduan eta botere gehiago metatzen da esku gero eta gutxiagotan; zenbat eta beherago, botere gutxiago banatzen da esku gero eta gehiagotan. Esango dut zuk ulertzeko moduan: goiko erpinean, Jainkoak arrainak eta ogiak biderkatzeko boterea badauka, nik, beherago, apalago, potxak babarrun gorri bihurtzeko boterea daukat. Botereak jainkotu egiten du. Dena den, kontua piramidean egotea da. Ahalik eta altuen, jakina, baina beti ere bertan egotea, beheko aldean bada ere; goian arrainak biderkatzeko,

edo behean, potxak babarrun egiteko, edo are beherago, potxak edo babarrunak jan ahal izateko, berdin da. Zeren, piramidetik kanpo, inor ez da ezer. Piramidetik kanpoko guztia ez da. Haiek, piramidetik kanpokoek, alegia, uste dute egiazkoak direla, baina errealitate birtualak baina alegiazkoagoak dira. Piramidetik kanpoko guztiak versolari dira. Edo, okerrago, etsaiak. Bai, piramidetik kanpo daudenak piramidearen aurka matxinatzen badira, etsai bihurtzen dira, eta, hortaz, suntsitu beharrekoak. Zeren, asko hitz egiten da lehiaz, baina piramide horrek ez du onartzen lehiarik, bakarra behar du; piramidean ez dago traidoreentzako tokirik. Horregatik da hain garrantzizkoa piramidearen kontrola.

Carbayok arrazoi zuen. Segituan ulertu nuen alferrik ari nintzela, nire ardo txuria ez zela inoiz berea bezain ona izango, ez zela sekula berea bezain hotz egongo, ezta nire mihi-arrainak bereak bezain freskoak eta bezain ongi prantatuak, nire neskak bereak bezain eder eta interesgarriak, nire txortaldiak bereak bezain erotikoak, nire kasuak bereak bezain kilikagarriak eta nazioartekoak ere.

Unaturik ikusiko ninduen, zeren, harrigarria bada ere, irribarre zinikoa egin baitzuen lehen aldiz. Lehen esan dizut azken lan bat egiteak ekarri nauela Tokisgradora, jarraitu zuen. Informazio bat eman didate, eta kontratatu naute hemen dagoen pertsona bati emateko. Badakizu zein den pertsona hori?

Konforme, esan nion, zein da pertsona hori?

Roger Bazofias.

Ni, alegia. Begiak klikatu nituen, sinetsi ezinik.

Bai, zu zeu, segitu zuen Carbayok, nire harri-dura bere artean dastatuz, gozamenez, baina berriro serio. Eta eman behar dizudan informazioa hau da: Borges Tokisgradon dago -isildu zen une batez, esaldiak zer eragiten zuen nigan ikusteko edo-. Bai, hemen dago, Tokisgradoko Jardunaldi hauetan.

Elkor eta zurrun jarri nintzen, dentistaren aulkiari banengo bezala. Borges Jardunaldietan. Hain denbora luzean alferrik bilatutako Borges. Egia izango al zen? Borges famatua, terroristen buru heroikoa, munduko kondenatu, legendun eta zorritsu guztien esperantza bakarra; sugea

bezain zuhurra, aizkora bezain indartsua, idia bezain eraman handikoa, azeria bezain zorrotza, zaldia bezain azkarra, txorien txio-txioa bezain alaia, hartza bezain zabala, arkakusoa bezain zirikatzailea, mandeulia bezain nazkagarria, izurdea bezain argia, Akiles bezain heroikoa, odoluzkiak bezain desegokia. Borges hemen? pentsatu nuen, eta mesfidatu nintzen. Zera esan nion Carbayori:

Borges hemen? Benetan ala birtualki?

Marmarrean hasi zen. Benetan ala birtualki! Benetan, birtualki! Aurkia, ifrentzua! Leon, Kastillu! Bi termino baino gehiago dituen ekuazioa ezin ulertu izatea ere! Horrelako zer edo zer murmurikatu zuen.

Carbayok marmarrean esanak nahasi ninduen apur bat. Zoritxarrez, ez nintzen galdera egokia egiten ari, baina orduan ez nekien. Ez naiz Borges-en asunto horretan lanean ari, esan nion, despistea ezkutatzeko. Borgesena batere ez zitzaidala interesatzen adierazi nahi nuen, nahiz eta hondarrean jakin alferrik zela. Izan ere, profesioko espioi, morroi, txibato eta begiko karnika emango zuketena Borges harrapatzearen

truke. Antzerkiarekin segitu nuen, hala ere, txulo-txulo. Niri beste honako hau interesatzen zait: zer dakizu Pioletadun Hiltzaileaz? Ez al dakizu ezer Mendizaleaz? Kasu horixe argitzen saiatzen ari naiz egun.

Beste informazio osagarri bat emango dizut -esan zuen, jaramonik egin gabe-. Borgesek plan perfektua du Harrison ministroaren biziaren aurkako atentatua egiteko.

Hori ez zen posible. Ez dizut sinesten, Carbayo, esan nion. Tranpa usaina hartzen ari nintzaien bere hitzei.

Carbayok, eskuineko hatzak klikatuz, zerbitzariari deitu eta Mango Sorbetea Marrubizko Saltsa Epelarekin eta Tolosako Teila Ostoratua-
rekiko errazio bikoitz bat eskatu zuen. Eta esaten badizut -orain niri zuzenduz-, Harrison akabatu baino lehen, Tukumango apezpikua akabatuko duela? Tukumango apezpikua akabatzen badu, sinetsiko al didazu? Nahiko frogaz izango al da zuretzat?

Txorakeriak. Ganbara alkilatuta daukazu, P.P. Carbayo. Zerebroa da liposukzionatu beharko zi-

zuketena. *Horiexek izan ziren ganora galdutako zorigaiztoko horri esan nizkion azken hitzak*».

Irakurtzen bukatu nuen. Eta orain? galdetu nion Berlusconi. Orain, arrapostu zidan, arazoak, nire arazoak, nire arazo literarioak hasten dira. Begira, hemendik aurrera ustekabe txiki bat daukat gordeta irakurlearentzat: gertatzen den lehen gauza da P.P. Carbayo bera dela pioletakada buruan duela agertzen dena, hilik. Popescu Popafrescuk aurkitzen du hilotza. Honela idatzi dut aurkikuntzaren pasartea; irakurri, irakurri:

Segituan ohartu nintzen zerbait larria gertatu zela. Bere atzetik joateko eskatu zidan. Gertuko hotel bateko gelara eraman ninduen. Gaur, goizean goiz, aurkitu du gelari batek, jakinarazi zidan Popescuk. Gela hatz-arrastoak, neurriak, krokisak eta apunteak hartzen zituzten espioiez, poliziez, detektibez eta txibatoez mukuru zegoen.

P.P. Carbayo zen. Zoruan eseririk zegoen, bizkarra gelako hozkailuko atearen kontra bermatuta. Pioletaren aurreko gako metalikoak burezurra erdibitzen zion. Juanjo Puigcorbek edo

Carlos Ballesterosek sekula ezin imitatuko zuten keinu harritua margotzen zen bere aurpegian, zeinaren ahotik, porru gordin baten zuztarpeko bixarrak ateratzen baitziren.

Baina ustekabeak ez dira hemen bukatzen; ondoren, segitu zuen Berlusgoñik nik ezer galde-tu baino lehen, Tukumango apezpikua akabatzen dute, noski. Horrekin Bazofias konturatzen da Carbayok emandako informazioa zuzena dela. Baina, hala ere, gelditzen da intriga-puntu bat: Carbayok, Borgesek Tukumangoa akabatuko zuela jakinik, nola ez zekien, ordea, Mendizaleak edo Pioletadun Hiltzaileak bera akabatuko zuela? Baina orain, galderaren erantzuna jakin gabe ere -bihotz onekoa, finean-, gogoratzen zaion lehen gauza da Ministroari gaztigua ematea, bere bizitza arriskuan dagoela jakinaraztea. Horretara doala, ordea, beste ezuste bat pairatu behar du, nik modu honetan idatzi dudana:

Arriskuaz ohartarazten zion ohar bat zirriborratu nuen eta korrika batean jausi nintzen hoteleko sarreraraino. Banindoan kalera eta harrerako mutilak geldiarazi ninduen, papertxo bat emateko. Paperak honako hau zeukan idatzita:

«Bazofias, kontuz egiten duzunarekin. Zure arrastoaren atzean nabil, orpo-orpotik. Harrisoni gaztigua ematera bazoaz, egiten duzun azkena izatea litekeena da. Pasaporteak emango dizut, ulertzen? Borges». *Beraz, Borges Jardunaldietan zegoelakoa egia izatera ez ezik, niri zemaia egiteko ikara askorik ez zuen. Ongi, bada. Ez nintzen kikilduko, ez horratik. Damurik, une horretan ez nintzen konturatu lazoa nire lepo inguruan jartzen ari zitzaizkidala.*

Zer iruditzen? galdetu zidan Berlusgoñik. «Psssh» erantzun nion, ez nuelako nire iritzia konprometitu nahi. Berlusgoñik nire onespena ematen niola interpretatu zuen, edo agian ez zitzaion gehiegi inporta nire iritzia. Orain -zioen-, garai eta hizkuntza guztietako narrazioaren ataka oso ezagunetan eta mila bider errepikatuan gaude, literatur tradizioaren autopista ezagunenetako batean daukagu liburuaren haria. Baina, paradoxikoki, honek berak jartzen du arriskuan liburuak, kanonikoa izateko, bete behar duen bigarren baldintza bete ahal izatea: originaltasunaren baldintza, hain zuzen ere. Lehena, unibertetsala izatea, beharrezkoa bai baino

nahikoa ez dela, bigarren baldintza hori ere bete beharko bailuke liburuak. Eta, kasu honetan, gainera, trama hain ezaguna izateak -heroiari hil nahi dutela gaztigatzea-, ez du horretarako baturere laguntzen. Nik honela deskribatu dut arazoa nire liburuan. Demagun Bazofiasek Harrisonek kiroldengan emango duen mitin batera joateko asmoa duela, gaztigua eman ahal izateko:

Harrisonen mitinera baino lehen bi aldiz aldatu nintzen taxiz, metro eta autobus batzuk hartu nituen, itzulinguruka ibili nintzen hainbat saihesbidetatik, zenbait egunkaritako orrien atzean ezkutatu nintzen, etxe bateko ate nagusitik sartu nintzen, gero atzeko atetik ateratzeko, ileordeak, postizoak, gabardinak eta bestelako mozo-roak erabili nituen, eta, oro har, profesioaren eskuliburu denek agintzen dituzten guztiak bete nituen.

Kiroldegira iritsi nintzen arazorik gabe, eta, behin bertan, ez zitzaidan zaila izan Ministroaren ondoan tokia hartzea, bere inguruan hesia egiten zuten bizkartzainak baizik ez zeudela bera eta nire artean. Baina oharra ematera nindoala, argia egin zitzaidan. Bazofias -esan nion nire bu-

ruari-, gaztigua eman ez gero, ederki izorratu duzu gixajo hau. Oharra ematen ez badiozu, aukera bat geldituko zaio. Bestela, hilik dago.

Lagundu nahi nuela, jakinaren gainean jarri nahi nuela, eta sekulako alukeria egiten ari nintzaion.

Zergatik? Hona zergatik: literatur tradizio zabalak, Shakespeareren Julio Zesar-etik Traidorearen eta heroiaeren gaia izeneko ipuina doa, erakusten du hiltzera doana hiltzeko, lehenik inork gaztigatu behar diola hilgaiari bere etsaiak bera hil asmotan dabilzala. Hala, Julio Zesarri, Senatura bidean, han hilko zutela gaztigua («Ez zaitez Trebonioz fio, Brutok ez zaitu maite, Casio iraindu duzu...») eman nahi izan zion morroi batek, nire antzera, eta gero Zesar hil zuten Senatuan. Traidorearen eta heroiaeren gaia izeneko ipuinean ere, hil eta gero, Kilpatrick-en poltsikoan aurkitu zuten gutun itxia, zein zuzen ohartarazten baitzitzaion gau hartan antzokira joatearen arriskuaz. Hortaz, neu, Borgesek hil nahi zuela Harrison ministroari esatera etorrria, gidoia baldintza sine qua non bat betetzen ari nintzen. Beste modu batez esanda:

trama azken bururaino joan zedin beharrezkoa zen morroi-papera betetzen ari nintzen; edo, hobeto esanda, nik betetzea nahi izan zuen Carbayok, horregatik eta horretarako emango baitzidan, beinke, Borgesek Ministroa hil nahi zuelako gaztigua.

Hobe etorri izan ez banintz, bai. Unibertso infinituetako forma anitzeko denboraren zikloa ixtear zen. Zikloa betetzear zen berriz. Bizkartzainen lerroaz bestaldera begiratu nuen. Harry Harrisonek oso nekatuta zirudien. Bere egiazko ametsa Hollywoodeko musikal alai batean paper txiki bat edukitzea izan zitekeela otu zitzaidan. Harrisonek begiez itauntzen zidan.

Ministroa nire oharraren zain zegoen, nire prebentzioaren aiduru, nire gaztigu larriaren begira. Orduan pentsatu nuen egindako akatsa hala edo nola konpontzen saia nintekeela. Agian horrela aukera bat edukiko luke.

Alegia, literatur tradizio anker horrek ezartzen zuen patu saihestezina saihesteko modua bilatu behar nuen.

Berlusgoñik hasperen egin zuen. Hemen trabatu naiz, aitortu zuen; ez dakit hurrengo esze-

na nola idatzi. Zeren, honaino azaldu dizudan kasu literario honetan, originaltasuna ezinezkoa iruditzen zait. Aztertu ditut aukera guztiak, eta dagoeneko denak idatzita daude: abisu emaileak abisu eman nahi izatea, ezin ematea eta heroia hiltzea, horixe Shakespearerengandik landu izan da, hori bide klasikoa da, ezagunena, ibiliena. Abisu emaileak abisu eman nahi izatea, ezin ematea eta heroia bizirik ateratzea, abisu emaileak abisu ematea eta heroia hala ere hiltzea, abisu emaileak abisu ematea eta heroia salbatzea -hau ere oso maiz ikusten dena-, abisu emaileak abisurik ez ematea eta hala ere heroia hiltzea, edo abisurik ez ematea eta heroia salbatzea... aukera hauek denak, eta gehiago ere bai, idatzita daude. Matematika edo xake-problema baten antzekoa da, baina bariante guztiak aztertu dira. Dena dago idatzita. Orduan, zer egin? Demagun *happy end*-a eman nahi diogula liburuari, eta Ministroaren bizia salbatu nahi dugula, salbatuko dela erabaki dugula. Orduan, nire aburuz, *abisua eman nahi izatea eta ezin ematea* baldin bada heroia heriotzaren baldintza -Zesarren kasuan bezala, esaterako-, *abisua eman*

nahi ez izatea, itxuraz, baina ematea, benetan, izan behar da heroiaren salbazioarena. Baina, gainera, zure, edo nire, edo gure liburua originala izatea nahi badugu, kasu honetan, eta dena idatzita dagoenez, originaltasun posible bakarra *jada idatzita dagoen pasarte batez baliatzea da*. Hau da, jada idatzita dagoen literatura unibertsaleko pasarte bat baliatzea Harrisoni *gaztigua emateko, gaztigurik emango ez bagenio bezala*, literatur tradizioaren patu saihetsezina saihesteko. Beste hitz batzuetan esanda, beste liburu batean, batzuetan agian, sartzea, gaztigua, oharra, eman ahal izateko egoera sinesgarri bat topatu arte; eta, egoera sinesgarri hori lortuz gero, hainbat teknikaz baliatzea, elipsiaz agian, iragarpena, gaztigua hitzik gabe emateko, baina, aldi berean, abisua ematen ari garela interesatuari eta, baita ere irakurleari oso garbi uzteko.

Baina, zoritxarrez, honaino iritsi banaiz ere, ez naiz aurrera egiteko gauza.

Trabatu zara? Jakin nahi izan nuen.

Trabatu? -arrapostu Berlusgoñik-. Bai zera! Aukera gehiegi daukat, horixe da nire arazoa.

Berbalapiko haren ondoan, eta haren esanetan, geldituz gero ez nuela sekula Mitxoleta topatuko egin zitzaidan susmo. Hori guztia oso ongi dago, baina liburua bukatzerako Amazoniako zuhaitz guztiak moztuko dituzte, esan nion Berlusgoñiri, neu nintzela egoeraren jabe konpreniaraziz, eta nik nahi dudana Mitxoleta aurkitzea da. Nola bilatuko dut Mitxoleta Amazoniako oihanean, jada oihanik ez dagoenean?

Konforme, esan zuen Berlusgoñik, Balzacen obrak gordetzen zituen eta ni poliki-poliki igozten ari nintzen poltsari zeharka begiratzuz, baina ez inori esan, gero, eraman zaitudanik. Berarekin ordubete utziko zaitut eta gero zuk libre utziko nauzu.

Baldintza horietan konformatu ginen.

Mitxoletarengana iristeko iturbururaino egin behar omen zen Amazonas ibaian gora. Gondola bat alkilatu genuen. Ba omen genuen bidaia puska baterako. Ibaian gora egitea, nolabait

esan, munduaren hasierako garaietara itzultzea bezalakoxea zen.

Gondoleroak hagitz hankabiko alaia zirudien; atorra zerrendaduna eta txano xingoladuna zeramatzan, eta belarri bat falta zuen.

Berlusgoñi ongi loturik utzi eta gero, belarrian zer gertatu zitzaion galdetu nion gondoleroari, eta honek, hori ez ezik, toki apartatu eta ogibide harrigarri horretara eraman zuena, hau da, bere historia, kontatu zidan.

Begira, esan zidan, hasieran ni gizon guztiz normala nintzen: pisu oso txiki eta zahar baina aldi berean izugarri garesti batean bizi nintzen, hirian, emakume bakar batekin, izatez poligamoia banaiz ere, eta lan egiten nuen zortzi orduz ezertarako ere gustatzen ez zitzaidan lan batean, pisua eta gainerako kontsumogaiak pagatu ahal izateko, beti zorpean ibiltzen nintzen arren. Hau da, zoriontsua nintzen. Baina zoriontasunaren hegoak laburrak dira. Laster hasi ziren gauzak nahasten, batez ere konturatu nintzenean kalkulua gaizki egin eta gustatzen ez zitzaidan zortzi orduko lanean irabazten nuenarekin ezin nituela hilero kontsumogaiek sortzen zituz-

ten zor guztiak estali. Orduan, emazteak bultzatuta, beste lan osagarri bat bilatu nuen. Beste ezertarako talenturik ez eta nire herrikideek, aukideek eta abarrek egiten zutenaren berri ematen hasi nintzaion guztion bizimodua kontrolatzen duen Espioi Agentzia bati, hemendik aurrera, eta laburtzeko, Agentzia, besterik gabe, deituko dugun bati. Hasieran, Agentziako lan osagarrian irabazten nuenak nire bizimodua hobetzeko, hau da, gehiago zorpetzeko bidea eman zidan. Orduan pisu berri bat eta kontsumogai berriak erosi nituen, eta gazteagotan edukiriko amorante bat mantentzen hasi nintzen, sexua serio, benetan, helduen moduan praktikatzeke asmoz. Baina luze gabe, arazoak agertzen hasi ziren. Arazoak eta zoritxarrak ez direla banaka etortzen esan ohi da, eta egia handia da hori; are, etortzen, emeki-emeki eta konturatu gabe etortzen direla esango nuke, punta txikiko izeberg txiki bat bailiran, ezer ez direla ematen dutela, gero konturatzen zaren arte, izebergaren kasuan bezala, agerian dagoena halako hamar, edo hogeit, edo ehun dela azpian dagoena. Nire kasuan, izebergaren punta pisu berriko paperak

egiten hasi nintzenezan ikusi nuen. Joan nintzen aholkularitza fiskala ematen duen nire ezagun batengana, eta kontua azaldu nion. Ongi da, esan zuen, baina pentsatu duzu paperak nola egin? Ezkonduta zaudete? Bai edo ez? Elizatik? Epaitegitik? Ezezkoan, izatezko bikotea egingo duzue? Noren izenezan jarriko duzue pisua? Bion izenezan? Zure izenezan? Emaztearen izenezan? Bion izenezan jarriz gero, erdi bana jarriko duzue? Bakoitzak portzentaje ezberdina duela? Nola eskrituratuko duzu/duzue pisu berria? Egiatan ordaindu duzuen prezioan? Ordaindu duzuen bano merkeagoan? Zenbat merkeago? Ehuneko hamar? Ehuneko hogei? Kontuan hartu horiek guztiak nola egiten dituzun, eta errenta aitorpenen diferentzia izugarriak eduki ditzakezula, alde edo kontra. Legeak pixka bat begiratzea ere komeni zaizu. Nire ezagun aholkulariarekin hitz egin eta gero gau luzeak pasatu nituen kalkulagailua esku batean, gora eta behera, kontuak egiten, eta zerga-legeak zein nire aurreko urteetako aitorpenak bestean, egokiena zena aukeratzeko. Egin nituen paperak noizbait, aholkularien aholkuak eta nire aldetik ikasitakoa aintzat har-

tuz. Gero joan nintzen aholkulariarengana berriz, eta egindakoa azaldu nion, pozik eta harrotasunez betea. Aholkulariak ere kalkulagailua astindu zuen eta azkenean bertako bisorean azaltzen zen zenbakia erakutsi: 2.345.567. Ikusten, esan zidan, ergel memelo erabateko batekin ari bailitzan, hauxe da galdu duzuna gauzak nik esan bezala ez egiteagatik.

Gondoleroak bizkarrak harrotu eta hizketan segitu zuen.

Pisu berriarekin nahikoa ez eta ongizatearen gizarteko hipermerkatu oparo hornituriko guztietan eduki zuten gure berri: bideoa, telebista, bideokamera, ordenagailua, auto berria, mikrouhinak, airezko labea, hozkailua, argazki makina, proiektorea, mendiko bizikleta, sei kasko diferente -pilotan aritzekoa, bizikletan ibiltzekoa, eskalatzekoa, *rafting* egitekoa, motorrean ibiltzekoa, parapente egitekoa-zein makina bat arrisku-kiroletan aritzeko material espezializazio handikoa, diseinuzko altzariak, pattarrak eta likore exotikoak, urterik onenetako ardoak eta markako jantziak erosi genituen, besteak beste. Behialako garai batean nire erosteko ahalmena zuhur-

ki administratzen zekien erosle irizpideduna nintzela amestu banuen ere, orain dena zen diferente, eta makina bat galderak galarazten zidaten loa: hiru edo lau erreprodukzio-buru? Alboetako airbag-a, bai ala ez? Aire girotua edo klimatizadorea? TDI? TDI, jakina, baina, 110 zaldikoa edo 150 zaldikoa? CD edo DVD? 25 edo 35 hazbete? Dolby System, bai edo ez? Neoprenoa, 5mm-koa edo 7 mm-koa? Gerezia ala pagoa? Tempranillo edo Cabernet-Sauvignon? 40 edo 60 mega? Aluminioa edo karbono-zuntza? Lihoa edo artilea? Laster konprenitu nuen nire kontsumo-mailak bost bizitza bizi izanda ere ikasiko ez nintuen hamaika trebetasun eta jakintza menderatzea exijitzen zidala. Are, trebetasun eta jakintza horiek denak edukita ere, sekula ez nuela denborarik edukiko, inolaz ere ez, baina are gutxiago plurienpleoarekin, egunean hamalau eta hamabost orduko lanaldiak egiten baintuen, nire jostailu guztiekin jostatzeko. Benazko erdeinua profident hortzen atzean ezkututzen zuten makina bat saltzaile irribarretsu eta gorbatadunen jostailu baino ez nintzen; haiek eramaten ninduten, eskutik helduta, hiperazoka globalaren ira-

ganbide ez beti erabat zuzen eta gardenetatik barna, ibiltzen doi-doi dakien ume bat eramaten den modu berean, ezertarako ere ulertzen ez nintuen argibideak eman eta gero, beti «Ados?» irribarretsu eta prefabrikatu batez galdetzen zidatela ea ulertzen nuen. Nik beti baietz esaten nien, kortesiak hori eskatzen duelako, baina benetan ulertzen nuen bakarra zen saltzaile horiek denak ikastaro berbera eginda zeudekeela, ikastaro estatubatuarra, ausaz, zeinean beraiek bezalako beste saltzaile gorbatadun irribarretsu batek, Ameriketatik etorria, jakina, azalduko baitzien, Texasko azenturik onenarekin, jada ez duela balio garai batean bezala saltzea, saltzaile erasokorraren garaiak joan direla, bezeroaren unetik unerako adostasuna lortzea ezinbestekoa zela, eta unetik unerako adostasun bakoitzak O.K. (Ados? De acuerdo?) baten bidezko baieztapena behar zuela. Horixe zen nik ulertzen nuen bakarra, baina hortik aurrera ez nintzen tutik ere ez nuela ulertzen esatera ausartzen; hobeto esanda, bai, bitan ausartu nintzen: lehenean, bideo bati buruzko xehetasun batzuk esplika zitzala eskatu nion saltzaileari, eta laster geratu

zen argi berak ere, su artifizialezko lau memelokeria alde batera utzita, ez zekiela ezer, eta gainera, nahikoa zipotza zenez, niri mehatxua egin da bukatu zuen azalpen-saioa; bigarreanean oker-ragoa izan zen, bigarreanean morroiak informatikaz bazekien, eta lau orduz jardun zuen bere produktu informatikoen xehetasunak, gorabeherak eta inguruabarrak azaltzen, halako sakontasunaz eta egia bilatzeko nahiaz non, une jakin batetik aurrera, denboraren etengabeko isurtzeaz, bizitzaren laburraz, Newtonen sagarraz eta itzalaren itzalaz baizik ez baitzitzaidan mintzatu. Bi kasuotan, zipotzarenean bezala filosofoarenean, emaitza praktikoa berdina izan zen: ez nintzen gauza izan bideoa, ez ordenagailua, martxan behar bezala jartzeko. Bestalde, hala gertatzen zitzaidan tresna guztiekin; beti okerreko botoia sakatuta, egunak txandriotik txandriora joaten zitzaizkidan.

Une horretan gondoleroa isildu zen, eta ordu-ra arteko mintzatzeko hari logikoa galdurik, automata bat bezala hasi zen, begietan humanotik zeukakeen guztia galduta: «Nola zuen izena Elvis Costelloren *Watching the detectives* kan-

tuan ari zen baxu-jolea?». Horixe esan edo galdetu zuen. Gero, inork matapaxarekin jo izan bailuen, eta kolpeak bere onera ekarri izan bailuen, mukiak, zapi batez, hots handitan kendu eta lehengo tonu logiko eta hotzean segitu zuen.

Ulertuko duzunez, handik aurrera «Ados?» galdetzen zidaten bakoitzean nik baietz erantzuten nuen, ahalik eta bizkorren. Etsi nuen eta su piztekoak erosten hasi nintzen, su piztekoen mekanismoa ongi menderatzen nuelakoan; estankotan bada makina bat modelo itxuroso eta disseinuzko, merke gainera, eta betiko moduan funtzionatzen dutenak, baina horiek ere badute akatsa: hamargarrenetik-edo aurrera ez direla berriro pizten; orduan itzuli behar duzu estankora, eta harria edo gasa, edo biak, aldatzen dizkizute; ateratzen zara oso pozik, eta, berriz ere, beste hamar bat aldiz edo piztu ondoren, metxeroa izorratzen da; orduan estankora itzultzen zara eta beste metxero bat ematen dizute. Luza dezakezu ariketa estankoko metxero guztiak probatu arte, eta azkenean baieztatuko duzu egiatan ez dagoela akatsik, 300 edo 400 pezeta-ko su pizteko dotore-dotore horiek hamar piz-

tualdirako pentsatuta daudela. Aspergarria da, zinez.

Gondoleroak isilunea egin zuen, belarrietan hazka egiteko aprobeztatzuz.

Enfin, estres hauetan nengoela, Agentziak lan zail bat egiteko eskatu zidan; bagenuen KAO-Seko agente garrantzizko bat harrapatzeko aukera, eta plan bat egiteko. Ez genekien gauza handirik agente garrantzizko horri buruz, baina bai bi gauza funtsezko: bagenekien KAOSeko agente garrantzizko horrek itsuki maite zuela piku-mermelada, batetik, eta bagenekien bere listuaren ADNko nukleotidoen sekuentzia zifratua. Hauxe izan zen prestatu nuen plana: proposatu nion Agentziari akzioak eros zitzaizkion piku-mermelada egiten zuten enpresa guztietan, poliki-poliki gure agenteak enpresotan sartu ahal izateko, halako moldez non, hilabete gutxiren buruan, Agentziak menperatuko baitzuen, denon oharkabea, baina efektiboki, piku-mermeladaren mundu osoko merkatua; gure agenteek, produkzio-kateetan zitalki maskaraturik, txip, txip berezi bat, sartuko zuten mermelada poto bakoitzean. Txip horren berezitasuna zen berarekin KAO-

Seko agentearen listuarekin kontaktua egitean hasten zela seinale elektronikoa batzuk igortzen, Agentziako satelite batek hartu eta berriz igortzen zituenak gure postu, bulego eta estazioetara, zeinetatik gaztigua pasatzen baitzitzaidan niri. Modu sinple, merke eta erraz honetan espero genuen KAOseko agentea, bost kontinentetako edozeinetan piku-mermelada jaten zegolarik ere, kontrolatu eta, komeni zitzaigunean, harrapatzea. Problema sortu ziren, ordea: KAOseko agentearen listuaren ADNko nukleotidoen sekuentzia zifratua, goi mailako sekretua zenez, neronek ikasi nuen buruz, eta gero zenbaki sekretua idatzirik eduki zuen papera jan nuen, segurtasun-arazorik izan ez zedin. Ordea, oroimen-lapsus ezin sinesteko bat eduki nuen, eta zenbakia ahaztu. Orduan, ariketa horrek ahaztutako zenbakia gogoraraziko zidalakoan, pertsona arruntak erabili ohi dituen eta buruz jakin ohi dituen zenbaki pertsonalak errepasatzen hasi nintzen: etxeko telefonoa, lanekoa, senitarte hurbilena, sakelako telefonoa, kreditu-txartelak -VISA ikastola, SERVIRED, 4B eta American Express-, autoaren matrikula, gizarte-segurantzaz-

ko txartela, NAN, euskalduna eta espainola, hainbat datu-basetan eta laneko ordenagailuetan sartzeko klabeak, Athleticeko bazkide-zenbakia, autoko irratia sintonizatzea, elkarte gastronomikoko atea irekitzen duen txartelarena, azken analisietako leukozito eta hematien zenbakia, diru-kutxa automatikoa, segurtasunezko kutxa, nire amona zena lurperaturik dagoen hilobiarena, lanera joateko autobusa, mailujaurtiketako munduko errekorra -gizonezkoetan-, nire jaioteguna, kontu-korrontea, kolesterol-neurria, altuera/zabalera/pisua erlazio ego-kia, golf-klubean erabiltzen dudako takilla, etxeko garajearen sartzeko klabea... Alferrik izan zen: denak elkarrekin nahasten nituen, eta ariketa bukatzerako nire zapata neurria baizik ez zitzaidan seguru-seguru bururatzen; etsirik, hala esan nion mermelada potoetako txip berezian KAOSeko agentearen ADNko nukleotidoen sekuentzia zifratua sartu behar zion agenteari: 40, bai, berrogei, horixe baita nire oinetakoen neurria. Esan beharrik ez dago ez genuela KAOSeko agentea harrapatu. Uste nuen kritika gogorrak entzungo nituela zenbaki zifratua ahazteagatik, baina

txipa prestatu behar zuen agentea -gaztea zen, ofizioan berri samarra-, errua elkarren artean banatzeko prest azaldu zen: jakina, esan zuen, nik dut kulpaa: ez diot galdetu 40a amerikanoa edo europarra ote zen.

Gondoleroaren aurpegia, kontakizunean aurrera egin ahala, gero eta tristeagoa zen; puzker egin eta bere kontakizunari segida eman zion.

Kontuak kontu, eta ikusiak ikusi, ordura arteko guztia ahaztu eta sexuan gogor -heldu, erabateko- jarduteko agindu nion nire buruari, amorante ohiarekin hitz eman bezala. Nire amorante ohia arduratu zen. Hasteko, ordurako nahikoa etsirik bide zegoen bere lehengusina bati deitu zion. Gero puto bati deitu zioten, eta ni armairu batean sarrarazi. Putoa beltza zen, Vladimir deitzen zen, ez dakit izen artistikoa izango ote zen baina. Jakina, zuk orain uste duzu mandingoak kristoren zuztarra zeukala esango dudala, baina hala uste baduzu, ez dakizu zer den sexu adultoa. Vladimirrek aparailuak zeuzkan, aparailu elektrikoak ez ezik zafran eta, orokorrean, azukrearen industrian erabiltzen diren tresna tradizionalak, eta aparailuak eta tresnak bakarrik ez,

botikak, jesarleku bereziak, errobotak, belarrak, pilulak eta ukenduak ere bai, halako moldez non, etxera iritsi eta parafernalia guztia hedatu zue-
nean, edozeinek sinetsiko zukeen dentista zela, ezen ez puto. Zuztarra gutxienekoa zen. Hasi zen han jardunean bere tramankulu guztiak mar-
txan jarrita, eta nik neuk, nire amorante ohiaren etxeko armairuan nengoela seguru-seguru jakin izan ez banu, labe garai batean nengoela sinetsi-
ko nukeen, edo makina-erreminta hain sona handikoaren erakustaldi horietako batean, han ateratzen zen soldadura eta zerra metaliko hotsa, txinparta, su artifizial, eta sirena-soinuak entzun eta ikusirik. Hasierako plana zen ezen, gelakoak goren puntutik gertu zeudela, usteka-
bean ni aterako nintzela armairutik, ñaka-ñakan aritzeko gogoz lehertzen. Baina izan zen gauza ezen, Vladimirren industria pirogenikoak kontra-
ko efektua eragin eta, inkiaturik, nire txilibitua ez zela neguetako kaxernetatik ateratzera deli-
beratzen; badaezpada ere, kieto gelditu nintzen armairu barruan mekaniko protesiko haren saioa bukatu zen arte. Vladimirrek, bere tresneria guz-
tia erabili eta gero, ordura arte intzirika eta ga-

rrasika ibilitako bai nire amorante ohia, eta bai haren lehengusina ere, plazeraren paroxismoan, bi eskultura postmoderno eginda utzi zituelarik, zupoarekin ekin zien, txandaka, untxi maniako baten gisara, eta batari nola besteari espermazko txorro koloreaniztun emankor, oparo, nara bana oparitu zien, eskuzabal (pitozabal?). Ekina-ren une gogoangarriena iruditu zitzaidan, txikitant Montjuich-en ikusiriko iturria gogorarazi zidan ber. Espektakuluak kemenak oro galarazirik, unaturik, isil-isilik gelditu nintzen armairu barruan sexu adulto eta helduaren hiru metalurgikoak elkarri besarkaturik lo gelditu ziren arte; gero, goizetik, lo zeudela, poliki-poliki atera nintzen; mekaniko beltzak begi bat ireki zuen, baina maiordomoa nintzela estakuruarekin ospa egin nuen etxe hartatik betikoaren betikoz. Behin kallean, belauniko jarri nintzen bidearen erdian, kotxerik edo autobusik edo bizikletarik edo motorrik edo patineterik edo beste edozein ibilgailurik etorriko ote zen ezaxola, eta besoak zabaldu nintuen, gurutzea eginez, eta halaxe hasi nintzen, aldarri handietan: «Jainko guztien Jainkoa, klitoria hatzaz eragitetik eskuzkotik harantz joan ez

den gizontto ezdeusa naiz!». «Unibertsoko Indar Sortzaileak, erruki zaitezte, apenas idazten eta irakurtzen baizik ez dakien ezjakin honetaz!». «Ama Lurreko Energia Telurikoak, barka ezazue proteina multzo desitxuratu hau!». «Zeru Goienetako Arkitekto Nagusia, birrin eta deusezta, zabal eta heda ezazu kosmosean barna naizen izaki preteknologiko eta frakasatu honen hautsa!».

Gondoleroa, puntu honetara iritsirik, lehen gertatu bezala, automataren hitz egiteko moduz hasi zen, lehen bezala bururik eta hankarik gabeko gauzak esateko: «Nor zen baxua jotzen zuena Elvis Costelloren *Watching the detectives* izeneko kantan? *El País Semanal*-en begiratu beharko dut». (Gizabanano hura arras tentelduta zegoen; zer bertsioez ari zen galdetu izan balu, behintzat). Lehen bezala gertatu zen orain ere, ordea: zoroaldia bat-batean pasaturik, potroak jorratu zituen eta lehengo tonuan ekin zion ostera ere:

Ulertuko duzunez, gorabehera horiekin guztiekin ez nengoen oso nire onean, eta bizitza normala egiteko azken saioa egin nuen: ni beza-

lako batentzat gelditzen zen esparru bakarra gastronomia zela iritzi nion, eta hasi nintzen pin-txoak jaten, eta sona handiko jatetxeetara joaten. Oso oroitzapen onak dauzkat nire bizitzaren aldi honetatik (hemen oroitzapenak onak zirela adierazten zuen korroskada samurra egin zuen). Inoiz ez nekien zer jaten ari nintzen, zehatz, baina, orokorrean, jatekoak oso goxo zeuden. Alabaina, laster utzi behar izan nuen zaletasun hau, eta ez gibel sobera handitzen, osasun arazorik sufritzen edo loditzen ari nintzelako, ez, prezioak edonor disuaditzeko modukoak zirelako baizik. Ilusio guztia galdurik, izarpeak niretzat gordetzen zuen tokia zein zen ezin kausturik, une kritikora iritsi nintzen: suizidatzeko tentazioak eduki nituen, baina hala edo nola, aldi latza gainditu nuen. Lana, emaztea, adiskideak, hiria, hots, bizimodua errotik aldatzea erabaki nuen; oihan honetara etorri nintzen, oihan osoa elektrifikatu eta Mark Knopfflerren kantak etengabe entzunarazteko asmoa duen konpainia batentzat lan egitekotan, elektrika jartzen laguntzeko. Zorritzarrez, kortozirkuitu batek belarria erre zidan;

belarria moztu zidaten, lan hori utzi behar izan nuen eta hemen naukazu, gondolero.

Gondoleroaren bizitza hagitz inpresionagarria iruditu zitzaidan.

Gondoleroa oso nire begikoa zen, bere kamisetarekin zerrendaduna eta txoto xingoladunarekin. Poliki baino etengabe eragiten zion arraunari. Halako batean, ordea, gelditu egin zen, eta zerbait murduskatu. Ekinak dira, gero, bota zuen, ibaian gora seinalatuz. Setatiak, tematiak, burugogorak, egoskorak, biribildu zuen, nire begietan idatzita zegoen galdera erantzunez.

Hasieran ez nuen ezer ikusi; gero, laster ikusi nuen antropofago beldurgarrien txalupa batzuek ibai-bidea ixten zigutela.

Ibaiaren erdian geldirik geunden; antropofagoen txalupetan eztabaida bizia zegoela nabarmena zen; ez geunden gizajaleen ahotsen oihartzuna ez entzuteko bezain urrun.

Txalupek bidea mozten ziguten oraindik, baina egoera ez zen lehengo berbera; izan ere, antropofagoak hurbildu zitzaizkigun eta zerga moduko bat eskatu ziguten bidea libre uzteko. Zenbait errekaite eman genizkien, ia horrekin konformatzen ziren. Gondoleroak ongi ezagutzen zituen tribu haien ohiturak, edo haiei buruzko telebistako erreportaia ugari ikusiko zituen. Eman dieguna nahikoa ote den eztabaidatuko dute egunsentira arte, jakinarazi zuen gondoleroak, eta gero, konforme ez badaude, eraso egin eta jan egingo gaituzte.

Itxoitea baino ez genuen. Nik ez nuen nahi, baina gondoleroa errukitu zen, eta Berlusgoñiri muturreko estalkia kentzea erabaki genuen. Berlusgoñi ezin bukatu zeukan liburua aurrera

ateratzeko asmatutako estrategiak aletzen hasi zitzaigun.

Lehenbizi *Parmako Kartusia*-n sartu nintzen -zioen Berlusgoñik-; gatazkaren kapitulua egoki izan zitekeelako sentipena nuen; egia esan, kasurako narrazio asko izaten ahal zaizkigula egokiak uste dut, baita gure argumentuarekin zeri-kusirik ez badute ere; *Kartusia*-ko gatazkaren kapitulua hartzen bada? Ongi! Nahikoa da kapitulua bere hartan hartu, hitzez hitz hona jaso, eta protagonistak enperadorearen ikusten duen pasartera iristen denean, aldaketa txiki batzuk egin; aldez aurretik onartu behar den konbentzioa da guretzat Napoleon enperadorea ez dela Napoleon, guri interesatzen zaigun pertsona baizik -Harrison gure kasuan baina beste edozein ere izan zitekeen-, eta protagonista ez dela Stendhalek marraztu zigun hura, eta ez dituela *Kartusia*-n dituen interes eta nahiak, guk ezarri nahi dizkiogunak baizik: kasu honetan, enperadorea jakinaren gainean jartzea. Bestalde, Napoleon, Napoleon pertsonaia historikoa izateak, bere garrantzia du *Kartusia*-n, noski; baina gure liburuan horrek ez du inolako garrantzirik; izan

ere, guri, *Kartusia*-tik, hitzak interesatzen zaizki-
gu, ez hitzen ingurukorik, ez testuingururik. Hitz
horiek bere horretan, ukituren bat han eta
hemen, eta nahikoa da. Testuingurua, gure libu-
ruan, geuk ezarri dugu. Horra egiten ari garen li-
bururako nahi dudan originaltasun gorena, eta
aldi berean, litekeen originaltasun bakarra. Bon,
hau guztia onarturik, honelako zer edo zer ge-
neukake (frantsesez, noski):

*Gaur sable-ukaldi latzak emango dira; gehie-
gi zuretzat, bizarguri hori! -esan zidan norbaitek.
Frantziako Armadako kantiniersa bat zen.*

*Ez genion elkarri aditzen, kanoiaren hotsa,
hurbilduz bezala, aldizka gure berbetan sartzen
baitzen; ni asaldatua nintzen, oso, zorionak one-
tik aterea, nonbait, eta solasari berriro ekiten
hasia.*

*Jakina. Erraz ulertzen da: Husarren 4.eko ka-
pitain baten emaztearen maiteminez ari den he-
rritarra zara. Zu ez zara soldadu.*

*Konforme nintzen egokitu zitzaidan papera-
rekin.*

Azken esaldi hau («Konforme nintzen...») nirea da, ez Stendhalena, aitortu zuen Berlusgoñik lotsa pittin batez. Idatzi beste erremediorik ez dut eduki, iruditzen baitzait beharrezkoa dela gure pertsonaiaren (Stendhali maileguan eskatu dioguna gure Bazofias izan dadin) helburu ezku-tuak zeintzuk diren han eta hemen iradokitzea. Bai, aitortzen dut alde horretatik esperimientua ez dela perfektua. Tira, segi dezagun:

Dirurik batere gelditzen bazaizu, eros ezazu beste zaldi bat, arren! Begira zure zamalko argala; belarriak zut-zutak paratzen ditu kanoiaren erlatsa hurbilegi entzuten duenean. Zamari horrekin, formazioan sartu orduko hilik zaude.

Zuhaiztiaren beste aldeko kanoiaren trumoa entzun zen. Kantiniersak aldi berean ironikoa eta siniestroa zen keinua egin zuen.

Zaude lasai, baina, laster izango da erosteko zaldirik, sobra ere!

Borrokatokitik ihes egiten zuen jendeak adierazi zigun batailoia non zegoen. Borrokatu nahi dut, esan nion kantiniersari, nire egiatzko asmoak -alegia, Ministroaren bizia salbatzea- zein-

tzuk ziren esatea niretzat kalte zela iritzirik. Emakumeari esker ez nindutela espioitzat hartuko uste nuen.

Horra, gidoien artekoa, beste inperfekzione bat, ernegatu zen Berlusgoñi; agian ez zen guztiz beharrezkoa, baina irakurlearen mesederako jarri dut; izan ere, beti izan naiz irakurtzeko erraza, idazle naizen aldetik. Eta orain aurrera egingo dugu -esan zuen Berlusgoñik, hasperenka-. Gero dator hilotz bat bidean trabeska aurkitzen duten pasarte; ez dut transkribatuko, Stendhalen prosak merezi duen arren. Begira, bestela; infanteriaren deskargak entzuten dira: «*Euri tanta sarriek latoiaren aurka egiten duten bezalako hotsa*». Kanoikadak: «*Etengabeko baxu-soinuaren itxura hartzen zuten*». «*Erreka baten marmarra bezalako etengabeko baxu-soinua*». Ederra, ezta? Bon, gero zaldia erosten du («*Dexente gehiago ordaindu behar izan nion lotsagabe hari, zaldia ofizial batena izandakoa zelakoan. Poztu nintzen, baina, hanka artean mugitzen zen zaldiaren jabe bainintzen*») eta gatazkaren erdira sartzen da:

Bridaren presioa laxaturik sentitu zuelarik, zaldia lauhazka atera zen, eta jeneralen atzetik zihoan eskoltarekin bat egin zuen. Handik ordu laurden batera aldamenean neukan husarrak esan zituenengatik ulertu nuen jeneral horietako bat Ney Mariskal famatua zela.

Eskolta lauhazka jarri zen; kanalaz harantzagoko lur sail bat zeharkatu zuten. Lur saila hilotzez estalirik zen.

«Kasaka gorriak! Kasaka gorriak!» egiten zuten oihu eskoltako soldaduek. Jakina, lurrean etzanik zeudenak kasaka gorriak ziren. Horietako askotxo bizirik zen oraino. Oihu egiten zuten laguntza eske baina inor ez zen gelditzen dohakabe haiei laguntzarik emateko.

Bat-batean berriz hasi ginen arrapaladan. Handik gutxira modu txit arraroan goldaturiko lur sail bat ikusi nuen nire aurrean, hogeitaurratsedo urrun. Garrasi lehor bat entzun nuen nire ondoan: bi husar erori ziren, kanoiko balek jota. Tira!, egin nuen nire artean, hau da nire su-baitaioa.

Eskolta lauhazka zihoan; ulertu nuen goldaketa arraro haren arrazoia lurra barreiatu eta lau haizetara iraultzen zuten kanoi-balak zirela. Balak zetozen aldera begiratzeagatik ere, bate-riari zerion ke zuria baizik ez nuen ikusten, eta oso urruti; kanoikadek sortzen zuten zurrunga uniforme eta etengabearen erdian, askoz hurbi-lago behar zuten desarratzeak entzuten nituen, edo entzuten nituela iruditzen zitzaidan; ez nuen ja ere konprenitzen.

Nire ondoan on puska itxura zuen sarjentu nagusi bat egokitu zen. Jauna, esan nion, bataila batean sarturik nagoen lehen aldia da. Hau egiazko bataila bat da, ezta?

Hala dirudi, erantzun zidan. Nor zara?

Kapitain baten emaztearen anaia naiz, esan nion, nire egiazko izaera, asmoak, eta, hitz batez, nor nintzen eta zertarako nengoen han ezkutatu behar izatea lehentasunezko gauza iri-tzirik.

Berlusgoñik hasperen egin zuen berriz; bai, hemen, berriz ere, Stendhalen prosa zoragarria -gehiago laburbil nezakeena, bestalde, baina

hain da ederra...- eten behar izan dut ohar bat nire lumatik jartzeko, «nire egiazko izaera, asmoak...» esaten duen hori guztia; nahitaezkoa zen, kapituluak gure liburuan sinesgarritasunik edukiko bazuen. Orain kasu, laster enperadorea agertuko zaigu:

Nola du izena kapitainak?

Damurik, hizkuntzak ez dira inoiz nire puntu indartsua izan. Zer izen frantses esango dut, egin nuen nire artean. Parisko hotel batean izan bainintzen behin, hango harrerako gizonaren izena etorri zitzaidan burura.

Meunier kapitaina!

Sarjentuak, kanoiaren danbadak gorturik, gaizki entzun zuen.

A! Teulier kapitaina? Hil egin dute!

Eskolta behingoz gelditu zen zalditeria-dibisio baten erdian; zaurituak eta hildakoak ugari ziren, baina Mariskalak aginduak eman behar zituen. Handik gertu kantiniersa baten gurditxoak ikusten zen, eta harantz hurreratu nintzen. Bertan ikuskizun nazkagarria neukan zain: izterra mozten ari zitzaizkion korazero gazte, lerden eta

eder bati. Begiak itxi eta lau edalontzi pattar edan nituen, bata bestearen ondoren.

Mariskalak, zalditeria-eskuadra batzuen ondoan gelditurik, aginduak ematen jardun zuen luze. Horietako batzuk aurrera bidali zituen, kargan, baina ni nahikoa horditurik nintzen, eta ez nuen gertakarien gaineko ideia garbirik egiten. Bat-batean sarjentu nagusiak oihu izugarria egin zuen: «Baina ez al duzue Enperadorea ikusten, arraioa!».

Berehala eskoltako guztien eztarritik orro berbera atera zen, ezin ozenago: «Gora Enperadorea!».

Hor zegoen nire gizona. Mozkorrak eragindako modorra ezabatu zitzaidan, eta jakinminez begiratu nuen, baina segizioko dragoiek euren kaskoetatik eskegirik zeramatzaten luma-sorta luzeek aurpegiak ikustea galarazi zidaten. Enperadorea eta sekitoa gu geunden tokitik metro gutxitara gelditu ziren. Nire unea zen.

Hemen ere nire interbentzioa ezinbestekoa zen, argitu zuen Berlusgoñik.

Orduan, galdetu nion ondoko sarjentu nagusiari, hortik igaro dena Enperadorea da?.

Jakina! Kasaka brodaturik ez duena. Ez al duzu ikusi?

Nor zen esan ez eta nor ez zen esanda erantzuteko modu bitxi hori zela-eta, sarjentua baztandarra edo agian baxenabartarra izango zela egin nuen kontu.

Hemen ez dut arestiko apunte etno-antropologiko hau egiteko tentazioa saihesterik izan, jakinarazi zuen Berlusgoñik.

Baina sarjentuaren hitzak nire atzean galdu ziren, ahal nuen azkarren abiatu bainintzen Enperadorea zegoen tokira.

Iritsi nintzenean bi dragoik moztu zidaten Enperadoreaganako bidea. Bidea eskatu nuen. Besteek galarazi, «nor zara»ka. Sarjentua nire atzetik etorria zen eta bidea erraztu zidan. Teulier kapitainaren koinatua da, esan zien.

Handik gutxira enperadorearen aurrean nengoen...

Uste dut kapitulua hemen moztea dela ego-
kiena -azaldu zuen Berlusgoñik-; gure laguna iri-
tsi da enperadorearengana, hots, abisatu beha-
rreko pertsonarengana, hori garbi gelditzen da;
hortik aurrera ez dugu zertan jakinik zer esan
dioten elkarri: elipsia. Elipsi honek nahiko denbo-
ra eskaini beharko luke nahi den informazio guz-
tia trukatzeko, baina, aldi berean informazioa ez
da agerian gelditzen, edonolako izan liteke...
Horrenbestez, uste dut jokaldia nahikoa litzate-
keela Ministroa salbatzeko, eta zure -edo gure-
liburuaren originaltasuna ere.

Baina une hartan jada ez genion Berlusgoñiri
kasurik egiten, beste zerbaitek, askoz ere ga-
rrantzizkoagoak, harrapatzen baitzuen gure
arreta: hiru edo lau gizajale zeramatzan txalupa
bat hurreratzen ari zitzaigun. Eduki duten ezta-
baidaren ondorioak jakinaraztera datoz, esan
zuen gondoleroak, dakienaren aieruaz.

Laster jakin genuen antropofagoen erabakia
zein zen: ez ziguten aurrera egiten utziko zerbait
gehiago ematen ez bagenien. Gondoleroak ha-
mabi apostoluen argazkia eta salakota seinalatu
zituen; gizajaleek onespen keinua egin zuten,

«ekarri, ba» edo esanez. Nik gogor eta tinko eutsi nien nire ondasunei, baina gondoleroak beroriek basati haien eskuetan uztera behartu ninduen; biluzik sentitu nintzen, biluzik edo okerrago: gabeturik, apaldurik, umiliaturik. Horrenbestez, gizajaleek beren jendea zegoen aldera egin zuten berriz.

Berlusgoñik matraka ematen segitzen zuen. Egia esan, zioen, lehengo irtenbideak ez nau asebate. Nire esku hartzea gehiegizkoa iruditu zait. Beste irtenbide dotoreago baten bila hasirik, beste liburu bat, hizkuntza estrainio batean idatziriko liburu ahantzi bat hartu dut (izan ere, hau ez nuen, inondik inora, gorputzean tatua-tua), eta bigarren edo hirugarren orritik irekirik, hau aurkitu dut:

1521an, Maiatzeko egun batez, ximixtaren pare iragaiten da zaldidun bat Iruñako karriketari eta gobernadorearen etxean sartzen. Zaldidunaren ahotik non zer berri den jakin duenean, gobernadoreak xixtu batez ekharrarazten du mutuil bat, mezu batzuk ematen diotza eta erraiten dio:

Ez othoi denborarik gal.

Eta gobernadorea kadera batean jartzen da, ukhondoak mahain baten gainean, eskuak buruari lothuak, buruan mila gogoeta.

Berlusgoñik garailearen espresioa erakusten zuen. Ikusten? Praktikoa, funtzionala, dotorea, laburra, ezinago. Zaldiduna, mezularia, gaztigu-emailea, Bazofias da, noski; gobernadorea da, kasu honetan, heriotzatik salbatu nahi den pertsona; hala gobernadoreak hartu nahi dituen neurriek -mutil bat ekarrarazi, mezu batzuk eman, bizkor ibiltzeko agindua- nola bere izpirituaz jabetu den umoreak -kezka, gogoeta- argi adierazten dute zer den zaldunak ekarri dion mezua: inor bera hil nahian dabilela. Nahikoa litzateke horrenbestez. Gehienez ere, eta orain artekoarekiko lotura (gure liburuarekiko lotura, esan nahi dut) areagotu nahiko balitz, holako esaldi sinpleren bat gaineratzea aski litzateke:

Zaldidun hori neu nintzen.

Gondoleroak eta biok txalotu genuen bere azken aurkikuntza literarioarekin benetan pozik

zirudien Berlusconi, baina egiatan ez genion bati-
tere kasurik egiten; kezka gogorragoak geni-
tuen, nola ziren, esaterako, txalupa barruan eta
gose aurpegiaz zetozen lau gizajale haiek.

Gizajaleen eledunak eta gondoleroak -gizaja-
leen hizkuntza menderatzen zuena- solasean
lotu ziren. Bukatu bezain pronto, gondoleroak
esandakoaren laburpena egin zidan: ez da nahi-
koa; salakota, bai, baina argazkia ez zaie askorik
gustatu. Gauza gehiago nahi dute.

Gizajale haiek aseezinak ziren, alajaina!

Gauza gehiago? Zer, baina? Ez dugu ezer!
Geneukan guztia eman diegu!

Gondoleroak begiak jaitsi zituen eta zera
esan zidan, xuxurla azkar batean: dena konpon-
duko litzateke derbirako sarrera pare batekin.
Hau esanda, gondoleroaren begiak nireetan il-
tzatu ziren. Nik ez dut derbirako sarrerarik,
baina! jakinarazi nion, sutan.

Gure arazoez ezaxola, Berlusconi bere hain-
batgarren esperimendu literarioaz ari zen; ea zer
iruditzen zaizuen beste aukera hau, esaten zuen:

Uscendo dal ristorante, gli venne improvvisamente il pensiero che il capo, subito dopo averlo congedato, si era certamente attaccato al telefono per disporre che lo pedinassero. Elementare, avrebbe dovuto pensarci prima. E sentì di essere nell'occhio di qualcuno, quello sguardo lo impacciava nel passo, lo invischiava. Evitò di fermarsi davanti alle vetrine, anche quando ne era attratto: ch  il fermarsi davanti alle vetrine era tipico di chi teme o sa di essere pedinato. And  a casa, strenuamente resistendo alla tentazione di voltarsi. Pass  un'ora a radersi e a leggiucchiare. Uscendo dall'ascensore vide, oltre la porta a vetri, sull'altro marciapiedi, colui che lo aveva pedinato. Secondo le regole, ora sarebbe stato un altro a seguirlo: lo avrebbe scoperto sull'autobus. E lo scopr , infatti: una furtiva occhiata al capolinea, mentre scendeva.

(Jatetxetik atera zenean burura etorri zitzaion oso litekeena zela, berak alde egin zuenean, nagusiak telefonoa hartu eta jarrai ziezaioten agindua ematea. Noski, nola ez zitzaion lehenago bururatu. Norbaitek ez ziola begirik kentzen sentitu zuen; begirada hark traba egiten zion ibiltzean,

deseroso sentiarazten zuen. Eskaparateak saihestu zituen, erakartzen zutenean ere ez zen aurrean gelditzen: norbait atzetik duela susmatzen duena edo dakiena eskaparateen aurrean gelditzen da, tipikoa da. Etxera iritsi zen, burua bueltatzeko irrikari amore eman gabe. Bizarra egin, gero zerbait irakurri zuen, eta ordubete joan zitzaion. Igogailutik ateratzean, beirazko ateaz beste aldera, aurreko espaloian, atzetik ibili zitzaiona ikusi egin zuen. Erregelei kasu egi-tera, orain beste batek segituko zion: autobusean ikusiko zuen. Halaxe izan zen, autobusean ikusi zuen: begirada iheskor bat ibilbidea bukatzean, autobusetik jaistean).

L'uomo lo seguì fino al cancello esterno. Passò oltre, naturalmente: senza vederlo Rogas poteva contare i suoi passi, disegnare la mappa dei suoi movimenti. Avrebbe fatto un cinquanta metri e sarebbe tornato indietro, ma senza varcare il cancello; poi sarebbe andato in cerca di un telefono, a chiedere il cambio: poi avrebbe aspettato, davanti al cancello, nascondendosi come poteva. Cane mangia cane, pensò. Ma c'è cane e cane.

(Gizonak kanpoko hesiraino jarraitu zion. Gero ondotik pasatu zen, natural: ikusten ez bazuen ere, Rogasek bestearen urratsak kontatzen ahal zituen, egingo zituen mugimenduen mapa osatzen ahal zuen. Berrogeita hamar bat metro egingo zituen, orduan itzuli egingo zen, baina ez zuen hesia zeharkatuko; telefono bat bilatuko zuen, eta txanda aldaketa eskatuko; gero zain egongo zen, hesiaren aurrean; bitartean ahal bezain ongi ezkutatuko zen. Zakurrak zakurrari haginga. Zakurrak eta zakurrak badira, ordea.).

Nella gabbia a vetri al centro dell'atrio, per effetto di luce il portiere sembrò uno squalo che si avventasse contro la parete dell'acquario. Lo riconobbe. Levò verso di lui due dita: secondo piano.

(Ezkaratz erdian kristalezko kabinatxoa baze-goen; argiaren eraginez, atezainak akuarioko paretaren aurka oldartzen den marrazoa irudi zuen. Atezainak ezagutu zuen. Esku bateko bi hatz jaso zituen: bigarren pisua.).

Al secondo piano, una delle quattro porte si aprì mentre Rogas usciva dall'ascensore. Un cameriere in giacca di rigatino, certo un agente di

polizia (o un ex agente, per l'età che dimostrava), silenziosamente lo introdusse in uno studio spazioso e ordinato. In fondo, in una poltrona d'angolo, dietro un'azzurrina nebbia di fumo, stava il presidente. Disse "Venga" e quando Rogas gli fu vicino, indicando una poltrona "Si accomodi".

(Bigarren pisan, Rogas igogailutik atera zenean lau ateetako bat ireki zen. Kotoi arraiatuzko jaka zeraman otseinak (polizia, zalantzarikgabe, edo, adina kontuan hartuta, agian polizia ohia) liburutegi handi eta ordenatu batera sarrazazi zuen. Hondoan, besaulki belarridunean jarriarik, kezko laino urdinkararen atzean, lehendakaria zegoen. "Erdu" esan zuen, eta Rogas bere ondoraino iritsi zenean, besaulki bat seinalatuz, "Eseri").

Rogas salutò, sedette. Il presidente lo sguardò, al disopra delle lenti, pungente e astioso. Due volte tirò dal sigaro, sbuffando il fumo verso una striscia di sole che lo dispiegava come un velo. Poi lentamente, con disprezzo, invulnerabile e immortale di fronte al piccolo, vulnerabi-

le e mortale filisteo, disse "Lei, dunque, crede che mi ammazzeranno".

(Rogas diosal egin eta eseri zen. Lehendakariak betaurrekoen gaintetik arakatu zuen, zorrotz eta sumin. Bi sakada egin zizkion zigarroari, eta kea eguzkiaren printza-sorta baterantz bota zuen bafada batez. Printza-sortak kea zabaldu zuen, belo bat bailitzan. Gero, poliki, erdeinuz, zaurigaitz eta hilezkor filisteo txiki, zaurigarri eta hilkorren aurrean, esan zuen "Beraz, zuk uste duzu hil egingo nautela").

"Credo che tenteranno".

("Saiatu egingo direla uste dut").

Bon, -Berlusgoñi zen, ostera ere-, honekin epaileen Lehendakariak nire hitzerdiak ulertzen dituelakoa egiten badu, nahikoa da, nahikoa behar du. Orain bai, orain nire helburua lortuta dagoke, *egon behar du*, eta Enperadorea-Gobernadorea-Epailea-Harrison -eta munduko, erreal deitzen duguneko bezala fikziozko, mehatxatu guztiak- abisatuta zeuden: erdietsi dut nire helburua, gezurrak kontatzen dituzten liburuez baliatuz gezurrak kontatzen dituzten liburuak en-

gainatzeko. Liburuari bukaera eder bat baizik ez zaio falta. Berlusgoñi irribarretsu zegoen.

Gu, aldiz, ez geunden finezia intelektualetarako; antropofagoak guregana zetozen matxeteak euren zorrotik aterata. Derbirako sarrerak-gero eta asaldatuago mintzatzen zen gondole-roa, gero eta ozenago-, derbirako sarrerak edo gureak egin dik!

Gizajale haien bisaje basatiak eta hagin zorrotzak ikustea nahikoa irudikatzeko hurrengo eszenak nolakoak izango ziren: beren txalupek inguratuko gintuzten, ausartenek abordatuko zuten gurea, matxetea eskuan; aztiak, edo denen buruak edo bi gauzak batera zenak buruak moztuko zizkigun; gure gondolaren behe aldea odol gorritz tindatuko zen; laster ziren euren letaginak gure haragi gurietan zorrozki sartzen... Basati haien aho inguruak nire izterretako okela-hari odoltsuez beterik irudikatzeak beste edozerk baino indar handiago hartu zuen nire baitan. Etsipenaren goren unean, bi paper luzanga atera nituen poltsikotik eta airean astindu nituen. Bai, inori esan gabe niretzat gorde nahi nituen azken bi derbirako sarrerak ziren.

Bi paper zatiok eragin mirakuluzkoa eduki zuten; salbajeek beren jarrera erasokorra bertan behera utzi eta bozkariozko alarauak bota zituzten, matxeteak beren zorroetan gordetzen zituzten bitartean. Jainkoarren, zioen nire aldamenetik gondoleroak, azken unera arte itxoitea ere!

Laster genuen libre Mitxoleta zegoen oihan aldera eraman behar gintuen ibaia.

Iratzarri nintzenean dinosauroa han zegoen oraindik... zera, esan nahi dudana da iratzarri nintzenean egoera oso bestelakoa zela, hagitz makurragoa; hau da, ni nintzen gondolaren atzean zetzana, esku loturik, eta Berlusgoñik, gondoleroa aldamenean zuela, zaintzen ninduen, Balzacen obrak gordetzen zituen poltsa izugarria aldamenean.

Zer uste zenuen, memelo horrek!, esan zidan Berlusgoñik, erdeinuz. Oihan honetan denok ezagutzen dugu elkar. Gondoleroa nire koinatua da! -gondoleroak hitz hauek berretsi zituen, ahaidetasunezko graduari garrantzia kendu nahi zion keinua eginez-. Gustatzen zaizu Balzac?

O, ez, arren, esan nion, ikusirik ahal zuen ankerkeria guztia nire gorputz ahulean, nire buruan zehazki, erabiltzeko prest zegoela. Ez niri kolperik eman buruan, ikaslea naiz-eta! erregutu nuen, garai batean esaten zena gogoratuz.

Baina ordurako gondola hartan ez zegoen Berlusgoñi beste kapitainik, eta kapitainak bes-

telako planak zeuzkan niretzat. Eutsi egingo diot egin dugun tratuari -esan zidan-; Mitxoletarengana eramango zaitut eta ordubete berarekin utziko; baina orain beste baldintza bat gehiago bete beharko duzu. Nire liburua zegoen puntuan hartu eta bukatu beharko duzu!

O, ez, arren! oihukatu nuen.

Bai! -ostera Berlusgoñik- Uste al duzu ez naitzela konturatu nik, nire arazo literario guztiak aletu dizkizudanean, zuk ez zenidala batere kasurik egiten? Uste al duzu inoren gustukoa dela jaramon egiten ez duen entzulego bati mintzatzeari?

Baina, arren! -kexatu nintzen- Hori ez da egia, inondik inora! Zure azalpen guztiak entzun ditut, erne-erne!

Hitz hauek esanda nire heriotza epaia sinatu nuen; a, bai!? Orduan orain daukazu hori frogatzeko aukera ezin hobea!

Abentura hau hasi zenean, unerik ilun eta ezkorrenean ere ez nuen pentsatu gauzak hain latz egotera irits litezkeenik, iritsiko zirenik.

Baina, zertarako liburua bukatu? -nire azken saioa zen-. Inori ez zaizkio liburuak interesatzen,

gaur egun! Jardun alferrekoa eta modaz pasea da! Arren! Ni kanon literario bat bilatzen ari naiz, besterik ez! Ez iezadazu denbora galaraz!

Denborarekin eskertuko didazu orain gogor egin izana, esan zuen Berlusgoñik, larderiaz, Balzacen poltsa goratu eta ematekoa eginez.

Balzacek kendu zizkidan gelditzen zitzaizkidan azken zalantzak. Papera eta boligrafoa eskatu, gondola ibai ertzean geldi zezaten erregutu, eta Aita Zaindarien artean egondakoan ikasitakoa praktikan jartzea beste erremediorik ez nuela etsirik, lanerako prestatu nintzen, baldintza literario bakar bat ezarriz: konforme, baina nire bukaerak ez du *happy end*-ik edukiko.

Hemen kontatzea merezi ez duen ahalegin eta ordu askoren fruitu, honako hauxe idatzinuen Berlusgoñi ero haren liburuari bukaera emateko, eta argi eta garbi esan behar dut ahalegina egin banuen, azken-azkenean Mitxoletarekin bildu ahal izateko egin nuela, beste helbururik ez nuela.

Le Pétit Cochon *behiala* Les Halles zeuden *inguruko* kalexka batean zegoen.

Iritsi nintzenean, gizon bat, nire zain zegoen gizona, hain zuzen, hezurgabeturiko zerri-hanakak foiez beteak jaten ari zen, Sauternes botilaren laguntzarekin.

Nire zain zegoen gizon hori P.P. Carbayo zen. Ez zegoen hilik. Aitzitik, ongi bizirik, ongi osorik eta pioletaren arrastorik gabe. Eta, nola jaten zuen kontuan hartzera, gose hamikatuaz.

Ez ninduen gehiegi harritu. Egia esan, pentsatzen hasiz gero, halako zer edo zer espero izatekoa zen.

Ironia zerion -baita listuarekin nahasiriko zerriki puska ia ikusezinak ere-, esan zuelarik: bizirik nagoela eta, ez zara irudikatzen ariko, menturaz, Denboraren forma ezkutu bat, zeinean posibilitate guztiak aldi berean betetzen diren; paralelo doazen, gurutzatzen diren, elkarrengandik bereizten diren edo elkarretaratzen diren denboren serie infinitu bat?

Ahoan zuena erabat irentsi, eta sardexka beste ahamen batez kargatu zuen. Oraingoan ez zuen zerriki-puskarik jaurti, errezitatu zuelarik:

Horietako denbora batean, zu zaude, baina ni ez; beste batean, ni bai, eta ez zu; beste batean biak, baina zu hilik zaude; beste batean, ordea, neu naiz hilik datzana; baina guzti-guztietan, zerri-hanka hauek izugarri goxo daude.

Utikan! -esan nion-. Hori Bitan banatuz doazen bidexken jardina da. Ez ditzagun gauzak nahas. Hemen dagoen bakarra da ez zinela hil, Pioletadun Hiltzaileak ez zintuela hil, eta dena simulazio bat izan zela: eszena itxura hutsa izan zen, gorpua itxura, dena itxura. Ez ditzagun gauzak nahas. Hemen ez dago metafisikarik. Hori beste nobela bati dagokio.

Bai? Euskaraz idazten ari zaren nobelari, menturaz? -ironizatu zuen-. Oso ona, oso ona Ministroari abisua ematearen kontura antolatu duzun engainu hori... Gutxik egin du ez duzuela lortu zuen helburua. Baina ez gehiegi guri koskabiloak ukitu, gero! Goazen. Borgesek ezagutu nahi zaitu.

Gaur egungo baldintzetan, nobela ez zait interesatzen -erantzun nion, Berlusgoñiren amarru literarioari eginiko erreferentzia aintzat hartu gabe, eta Borgesek ni ezagutu nahi izateak sorrarazten zidan emozio bortitza ezkutatur-. Gero bezala, nobela ez zait interesatzen. Nobela hil egin da.

Bai, mende bat da egunero hiltzen dela, egunero zuk bezalako euskaldunek hil dela aldarrikatzen dutela. Baina hilotzak osasun izugarria dauka. Bere heriotzaren zain zeuden gehienei, lur eman zaie, ehorztekoa berriz beti ehorztekotan. Hor dirau, kiratsa dariola, zutik, eta iraunen zain daudenenga-a-a-a-tik.

Bai noski, literatura masiboki kontsumitzen duten ergelak diren bitartean, eta haien gogo sinple eta nahikeria merkeak asetzeko prest dauden zu bezalako mertzenarioak diren bitartean. Merkataritza-kontua da, ez arte-kontua. Nik ere idatziko nuke mordo bat, bai, euskaraz, hobeak gainera, zuk bezainbat irakurle baneuka, diruz ustelduta bizi nahiko banu.

Zuk Traidorearen eta heroiaren gaia izeneko nobela bat idatziko zenuke zezenari adarretatik

heltzeko potrorik bazenu. Euskal Herrian, zerbait baldin baduzue, horixe duzue: traidore, heroi, sator, salatari, azpijoko eta maltzurkeriei buruzko nobelak idazteko material itzela.

Eta nork ederretsiko du gure kausa? Zuk, agian?

Gosekila -berak-.

Karka -nik-.

Burges txiki.

Inperialista.

Fanatiko.

Sikario.

Sasikume.

Zerri.

Irain trukaketa eta gero, biok serio geunden. Serio eta bare. Eta orain, gainera, isil. Bisigu pare ederra ginen; akuariumeko arrainontziko bisigua, eta bisigu horri, arrainontzitik kanpotik, begira dagoen bisigua. Nor zegoen barruan eta nor kanpoan, hori zen eztabaida posible bakarra.

Nik eten nuen isilunea: Goazen, beraz. Non dago Borges?

Zu berarengana eramateko agindua daukat.

Antiojo beltz pare, kapelu, gabardina eta egunkari banarekin atera ginen Le Pétit Cochonetik.

** * **

Gure atzetik etor litekeenik nahasteko joko edo-tarikoak egin eta gero (adibidez, aurrez aurreko kale kantoietan gelditu eta egunkaria irakurtzen ari ginelakoa egin, ordu erdiz), Carbayok seguru jakin zuenean inor ez zetorrela atzetik, edo jarraitzaileak gure arrastoa galdu zuela, auto batean igoarazi eta begiak estali zizkidan.

Autotik jaitsi nintzenean, parke zaharraren aurrean nengoen, sarreran. Talka-autoetako pista abandonatua ikusten zen, sarreratik hurbilan. Pistan, auto bakar bat. Autoaren barruan, gizona baten irudia. Hor daukazu Borges, esan zidan Carbayok. Hemen bukatu da nire lana. Agur.

Beraz, iritsia zitzaidan Borges terrorista izugarrien burua, munduan kondenatu ororen defendatzailea ezagutzeko unea. Beraz, azkenean jakin ahalko nuen nor zen Borges delako hura,

benetan, nahiz eta kontuz ibili behar nuen, zeren, Harrisoni abisua ematen saiatu eta gero, agian akabatu nahiko baininduen.

Hurbildu ahala, auto barruko irudiak, pertsonak, bere antiojo beltz pareak, bere kapelua, bere gabardina eta bere egunkaria zituela ikusi nuen. Pixka bat gehiago hurbiltzean, irudia ezagun egingen zitzaidala konturatu nintzen. Laster jakingo nuen Borges, benetan, nor zen.

Hiru metrora hurbildu nintzenean, ez nuen zalantzarik. ...!! Zu!! Zu, Borges!! egin nuen oihu.

Borges zen... Jules Tribuno, Agentzia Dermo-estetikoko nire ugazaba!

Halakorik! Bera bezalako gizon justu bat, bitziza oso bat krimenaren aurkako borrokan pasatutakoa, Borges!!??

Tribunok kapelua eta antiojoak kendu zituen. Aise irakurri bide zuen burutik pasatzen ari zitzaidana, eta esan: Eeeez -niri azalpenak emateak sekulako eramana eskatuko lukeen zerbait zela iradokiz-, eeez, Bazofias, ez, ni ez nauk Borges. Nik Borgesengana eramane behar haut. Hau segurtasuna bermatzeko ezartzen dugun kontrol

bat baino ez duk, galbahe bat. Baina, aprobetxatu egingo diat. Hik ez al huen kasu bat argitu behar, Mendizalearena, hain zuzen?

Nagusiak beti nagusi. Argitu ez nuen beste kasu horregatik kontu eske, oraingoan. Zertan egin nuen huts, zer nolako alferra nintzen, zenbat diru errearazten nion Agentziari ezerezen truke, nork agintzen zidan behar ez nuen tokian sudurra sartzea, hala segituz gero kasutik apartatu ez ezik, espioi-karneta ere kenaraziko zidala... Alegia, generoaren topikoaren arabera, iker-tzaile heterodoxoari esaten zaizkion guztiak aletu zizkidan, haserre plantan.

Eskua altxatu nuen, isil zedin eskatzeko. Isildu zenean, aldarrikapen solemne bat egin nuen: badakit nor den Mendizalea, edo, bestizenez, Pioletadun Hiltzailea.

Tribunok bizitzan gezur asko entzundakoa zela adierazi nahi zuen keinua egin zuen, galde-tu zuelarik, Bai? Nor?

Popescu Popafrescu!!

Hatzak erabili nituen arrazoiak zenbatzeko: bat, adin ertaineko gizon indartsua zen, ez altuegia ez baxuegia zena. Bi, bera zen «hiltzailea

ikusia» zuen bakarria. Nola ez zuen ikusiko ba, bera zen eta!? Hiru, arrazoia, zioa, hilketa-eragingarria: idazle bat garbitu zuen bere arrakastaren bekaitz zegoelako, eta gainerakoak iker-tzaileen lana nahasteko...

Tribuno ez zen ja ere sinesten ari, bistan zen. Gauzak okerrago jartzen ari nintzela iritzirik, isildu egin nintzen.

Eta Carbayorena? Zertara dator Carbayoren gezurrezko heriotza? Nola arrazoi dezakek horrelakorik?

Carbayoren heriotza gezurrezkoa zela segituan atzeman nuen, erantzun nuen bizkor, eta esan orduko mihian kosk egin nuen, hain bizkor, hain arin erantzun izanaz damaturik.

A, bai? jakin nahi izan zuen Tribunok, interesaturik. Zergatik atzeman huen, bada?

Aho barruko porruak ezpaineekin osatzen zuen angelua ez zelako batere naturala, horra zergatik, esan nuen. Ustezko hilotzari aho barruan sartu zioten porruaz ari nintzen, jakina.

Dedukzio interesgarria, esan zuen Tribunok, nire bizkortasunak laketurik, antza. Hala ere, datuak zeuzkaagu susmatzeko Mendizaleak, egia-

tan, asmoak eduki zituela Carbayo akabatzeke; zehatzago esateko, Mendizalea Carbayoren gelara hurbildu huen, pioleta eskuan. Mendizalearentzat kalte, justu une hartan Carbayo bere pantomima prestatzen ari huen. Noski, eszena prestatzeko laguntza behar zuenez, ez zegoan bakarrik, eta horrek atzerarazi zian Mendizalea...

Hori Tribunoren farol bat zela ulertu nuen; zeren, egia izatera, horrek esan nahi baitzuen bazekiela Mendizalea nor zen; eta, baldin bazekien, zergatik ez zion eskua eransten? Hortaz, tonto-aurpegia jarri nuen, eta baietz egin nuen buruaz.

Orain goazemak Borgesengana, esan zuen Tribunok. Ustekabe ederra hartuko duk.

** * **

Karrusel abandonaturiko zaldiko baten gainean zegoen. Tribunok adin ertaineko gizon indartsu baina ez baxuegi eta ez altuegi baten irudia ikusteko moduan utzi ninduenean, bizkarrez baizik ezin izan nuen ikusi. Bere gabardina, bere kape-lua, antiojo beltzak eta egunkaria zituen. Hala

ere, bazegoen zerbait ezagun irudi hartan. Ongi ebakiriko jantzia zeraman soinean.

Sumatu ninduenean niregana itzuli zen. Gabbardina, antiojoak, kapelua kendu zituen; egunkaria «Furia» deitzen zen zaldiko baten gainean utzi zuen. Maskara azpian zeraman ongi ebakiriko Armaniren jantziaren xehetasunak ikusteko moduan gelditu ziren.

Hotzikara batek astindu ninduen egunkarietako argazkiez, sare telematikoen iragarki kuantikoez baizik ezagutzen ez, baina horrelakoetan mila bider ikusita nuen gizon hura, nire aurrean eduki nuenean.

Bat-batean Borgesek eragindako azken biktimak etorri zitzaizkidan burura: Tukumango Apezpikua, boterean zegoen alderdiko kargu publikoak, kozineroak, joteroak, kritikariak, enpresariak, epaileak, unibertsitateko irakasleak... Agonia latz baten moduan ikusi nituen denon hondakin odoltsuak nire irudimenean. Hunkidurak inarrosi zizkidan barrenak.

Zu zara Borges!!!?? atera zitzaidan, oihuz.

Besteak irribarre amultsu bat egin zidan. Bai, baieztatu zuen, ni naiz Borges.

Borges Harry Harrison berbera zen, Barne ministroa, horixe.

Beraz, Harry Harrison, ordenaren defendatzaile porrokatua, bakearen txapelduna, gizartea zafratzen zuen terrorismoaren aurkako borrokalaria, traidorea zen. Terroristen burua, zehatzago esateko. Zin egin nion neure buruari ez nuela gupidarik izango nire aurrean zegoen kanpoeder UVA izpiek beltzaranduriko manikuratik pasatako -gainera jendaurreko predikuak prestatuko zizkioten, seguru- eta medikuen kontrolpean hartutako droga sintetikoei esker tragorik latzenak zutik eta irribarrez iragandako putakume hartaz.

Traidore bat zara, Borges. Ahoz defenditzen zenituenak traizionatu dituzu ekintzaz, jardunaz.

Harrisonnek irribarre egiteari utzi zion, eta gogor mintzatu zen, baxutik eta amorrurik gabe, itxuraz, baina gogor: ni traidorea? Zuk uste, benetan, hain erraz esan dezakezula traidorea naizela?; aitzitik, heroi bat naizela pentsatu behar-ko zenuke, Estatuaren eta Sistemaren etsaien le-rruetan satortu bainaiz, bizitza bera ere arris-

kuan jarriz, gure gizartearen baloreak defenditzeko.

Eta Tukumango Apezpikua?, oldartu nintzaion. Eta gizarte bakea? Eta pozoindu zenituen zure alderdikideak? Eta zure aginduz garbitu dituzten bankariak, epaileak, joteroak, politikariak, doktoregaiak, kazetariak, bekadunak, entziklopedia-saltzaileak... Horiek ez al ziren Ministroa zaren aldetik defenditzen dituzun gizartearen eta baloreen zati? Ez al da zure erantzukizun gorenaren, zure ardura nagusia, zure zinpeko eginkizuna, horien bizia errespetatzea ez ezik, euren bizia salbatzen saiatzea indar, kalipu, kemen eta adimen guztiarekin? Ez al dituzu zure zin sako-nenak traizionatu? Traidorea zara, Borges, Harrison edo zarena zarelako hori!

Ministroa ongi kalkulaturiko tonu aseptikoaz mintzatu zen oraingoan, ondorengo hau esateko: Zoritxarrez, gauzak ez dira hain erabaki errazak. Analisi sinple hori ongi dago jende arruntarentzat, baina zu, Bazofias, sinplekerietatik harantzago zaude. Traidorea, heroia, arketipoak dira, benetan sekula izan ez den mundu ideal bati dagozkion kategoriak. Hemen heroia dena

han traidorea da, eta alderantziz. Are, gaur heroia dena bihar traidorea da, eta alderantziz. Ez dago heroirik ez dagoelako nonahi eta noiznahi erabat justu den kausarik. Eta horregatik bera-gatik, ez dago traidorerik... Onenean ere, une iheskor batean heroikotzat edo traiziotzat jotzen dugun ekintza bat dago. Benetan, ez dago epai moral erabatekorik ezartzerik, eta hori saltsan, jardunean gauden guztiok dakiguna da. Alabaina, bada, edo izan daiteke, bederen, sentimendu moral bihotz-eragingarri horren manipulazioa, aldebatasun arketipiko horri probetxua ateratzeko. Gure aldetiko maneiatzea, eta, hortaz, gure aldeko probetxua, noski. Jakina, inork, plaza zabalean, manipulazio hau leporatuko balit, nik ukatu egingo nuke hala denik. Hori bai dela nire eginkizunetako bat. Haiek horretarako ordaintzen didate.

Ez dago heroirik, ez traidorerik...Orduan, zer dago? Eta nortzuk dira haiek?

Karrusela hainbat motiborekin zegoen apainduta: Egiptoko piramideak, Partenoia, Erromako Koliseoa, Reimsko Katedrala, Brandenburgeko atea, Big Ben, Eiffel dorrea, Empire State... Mi-

nistroak erakutsi zituen, esku zabalarekin semi-zirkulu bat eratuz.

Dagoena da milurte askotako zibilizazioa, asmatu den onena, izan litekeen artean onena, eta inoiz bukatzen ez den gerra; eta bata zein bestearen kudeatzaileak. Ministro bat, esaterako, kudeatzaile hauen zerbitzuko funtzionario bat baizik ez da, azken finean. Funtzionarioak gauzek funtziona dezaten lortu behar du, hori bada bere beste eginkizunetako bat. Ministroak sistemaren interesak, negozioak, aferak, asuntokak, kudeatu behar ditu, hori da bere beste eginkizunetako bat. Ministroak Estatu arrazoia zaindu behar du. Ministroa engranajearen torloju xumea baizik ez da. Eta, eginkizun horietako baten barruan, Borges izan dadila agintzen bazaio, engranajeak behar duen olio-tanta Ministroa Borges izatea bada, Ministroa Borges izango da, zalantza izpirik gabe izan ere -orain Ministroak erdeinutik hurbil zegoen tonuaz hitz egiten zuen-. Nor zara zu nire erantzukizunak zeintzuk diren gogorarazteko?

Beharrezkoa al zen hil duzun jende guztia hiltzea? Zergatik?

Gutziz, erabat, zeharo beharrezkoa zen. Zergatik, ez dakit. Imajina dezaket, baina nire analisiak oso hego laburrekoak dira, egia esan, eta hortaz, ez dakit zuzenak diren. Nik arrazoi batzuk uler ditzaket, besterik ez. Puzzle handi baten pieza gara, eta Ministro xume batek dozena erdi pieza baizik ez ditu ikusten ahal. Nire logikak men egiten dio Gurrpil Handiaren logikari, baina biak -nire logika eta Gurrpil Handiarena, alegia-, ez dira bat eta bera. Beharrezkoa izateari dagokionez, bai, guztiz beharrezkoa zen guk hil ditugunak hiltzea. Argi eta garbi adierazi zitzaidan puntu hori -bere funtzionario izaerak guztiz bereturik zeukan Ministroa, azken hau azaldu zuelarik-.

Eta nork eman zuen agindua? jakin nahi izan nuen.

Heriotzak fisikoki eragin zituzten terroristei, nik neuk, noski, bitartekarien bidez. Niri, Estatu Arrazoiak. Engranajeak. Gurrpil Handiak. Maestre Nagusiak. Nahi duzun bezala deitu. Ni morroi xume bat baizik ez naiz, desenkusatu zen. Eta gainera, nondik nora halako harridura? Ez al dituzu Aita Zaindarien mintzaldiak entzun? Jara-

mon gehiago egin bazeneza! Apunte guztietan dator! Dagoeneko garbi zegoen nik izan behar nuela Borges!

Zomorroide horrek negargura ematen zuen. Eta zer gertatuko da zure logika Engranajearen logikarekin bat ez datorren egunean?, atera zitzaidan. Zer, Gurpil Handiak zure heriotza erabakitzen badu? Ez zara beldur?

Bon, hori ere litekeena da, esan zuen, patxadaz, ongi kalkulaturiko arrisku baten gainean hitz egiten denean bezala. Probabilitate kontua da. Bihotzekoak jota, edo errepidean, edo minbiziaz hiltzeko dauzkadan probabilitateak zenbat diren kontuan hartuta, portzentajea igotzen laguntzen duen beste faktore bat baizik ez da; eta ez handiena, ez du portzentajea hainbeste igorazten, jasangarria da.

Baina Harry Harrisonen solasaldi bakarrean eman zitzakeen ustekabeak ez ziren horretan gelditu. Halako batean, eskolakide bihurri baten antzera hasi zitzaidan: Zer, esan zidan, zer moduz egon naiz? Gizona, gizona!, esan nuen, nola zer moduz egon zaren!? Zertaz ari zara?

Ministroa hustu egin zen, puxika orratzarekin ziztutzen denean bezala.

Zera... -hasi zen-, zer moduz egon naizen Borgesena egiten. Horixe zen nire galderaren zentzua. Egunen batean Borges izango naiz, badakit. Beno, Borges ez, baina bai Borges bezalako. Badakit, bai horixe.

Ministroak apaizaren aurrean aitorpen latza egiten duenaren moduan bukatu zuen:

Ni ere ez naiz Borges. Etorri, orain bai, orain egiazko Borges bakarrarengana eramango zaitut.

Eta hau esanda, guregandik ehun bat metro-tara zegoen noria zaharrerantz zuzendu zuen hatza.

** * **

Harrisonek noria-gelaxkako atea ireki zidan, buruaz sartzeko gonbita eginez, eta desagertu egin zen. Gelaxka barruan norbait zegoen.

Taigher zen, Mendizale edo Pioletadun Hiltzailearen bila ibili nintzenean, mendizaleen artean ezagutu nuen hura, gero Patagoniara edo

Ipar Polora espedizio zientifiko batean joan omen zena. «El Himalaya es la risa del dios Shiva» esatea gustuko zuena. Horixe bera.

Begi batez zuzenean begiratzen zidan, bizi; besteaz ez zuen inora begiratzen; bestea estrabikoa zen, edo hilik zegoen. Edonora begiratzen zuelarik ere, ironia zerien, bai biziari, baita hilari ere.

Lehen ikusi nuenean baina askoz zaharragoa zela iruditu zitzaidan.

Ordura arteko guztiez ez bezala, ohiko espioi-uniformea ez eta lihozko atorra eta praka zuriak janzten zituen. Burua panamá batez estaltzen zuen. Palisandrozko giderra zuen makila baten gainean bermatzen zuen kokotsa.

Orduan, zu zara Borges, esan nion, bide bukaeran nengoela jakitun.

Taigherrek hasperen egin zuen.

Bai... -esan zuen-.

Isilaldi luze samar bat.

...Eta ez -bukatu zuen-.

Beste isilaldi luze samar bat.

Alegia, gauza ematen duena baino korapilatsuagoa da, segitu zuen, nekatu antzean edo.

Alde batetik, esan liteke ni Borges naizela. Baina beste aldetik, ez daiteke horrelakorik esan. Esan dezagun ni naizela Borgesek duen, eduki dezakeen giza itxurarik behinena, gutxi gorabeherakoena.

Borges ez dela existitzen adierazi nahi duzu? moztu nion.

Ez. Bai. Ez eta bai. Hau da, ez, ez da existitzen, zentzu konbentzional batean. Bai, noski, errealitatea modu batez edo bestez moldatzeko balio duen tresna eraginkor gisa.

Irri egin zuen nire barneko nahasmendua atzemango bailuen.

Borges aspaldi hil zen, esan zuen, jostari.

Gorrotatu nituen bere begi estrabikoen inguruko zimurrak, irri izendatzeko laburregi zen kokoriko moduko bat egin zuelarik. Zergatik egon behar nuen honelako sasikumeen menpe, beti?

Azalpen bat merezi duzu, esan zuen. Borges aspaldi hil zen. Hil egin genuen, dena esatera. Baina Borges, hil genuenean, garrantzi oso txiki-ko terroristatxo bizarguri bat baizik ez zen, ekin-tza kaskar batzuk egindakoa, txoriburu bat. Inor ez zen hil genuela jakitera iritsi; ez polizia, ez ka-

zetariak, ez bere burkideak... Orduan pentsatu genuen etekina ateratzen ahal geniola kasik halabeharrez gertatu zen hilketa hari. Hasi gintzaizkion ekintzak, gero eta zailagoak, gero eta ausartagoak, leporatzen. Nortasun bat asmatu genion, eta toki guztietan zabaldu genuen: enpresari eta bankarien artean, militarren kuarteletan, polizien komisarietan, politikoen bulegoetan, telebista eta irratietako tertulietan, aldizkari arrosetan... Une jakin batean, beharrezkoa iritzirik, egiazko Borges ñimiñoa izan zenaren paper hanpatua egingo zuen aktore bat paratu genuen, eta handik aurrera, Borges ez zen jada bakarrik iritzi publikoaren aurrean baizik bizi ez zen terrorista famatu eta beldurgarri bat. Mamua izateari utzi eta errealitate fisikoa hartu zuen. Terroristen militanteen begien aurrean ere izugarrizko heroi agertu zen. Pentsa, nahi zue-nean, inpunitate osoz, nahi zuen tokian agertzen zen elementu bat, nahi beste bitarteko erabiltzen zuena, nahi zuena egitea bazuena... Esan beharrik ez dago geuk egiten genituela gero Borges izenean erreibindikatzen ziren ekintzak. Geu ginen Borges azpiegitura, laguntza logis-

tikoa eta militantzia. Borges fisikoa bera -hau da, aktorea-, benetan, haragizko, agertzea behar-beharrezkoa zenean baizik ez genuen erabiltzen, eta gure erabateko babesa zuen... Hori horrela, nork harrapatuko zuen, bada? Borges, bere jendearen begietara, heroia zen guztiahal-duna zelako, Robin Hood bezala. Egiatzko militanten gainerako taldeek ez zioten aurrea hartzen ahal, urrutitik ere, ez atentatu-zenbatekoan, ez eraginkortasunean... Denbora aurrera ahala, terroristen egiatzko militantziak begirune itsu eta erabateko mendekotasuna zion. Borges guztiz ezinbesteko bihurtu zen gure egitekoetan, gure jardun-moduetan. Beraz, Borges fikzioa da -eta, alde horretatik, ez da existitzen-, baina fikzio ezin eraginkorragoa da, gizartearen norabideak markatzeko tresna izugarria -eta, beste alde horretatik, guztiz erreala da-. Borges terrorista bir-tual bat da. Ulertzen duzu orain?

Tipoa gu, gu, gu... guka ari zen etengabe. Hurrengo galdera berez etorri zitzaidan: Baina, nor-tzuk zarete zuek? Eta bakea? Zer gertatzen da bakearekin? Ez al dezakezue ordaindu beharreko

odol-zerga arindu? Zenbat gehiago hil beharko dituzue?

Taigherrek espresio flematikoa hartu zuen.

Gu nor garen erantzutea ez da erraza... Oraindik ez baduzu ulertu gu nor garen, ez dakit honezkero, nik edozein azalpen emanik ere, ulertuko zenuen. Bakeaz eta odolaz diozunaz, zer nahi duzu erantzutea? Populuak odolaren hizkuntza baizik ez du ulertzen. Odol-zerga, zuk esaten duzun bezala, ahalik eta txikien izan dadin ahalegintzen gara, sinets dezakezu... Baina ordaindu beharreko kostuak hor daude. Harrisionek ere azaldu dizu: dagoena da sekula amaitzen ez den gerra. Gerran gaude. Beti egon gara gerran, orain ere gerran gaude, eta aurrerakoan ere gerran izango gara.

Baina nor zarete zuek? galdetu nuen ostera.

Taigherrek irribarre sardonikoa eskaini zidan.

Gizartea gero eta esklerotizatuago dagoen organismo bat bezalakoa da. Nahiago baduzu, globalizatuagoa, batzuei esatea gustatzen zaien bezala esateagatik. Behiala izan zen denbora bat, zeinean ehun malguak baitzituen, gorputz zalu eta bizkorra baitzen. Baina mendeak eta

mendeak geroago, esklerosiak gero eta joago dago, eta jada ia dena zurrun eta elkor da... Esklerosiak, gorputz batean, mugimenduak eragozten ditu, gero eta gehiago. Esklerosiak jota-koa gero eta gutxiago mugitzen da, gero eta mugatuagoak dauzka aukerak, gero eta ahalegin handiagoa egin behar du mugimendu txiki bat baizik ez bada ere egiteko. Hori horrela, zuhur jokatatu behar du, ongi aukeratu behar du zer mugimendu egingo duen, indarra alferrik ez galtzeko, lehentasun batzuk finkatu behar ditu... Bada, esan dezagun gu lehentasun horiek finkatzen ditugunak garela -une batez pentsakor geldituzen-. Begira, dagoeneko ulertu behar zenuenez, niri, liburu honetan, maila poetikoa dagokit. Jende arruntak mespretxatzen du poesia, ulertu ezinik errealitatearen maila poetikoa dela beneratan interesgarria den bakarra... Eta ez, gainera, interesgarri alderdi metafisiko batetik, guztiz alderdi ukigarri eta material batetik baizik. Traidore eta heroiaeren tradizio literarioa burlatu nahi izan duzue, ezta? Beraz, tradizio literario hori ezagutzen duzue. Tradizio horren parte diren Yeats-en bertso batzuk gogoraraziko dizkizut,

badaezpada: «Horrela, Urte Platonikoak / berria eta justua daramatza, eta okerra / eta berriz antzinakoa ekarri / Gizon guztiek dantza egiten dute / gong baten zarata basatiaren erritmoan». Urte Platonikoak, denborak alegia, dena darama berarekin: on den guztia bezala, txar den guztia ere. Ongia eta gaizkia etengabe errepikatzen dira. Eta gizakiak, gizateriak, pertsonak, bizi beharra dauka, dantza egitea baino ez dauka. Gong basati baten erritmoan. Poetikoki eta zehatz esateko, gu gara gong hori jotzen dugunok.

Hiltzaileak, horixe da zaretenak, hiltzaileak!
Jainkouste ustelak! oldartu nintzaion.

Taigherrek erdeinuz egin zidan so.

Arrunkeriak! Gu gara non, noiz eta zenbat hil behar diren erabakitzen dugunak, hau da, gerra honetan ordena pixka bat jartzen dugunak. Imajina dezakezu zer izan litekeen batere kontrolik gabeko gerrarik? Batzuetan, ez ahaztu, beharrezkoa izaten da batzuk hiltzea beste batzuk bizi ahal izan daitezen. Guk nork hil behar duen eta aberastasuna nola partituko den erabakitzen dugu. Garai batean gizonak libre zelako ilusioa eduki zuen; bai, uste zuen libre zuela harat-

honat ibiltzea, nahi zuen tokian nahi zuen asmo, obra, lan, martxan jartzeko eskubidea zuela amestu zuen; amestu zuen pertsona guztiak berdinak zirela eta «demokrazia» deitzen zuten sistema berdinzale baten bidez goberna zezakeela bere patua. Demokrazia kontzeptua betitik izan da ustela, Leninek, beste ero horrek, argi ikusten jakin zuen: egiazko demokrazia ez da «pertsona bat, boto bat», «pertsona bat, dolar bat» baizik. Demokrazia, behialako urrezko gezur polit eta historiko hori, orain kartoizko maskara bat baizik ez da, belusezko teloi bat, errealitate gordinenak ezkututzen dituen gortina loreduna, kolore biziko ataria... Hain justu, teloiak ezkututzen duen atzealde horretan hasten da egiazko bizitza, maila guztietan interesgarria den bizitza. Ministro bat, jende arruntaren aurrean boterearen haragiztatzea dena, oso gauza gutxi baizik ez da, zinez... diskotekako atezaina bezalakoa da, sarrera ordaindu ez duenari pasatzen uzten ez diona. Hori baizik ez...

Tiro-hots bat entzun zen, ondoko gelan (agian irakurleak pentsatuko du, une honetan, baina ez al zeuden noriako kabinaren edo gelax-

karen barruan? Bai, hala zen, baina noria hone-
tako gelaxkak bikoitzak ziren). Taigherrek ez
zuen zirkinik egin horregatik.

...hori baizik ez, hain gutxi non edozein une-
tan akaba baitaiteke ministro bat inolako era-
gozpenik gabe, are eta gutxiago tradizio literario
gotor baten mehatxupearan zegoen Ministro hau.
Berlusgoñi saiatu da, bai, gu engainatzen, baina
bere ariketa intelektual eta gogo jardun guztiak
alferrekoak izan dira, oraintxe baieztatuko duzu-
nez.

Eta hau esanda aldameneko gelara pasarazi
ninduen.

Harry Harrison han zetzan, zerraldo, tiro bat
kopeta erdian zuela, nondik odol-hari bat isur-
tzen baitzen. Akabo manikura, UVA izpiak eta
prestaturiko diskurtsoak oro.

Ikusten? Ministro bat ez da ezer. Eta ni neu,
demokraziaz bestaldeko lehen ataria baizik ez
naiz. Atari gehiago dago nire gainetik. Baina,
imajina zenezakeen bezala, zuk ez dituzu gora-
goko atari horiek ikusiko. Ez da komenigarria.
Ezin da. Edonor ezin daiteke hain gora iritsi pre-
zioa ordaindu gabe; Jainkoaren argiak itsutu egi-

ten ditu eliztar apal eta xumearen begiak. Oso-oso pertsona gutxi eta bakanek baizik ezin dute azken atea -zeina gong-a gordetzen den gelakoa baita- ireki eta beste aldean zer dagoen begiratu, gong-a jotzen ari denaren aurpegia ikusi. Zeren, nork eraman lezake azken ate horrek gordetzen duen ikusgarri izugarria, nork saihets lezake barne muinetarainoko izu-laborria atea ireki eta ikus baleza, ikus baleza...

Esan zituen azken silabak biriketatik igotzen zitzaion arnas estrainio baten azken bafadekin hil zitzaizkion, ezpainetatik beruna bezala amilduko bailiran.

...atea ireki eta ikus baleza inork ez duela gong-a jotzen!? Nork Gong-ak bere kabuz jotzen duela ikustea?

Karkaila izugarriek koroatu zituzten gizontxo haren hitzak. Zoratuta zegoen, zoroa zen.

Zu, Roger Bazofias, zaren miserablearekin, nahikoa gora iritsi zara, berez zu bezalako batek harrapa zezakeen mailara baino askoz urrutiago iritsi zara... Orain prezioa ordaindu beharko duzu. Badakizu zein, ezta?

Jakin, jakin...oso merkea ez zela izango bai behintzat. Gauzak itsusi jartzen ari zitzaizkidan. Ezin nuen gehiago itxoin, gehiago jasan. Huraxe zen nire unea. Orduan edo inoiz ez. Praketako gerritik behera, ezpata bat bailitzan, gordeta neraman pioleta zorrotza bere zorro inprobisatutik atera nuen, agure zoro hari kaskezurraren erdian berea emateko asmoz.

Baina kolpea eman nahi izan nuenerako, Taigherren atzetik P.P. Carbayoren irudia agertu zen, granada-jaurtigailu bat eskuan zuela, niri apuntea egiten. Pioleta eskuetatik kendu zidan.

Orduan agureak, berriz fartsa honetako errege, garaipen-irri zoroak, basatiak, bota zituen. Erori zara, Mendizale! Gurea zara, Pioletadun Hiltzaile! Engainatuko gintuzula uste al zenuen? Errepasa itzazu zure ohar literarioak! Nori eman-go genion Pioletadun Hiltzailea atzemateko ardura, Pioletadun Hiltzaileari ez bazen? Literatura suspenditu duzu! Gogora ezazu: hiltzeko baldintza sine qua non paperaren bidezko gaztigua jasotzea da! Nork jaso zuen, bada, horrelakorik Ministroari abisu ematera abiatu zenean?

Tira, hori egia zen.

Ederki geundeke Agentzia Dermoestetikoko hirugarren mailako agente bati nahi zuen jende guztia, eta gorrotoak, edo apetak eman diola beste inolako arrazoirik ez dela tarteko, hiltzen utziko bagenio. Ederki geundeke arma bat duen edonork gorroto dituen guztiak hiltzeko baimena baleuka. Arrazoi bat eduki dugu, ordea, honaino iristen uzteko; egiten utzi baldin badizugu, honaino iristen utzi baldin badizugu, orain Harry Harrisonen heriotzaren errudun agerraraziko zaitugulako da, bere gorpuaren ondoan agertuko baita zurea, Harrison hil duen pistola eskuan duzula. Iritzi publikoak azalpenak eskatuko ditu, eta geuk eman egingo dizkiegu: zu zinela Borges esango diegu. Ikusten? Ez al da irrigarria? Ez al da maisu-jokaldia? Zu honaino nahastu zara Borges benetan nor zen jakitearren, eta azkenean lortu duzu nahi zenuena: jakitera iritsi zara, jakin ahal izan duzu... Borges zu zeu zarela! Ez al da irrigarria?

Piztia baten eztaarritik atereak ere izugarriak liratekeen algarak egin zituen. Carbayok ere irri egiten zuen, granada-jaurtigailuaren kargu deskuidatu gabe.

Eta, oraintsu arte Borges en papera egin duen aktoreagatik ez kezkatu. Gehiegi daki, baina badugu zerbait pentsatua berarentzat ere. Laster frogatuko da bera dela Mendizalea, Pioletadun Hiltzailea, eta gizarteak lasaitu ederra hartuko du, bi arrazoirengatik: Mendizalearen mehatxua desagertu delako eta Borges terrorista izugarria hil dugulako. Demokraziaren eta sistemaren berbiziko garaipena izango da. Borges-aktorea benetan ikusi dutenaz bezainbatean, ez dugu kezkarik. Oso gutxi izan dira, eta ezin izango dute beren susmoa gizarteratu, ez eta susmoa froga bihurtzen bazaie ere, ezin izango dute dakitena azaldu, ez daukatelako non, eta, desesperaturen batek beren hitzak jendarteratu nahi balitu ere, inork ez lioke sinetsiko; izan ere, sinetsgarritasun guztia galdu dute. Beraz, Bazofias, zure bidea hemen bukatzen da.

Bi metro baizik ez zeuden ni eta P.P. Carbayok eskuan zuen granada-jaurtigailuaren artean. Nireak egin du, pentsatu nuen.

Ezkerreko ukabila burutik gora altxatu nuen, itxirik, eta kasurako nekien eresi epiko bakararren lehen notak kantatzen hasi nintzen.

Naufrago itxura penagarria zeukan agurea ikusirik, hala oihaneko zuhaixken eta sasien artean saltaka nola zuhaitzondo marduletako adarrik adar jauzika zebilena, burura etorri zitzaizkidan Berlusgoñik, preso eduki nuenean eman hitza errespetatuz, oihan hartan utzi ninduenean, egin zizkidan azkeneko ohar jakingarriak: kontuz, erabat txotxinduta dago; txotxinduta, suabe esateagatik; ganbara hartuta dauka, burmuinek beste harako hark San Cristobal urtuta egin zituen joareek baino kulunka gehiago egiten diote; Iratiko oihanean dagoela uste du eta zubereraz baizik ez da mintzo; zaintzen zuten andereñoak uxatu zituen zantarkeriak esanez, lotsariak erakutsiz, buztana tente zuela haien atzetik lasterka abiatuz; liburutzar bat eskegi du bere parteetatik; liburutzarrak traba handia egiten dio, eta jauzika eta saltaka dabilenez, izter guztiak zauriz beteta dauzka. Andereñoak uxatu zituenetik, halako sukar mistikoak hartu dio kaskoa, eta *malama* praktikatzen duela esaten du; izena ere aldatu

du; jada ez du inork Kolko deitzea nahi, Jondoni Pettiri Abdul deitzen dela dio; hotz ala bero, heze edo lehor, lastozko kamaina batean etzaten da, zerua aterpe; kamaina inguruko zuhaitzen erdietan hitz bakarreko inskripzio hau idatzi du: KARMA; eta beste erdietan, beste hau: ZANTAR BATZUK ZARIE, BETI GAUZAK KANDBIXATEN; ahotsak entzuten dituela dio eta kinka horretan dagoenean bere aitonarekin hitz egiten du, eta trikitixak laster aurkituko dituztela ziurtatzen dio; belar, fruitu eta sustrairik baizik ez du jaten eta sentsazio fisikoek -mina, plazera, beroa, hotza- ez dutela bere gorputzean eragiten uste du. Baina aitortzen dut liburu bat idazteak ez zuela honaino ekarri zaituen arazoa konponduko; beraz, honengandik ezer espero baduzu... Baina, tira, zuk zeuk ikusi, nik abisatu egin zaitut.

Zer da *malama* delako hori? jakin nahi izan nuen.

Berlusgoñi eta biok adar batetik kulunkaturik, «*hou Pitxu hou*»ka zebilen gizontto aguretuari begira geunden. *Malama* sufismoaren manamenduetako bat da; malamaren funtsa da nor-

berak, bakarka eta bere eguneroko bizitzan, santu izan behar duela; baina besteen aurrean santu ez balitz bezala portatu behar dela, hau da, norberaren maila morala apaldu behar dela besteen aurrean, hurkoari laidorik ez egiteko, hain zuzen ere horrela jokatzea bertute gorena-
ren erakusgarri delakoan, inoren santutasunak gainerako bekatari gizajoak itsutu, bekaiztu, lotsagarri utzi ez ditzan; *kanpoan uso, etxean otso* horren ifrentzua bezalakoa-edo litzateke: *kanpoan otso, etxean uso*.

Berlusgoñik Kolko Mitxoletarekin egoteko or-
dubete nuela gogorarazi eta partitzeko prestatu
zen. Oraintxe duk ene maitea, partitzeko teno-
ria, jakinarazi zidan. Nik, azkenik nire begi au-
rrean hainbeste nekeren ondoren Mitxoleta neu-
kala, ez nuen beste kezkarik; hala ere, galdetu
egin nion: eta bukaera idatzi diodan liburua?
Izan ere, ordu batzuk sartu behar izan ditut hitz
horiek denak paperean jartzeko. Belar batzuk
sutan egosten ari zen Mitxoletari begira geratu
zen. Zuk Mitxoleta ikusi nahi zenuen kosta ahala
kosta, ezta? Bada, hor duzu Mitxoleta. Zer inpor-

ta du liburuak? Txarra da, inork ez luke argitaratuko.

Berlusgoñik alde egin zuen.

Behin baino ez nuen ikusia Kolko Mitxoleta, baina aldi bakar hura nahikoa zen noraino zegoen bestelakotua konturatzeko: nik gizon tente, larderiatsu, zakar eta buru argi bezala gogoratzen nuen; zerikusirik ez kalpar luzea eta bizarra belaunetaraino luze eduki, pilda zarpailtsu eta urratuez jantzi eta eskuak besapera matxangoen moduan eramaten zituen agure harekin.

Hurbiltzeko saioak geldoak eta nekezak izan ziren. Kolko, edo, berak nahiago zuen bezala, Jondoni Pettiri Abdul ez zen nirekin fio. Hurbiltzen saiatzen nintzen bakoitzean pago-ezkurak, sustraiak eta harri-legarrak botatzen zizkidan; Australiako basoan antzeko egoerak ikusia baino, orduetik badakit gizartetik aldendu eta egoera pre-humanoan luze bizi izandako gizasemeak erreflexu sozial guztiak galtzen dituela, eta gizartearekiko harremanik den mendrenak ere -baita beste gizaki baten ahotsa entzuteak ere, batzuetan-, egoera horretan garatu duten biziraupenezko mekanismo psikologiko mardoak

hauts ditzakeela, eta horrek ondorio oso kaltegarriak eduki ditzakeela egoera horretan dagoen pertsonarentzat. Beraz, tentuz, tentu oso handiz jokatu behar nuela jakinik, bere kamainatik eta bizitokitik nahikoa hurbil eseri nintzen, nire presentzia ohitura bihurtuko zitzaiolako unearen esperoan. Ondorengo gertaerek nire zuhurtzia saritu zuten, eta ohitura hartzeko epea, gehiengotan luzea, ikaragarri laburtu zen; are, Mitxoletak nik neuk ere espero ez nituen aurrerapen nabarmenak egin zituen, bere jokabideen aspektu sozialei dagokienez, eta hagitz denbora laburrean, nigana hurbildu zen irribarre zabalarekin, esanez:

leeeepa! Adixkidia, zieki zuiñ goxo den phausatzia. Ene arrenkürak dütüt urthukirik kanpuala. Derbirako sarrerarik ekharri düzüa? Aupa Aleti!

Nola aitortuko nion jada ez nuela derbirako sarrerarik? Denbora irabazi behar nuen, alde edo moldez. Zer egosten ari zara hor? galdetu nion.

Mitxoletak belarrak egosi berri zituen lapikoa eskuaz hartu eta eskaini egin zidan. Adiskidetze

keinua eskertuz, eskua luzatu, lapikoa hartu eta... sekulako garrasia egin nuen: hatzak kiskali zizkidan lapikoak, hain zegoen bero. Agure kabroiak sekulako algara-irrintzia egin zuen; hark epel balego bezala erabiltzen zuen hatzen artean. Beroa eta min fisikoa noraino jasaten zuen erakutsi nahi izan zidan, nonbait; edo, agian, *malama* delako haren erakustaldia zitekeen, alegia, moralki zer higuigarri zen erakutsi nahiko zuen, bere burua nire aurrean apaltzeko, are doilortzeko; alegia, nire maila moraleko -hau edozein izanik ere- norbait eroso sentiarazteko gonbita zitekeen, bera beti ere putakumeagoa izango zelakoan; ezin jakin. Eutsi nion ostia pare bat emateko gogoari, partez hatzak oraindik erreta eta minduta neuzkalako, partez agure ustez jakintsu hark eman behar zidalako B-12k eskatzen zuen kanon famatua. Azkenik, eta horretarako bidea eginda zegoela iritzirik, aldeztu aurretik artaz prestatuak predikua botatzen hasi nintzaion (egoerak erakusten zituen ezpal berriei aurre egiteak agintzen zituen aldaketa txiki batzuekin), kanona eskuratzeko helburuarekin:

Mitxoleta jauna, edo, hobeto esanda, Jondoni Pettiri Abdul jauna, eginkizun guztiz garrantzizkoa duen mezularia naiz.

Hemen trabatu nintzen; izan ere, hauek ziren pentsatuta neuzkan hitzak: *«Begira ezazu Bitoriano Gandiagarena izan zen estola hau; ikus ezazu Aita Villasantek bere eskuaz ukitu zuen Hamabi Apostoluen postala; uki ezazu aita Kandido Zubizarretak oparian eman zidan salakota; hauek ikusirik ez duzu zalantzarik ñimiñoenik ere izango zuregana bidali nautenen nortasunaz denaz bezainbatean; eta zuk zeuk baieztza deza-kezunez beste inork baino hobeki, nire amuleto hauek egiazkoak dira, hots, autentikoak, benetakoak. Hortaz, horrenbestez badakizu nire asmoak onak direla eta nire gogoak bat egiten duela zure orain arteko bizitza oparo eta joria gidatu duten printzipioekin»*. Baina, jakina, lehen Aita Zaindarien Gazteluko ziega zaintzen zuena lotzeko estola erabili bainuen, eta gero antropofagoekin izandako gorabeheren ondorioz, hori esatea ezinezkoa zen. Bizitzan egoerari egokitzen jakitea dohain handia da, ordea, nik oparo dudan dohaina, eta pasarte hau aldatu nuen, haren

ordez beste hau esanez, eztarriko marranta arintzeko erabili nuen zalantzazko une labur-labur baten ondoren: «*Baina ez larritu, hemendik alde egiten dudanetik aurrera ez dut atsedetik hartuko derbirako sarrera bat, zer diot bat, bi, bi sarrera lortzen ditudan arte*». Hau konpondurik, hasieratik pentsatuta neukan bidetik segitu nuen:

Baina gaur laguntza eske natorkizu, zeren, oraindik denbora luzeegi ez dela, B-12 izeneko martetar bat etorri baitzaigu Arantzazura, martetar euskaldun bat, zeren, inoiz susmatu bezala, azkenean frogatu baita hiperespazioan euskaraz baizik ez dela mintzatzen; eta B-12 delakolari, ikusirik bere osasun linguistikoaren egoera ezin hobea, eskatu genion gure hizkuntza salbatzeko beharko genituzkeen baliabideez eta bitartekoez horni gintzan. Nahi genuela hizkuntza sendoa, beti bat, bere hiztun guztiak bertan eroso sentitzeko modukoa, eta beti jori, norberak bere bitxikeriak eta ezberdintasunak islaturik ikusteko modukoa; jakintza eta munduaren plegu guztiak bere baitan, ahalegin berezirik gabe hartuko zituena, zientzia bezala josteta, ol-

getarako ongi zorroztua, amodiorako bezala gorrotorako, bakerako bezala gerrarako, malgua eta sortzailea baina harrizkoa eta betierekoa, noranahikoa, jakintzaren hegoak igoa, muin betirakoa eta, funtsean, munduan den guztiari egokia eta zehaztua. Eta izan zen kontua ezen B-12 delakoak erantzun zuela esanez, lehenbizi, hagitx plazer handiaz konplutuko zuela gure eskara, eta halaber esanez, bigarren, horretarako behar genuen lehen gauza literatur kanon bat edukitzea zela, hortik abiatuko genuela gure eraikuntza linguistiko erraldoi, gogoangarri eta atzeraezina.

Horiek horrela, eta B-12k zer eskatzen zigun oso zehatz jakin gabe, hasieratik beretik oso garbi ikusi genuen zu zinela orientabide egokiak emango lizkigukeen pertsona. Ez dizut ukatuko zuregana iristeko egin behar izan dudana periploan hainbat gauza ikasi dudala, eta horien artean, kanon batek balio duela -uste dut- hizkuntza gotorragotzeko, idazleak hobetzeko, hiztunak biderkatzeko, erakundeak sortzeko, unibertsitatea pizteko, kritika sendotzeko eta abar. Nago,

neure artean, hagitz tramankulu boteretsu eta eragingarria dela kanon delakoa.

Aurrekari hauek guztiak azalduz, iritsi da nire eskaera zehatza egiteko unea, zeina izango baita, eta, uste dudanez, ustekabean harrapatuko ez baitzaitu: lagunduko al diguzu, o Jondoni Pettiri Abdul guztiz jakintsua eta ohoretsua, kanon delakoa eraikitzen, egiten edo lortzen, dena -pertsonek, animaliek edo gauzak- delarik ere?

Mitxoletak «Deitü zaidazü Abdulin» arrapostu zuen. Eta gero, begiak maltzurkeriazko tanta lodiez pelatuak, destainazko ukituak ahotsean, kanona, kanona, horiek xorakeriak ditützü; dostetazko ume-engainagarriak. Isildu zen une batez. Eta gero: alua...

Ondoren ahotsa apaldu zuen eta alde guztietara begiratu, beldurrez-edo balitz bezala: Hülan zite. Urdüritzen zitidazü arhin arhina zirela. Zai-netan odol düdano nik ez diozüt emanen paper hau nehoi, hau behar düzü kanona baino haborro. Akademiako kideek helarazi behar ditiezü, othoi.

Agureak ahots apalez baina premiaz esan zidan hau guztia. Irakurri egin nituen atorra urratuaren azpitik atera eta luzatu zizkidan orri zimur eta zikinak. Hauxe, zehatz esateko:

Akademiako jaunak eta andreak:

Nahiko nuke esan, kortesiak agintzen duen bezala, atsegin handiz ekiten diodala nire txosten hau idazteari, baina burutik orporaino blaitzen nauen sentimendua ez da hain atsegina, inola ere ez, txostengai den hitzari buruzko susmorik txarrenak baieztatu diren ber.

Luzeegi ez jotzea espero dudan azalpen baten bidez ulertuko duzue ongien nire gaurko jarrera alua hitzari dagokionez. Pazientzia pixka bat eskatzen dizuet, beraz.

Cocuyo da, zoologian, Pyrophorus generoko koleoptero elateridoen hainbat espezieri ematen zaien izena. Hiruren bat zentimetroko gorputza dute, eta intsektu argi-emaeleak dira, are argirik gehien ematen omen duten intsektuak, edo halaxe dute fama, bederen, soin-enborrharen bi aldeetan argia ematen duten bi organo dituztelako, baita beste bat ere, abdomenaren azpiko al-

dean. Azken hau, alabaina, hegan ari direnean baizik ez da ikusten. Espezie hauetako larbek eta are arrautzek ere argia ematen dute, halako moldez non, emeek, arrautzez zamaturik direlarik, nolabaiteko argitasun lausoa jaulkitzen baitute abdomenak betetzen duen espaziotik. Jaulkitzen duten argiaren uhin-luzera 486-720 mmkoa izaten da.

Cocuyo hau Ertamerikan aurkitzen da, eta, diotenez, bertako indioek intsektu hau erabiltzen zuten euren txabolak argitzeko. Ez hori bakarrik; fama da neskatek cocuyoak lotzen zituztela adatsean gaueko jaietan, eta oinetan itsasten zituztela gauez bideak ikusi ahal izateko. Ni proba egin gabe nago, noski, baina esaten dute *Pyrophorus* bakar batek ematen duen argitan irakurtzea badagoela. Argia emate honek, eta hau zientzialarien iritzia da, sexu-erakarmenarekin du zerikusia.

Gauzak honela, uste dut nirekin bat egingo duzuela esaten badut ez dela batere burubero baten burutazioa pentsatzea ezen, indio haien sinbologian behintzat, cocuyo delako honek irmoki lotuta egon behar duela euren iruditeria se-

xualarekin; tropikoko gauetako jaietan, danborrak eta xirulak euren soinuak barreiatzen dutela, tribuko gazteak landare haluzinogenoren baten eraginpean daudela, neskatxak ageri dira ileak intsektu argi-emaitzez koroaturik, buru-argi... Uste dut zeuen arteko hotzenak ere ulertuko duela zer esan nahi duan. Hortaz, niretzat zalantzarik ez dago cocuyo delakoa, euren hizkera arruntan, konnotazio eta iradokizun sexualez mukuru zamatutako hitz markatua izango dela. Are, txosten hau, premia zela-ta, oraintxe bertan idaztera honetaratua, ez dut egiterik izan, nire hasierako asmoa zen bezala, hango herri-literaturaren azterketa. Esan gabe doa ziur nagoela azterketa horrek, inork egingo balu, nire tesiaren aldeko frogak ugari eskainiko lituzkeela.

Eta bada besterik. Txostena prestatzeko ibili ditudan entomologia-tratatuetan intsektu horren forma, itxura ikusi ahal izan dut. Barkatuko didazue gordinerik mintzo naizela uste baduzue, baina esan behar dut cocuyo horren morfologiak antzekotasun nabarmenak dituela emakumearen organo sexuarekin. Alegia, kui txiki eta estu bezalako burutxoa du, non konkorrak ñimiño bat na-

barmentzen baita, eta handik behera, soin-enborra zabaltzen da, burua halako hiru izango diren hegal banak alboetatik babesten duela, halako moldez non emakumearen klitori eta ezpain lodiekin paralelismoa ez sortzea ia ezinezkoa baita.

Segi dezadan aurrera nire azalpen luzexka honekin, zuei, jaun eta andre akademikoei, berriroz pazientzia eskaturik.

Dakigunez, alua hitza Nicolas Landucchik edo Landuciok jaso zuen lehen aldiz hiztegi batera, 1562 urtean egin zuen hiztegi deitoratu hartan preseski. Ez dizuet azaldu behar, nik neuk baino hobeki dakizuelako, zer erdeinu historiko jaso duen hiztegi horrek, menderik mende nola baztertu eta gutxietsi den, ez eta zein izan ziren gutxiespen horren arrazoiak: egilea toskanoa izatea, hau da, italiar arrotza, eta, ustez, gaztelaniatik eta erdaretatik hitz asko jasotzea.

Egia da, bestalde, hiztegegintzan dauden joera berriagoak saiatu direla Landucchiren hiztegiari duen dudagabeko garrantzia aitortzen, purismo antzuak alde batera utzirik, Gasteiz aldean orduan hitz egingo zen euskararen lekuko-

tasuna ematen digunez, eta beraz, inoizko euskara bizi baten lekukotasuna ematen digunez. Puntu honetara iritsirik gogorarazi behar da azken gogoetek eta espekulazioek aitortzen dutela Gasteizko XVI. mendeko euskara hagitz kutsatua izango zela bai tratulari kastillanoek erabilitako hainbat hitzekin, nola mandazain eta bidaiari errioxarren erromantzearekin, eta are Bizkai aldeko kostaldetik etorritako marinel eta menturazaleen euskararekin ere. Horietatik ez gutxi -beharrezkoa da hau nabarmentzea-, hirurogeita hamar urte lehenago aurkitu zen kontinente berriatik -hots, Ameriketatik- pasatuak izango ziren. Ez da zaila imajinatzea Ameriketatik ibilitako beterano hauek Arabako Errioxako ardo pitxer baten inguruan txirikordatuko ziren solasen eta berrieten protagonista nagusiak izango zirela, kontinente berriko azturak deskribatzean, edo han jokaturako gatazkak berri-tzean, bizimoduak eta xehetasun geografikoak kontatzean, jende guztia euren berbeta entzuteko zain egongo zelarik. Eta, bestalde, denon eza-guna da itsasoko jendearen mihi arina eta berri-keta lotsagaberako joera, alberdanian aritzeko

jaidura. Hau guztia funtsezkoa da atera dudan ondorioaren sinesgarritasuna epaitu ahal izateko.

Funtsezkoa da, zeren, cocuyo eta alua hitzen artean bada harremanik, eta ez nolana hiko, gainera: alua da, hain zuzen, Ertamerikako indigenek cocuyo intsektua izendatzeko erabiltzen duten hitz usuago, familiarrago, informalago eta kolokialagoa.

Hortaz, nire ondorioa da gure alua ez dela gurea, Ertamerikako indigenena baizik, marinel bizkaitarrek ikasi eta garraiatua Euskal Herriraino, eta Landucchik jaso. Eta, beraz, alua esaten dugunean, bene-benetan izendatzen ari garena *Pyrophorus* generoko intsektu bat dela.

Hau baieztatuko balitz, begiratu ahalko genioke euskaldunok elkarren aurpegiari lotsak akabatu gabe? Nago ahozko transmisioa ez, nori transmititu ere bukatuko zela, transmisiogaiak sortzen, edo transmisiogaiak sortzeko zereginen ere orain arte oso grinatsuak ageri garen edo ez alde batera utzita.

Edonola ere, Bribon Parasolak euskal hiztegia ez dela euskal, ez eta hiztegia ere, demostratze-

*ko egiten ari den saio eskerga (dagoeneko hoge
mila hitz sasikotik gora bildu baitu zortzi liburu-
kitan, oso oker ez banago) osatzeko txosten hau
erabili nahiko balu, nire aldetik ez litzateke ino-
lako oztoporik egongo.*

*Horrenbestez, eta begirune handiz,
Kolko Mitxoleta*

Irakurtzeari utzi nion. Ezbairik gabe, tipo hura burutik zegoen. Harekin ez zegoen zer eginik. Azken finean, zer zen Kolko Mitxoleta? Gizon bat besterik ez; hauskorra eta zaurigarria hortaz, oso jakintsua izanagatik. Errukitu nintzen; pape-
rak eta liburuak alde batera utzi eta gizatasunak eskatzen dituen lehen sorospenak eman behar nizkiola otu zitzaidan. Abdulin -esan nion, poliki eta ez nazka pittin bat sentitu gabe bere izter barrua arakatzuz, non liburu potoloa zintzilik, eta beronek eragin zauri itsusiak ageri ziren-, liburu honekin... Ez al dizu traba egiten ibiltzean? Be-
harbada puntu batzuk jarri beharko lizkizukete.

Ni zauriez ari nintzen, noski.

Ez, erantzun zidan Mitxoletak, pundüak ez; li-
buru hunek komak non eta nola ezar beizik ez

dizü azaltzen. Pundüak nola ezar erraiten dizüna kendu behar izan nüan, ezpeinüan biak batera karriatu. Gazteago banendi...

Berlusgoñi azaldu zen, une hartan, ordubete-ko epea iraungi zela esanez. Azken saioa egin nuen Mitxoletarekin. Ez nuen txoritara botako oihan hartaraino eramán ninduen ahalegina; ez nuen eskubiderik beren konfiantza nire eskuetan ipini zuten horien guztien esperantza zapuzteko. Mitxoletarengana itzuli nintzen, presak eta larriak ahotsa desitxuratuta: kanona, mesedez, kanona...

Kolko Mitxoleta, ordurako, lur jorran ari zen, eskuz, merendatzeko zizareen bila. Kanon hitza entzun eta burua altxatu zuen, oso aspaldi entzundako zerbaitez gogoratuko bailitzan. Gero keinu zehaztu gabe bat egin zuen, lurrean zegoen hurrondo-makila bat seinalatuz. Kanonik? Eraman ezazü hori, plazer badüzü.

Sentipen kontraesankorrek nituen oihan hura, nire hurrondo-makila eskuan, abandonatu nuenean. Atzean, urrutian, paisajeko puntu beltz txiki bihurturiko Mitxoletaren garrasia entzun nuen azkeneko aldiz; arbasoen garrasi sakona,

belaunaldi askotako borroka irrintzi menderakaitza, euskal garaipenaren oihu harroa:

Aleeeeeeeeeeeeeeeeeeeetí!

Euskaltzaleen Batzorde Iraunkorra nire zain bildurik zen Arantzazura itzuli nintzenean -zeren, azkenik, Berlusgoñik joaten utzi baitzidan, inguruotatik desagertzeko eta Artximandritaren bahiketaz ezer ez esateko baldintzapean-, etsia, nekea eta zaputza nagusi ziren giroan. Nazkatu-rik gaude B-12rekin, esan zidaten. Ez da mutil txarra baina tematia da, ekina. Pentsa nola egongo diren gauzak: batzuek edateari ere utzi diote. Bestela ere badaukagu txupatzeko nahikoa. Baina hori baino ez balitz, gaitzerdi; halako batean hasi zen esaten gramatika generatiboa erakutsiko ligukeela... atzeko latinetik emanda! Harrezkero gramatika sailekoak eseri ezinik dabilta. Ikasi ote duten, ez dakit; ez dute ezetzik esaten, jakina, baina irribarrea egiten saiatzen direnean ere muturra agertzen dute. Eta B-12k, hitz onak bai, hiltun aparta bai, baina, horretaz landa, sekulako gordetegiak bide dauzka, bada-go denentzako aski eta abasto, ez da sekula nekutzen. Gainera, badu halako ziri berdexka bat,

Mitxoletak esan dit zuei guztiei iragartzeko derbirako sarrerak dituela, guztientzat!

Iragarpenak denen bihotzak alaitu zituen, baita ortodoxoen, jakintsuen eta defendatzaile porrokatuenenak ere, bozkarioa nonahi barreiatuz. Gero, honela segitu nuen:

Paripé, diozue?, asmatu nuen, ez neska-mutilak, alderantziz. Berak dioena da *paripé* hitza euskaratik datorrela, hain zuzen, eta ez ijitoen mintzairatik edo are sanskritotik, espainiarrek esaten duten bezala. Eta esaten du -mintzatu ahala ari nintzen asmatzen- bizkaieratik datorrela.

Entzuleak adi-adi nituenez, fikziozko elkarrizketa hau jarri nuen bi bizkaitarren ahotan: 1.- bizkaitarra: Ederrrra, neskia! 2.- bizkaitarra: Hori neski hori? Ez dauko titirik, baina. 1.- bizkaitarra, ostera: Titirik barik be... (titirik *paripé*). Eta hortaz, bukatu nuen nire azalpena, hortik zetorrela -esaerak eta hitzak jatorrizko esanahitik apur bat desbideratzen dituzten fenomeno soziolinguistikoak medio- *paripé* hitzaren bidez zerbaitetik eduki ez eta edukiko balitz bezalako plantak egitea, edo simulatzea, faltsutzea, eta faltsu-

keria sinesten delakoa egitea. Ez dut esango azalpena jeniala zenik, baina ataka hartatik ateratzeko asmatu nuela aintzat hartzen bada, ez zitzaidala hain gaizki gelditu esango nuke. Bide batez, entzuleengan sorraraziriko onespenezko giroa profitatu nuen Mitxoletak emandako kanona jendaurrean aurkezteko. To, esan nien, eta hau da Kolko Mitxoletak eman didan kanona. Hurrondo-makila hartu eta buru gainetik altxatu nuen, denen bistan.

Makilari, ordea, ez zioten hain harrera ona egin. Hori!!?? Orain hori!!?? egiten zuten oihu batzuek, bortitz. Hori ez, hori ez!!! Batzuek gaizki ulertu zuten, antza, eta hortik oihuak; azalpen bat beharrezkoa zen. Eta hala, kanon hura ez zela ipurditik sartu behar (nork bere borondatez izan ezik) azaldu behar izan zitzaien oihulariei.

Batzorde batek hartu zuen bere gain kanona B-12ri aurkezteko ardura. Neu denen buru, noski.

B-12k feriara baino lehen artatutako zezena zirudien, nik esan beharko banu. Oso itxura ona zuela, alegia. Kotoizko irribarre bat zebilkion musuan, eta potoloago zegoen. Orain ikusteko ze-

goen zer egingo edo eginaraziko zuen, zer mirakulu obratuko zuen hurrondo-makila harekin.

Gure harridurarako -harridura erlatiboa; besteak bai, harrituta zeuden, baina nik nire dudak neuzkan alde zurretik-, B-12k hasperen egin eta makila alde batera bota zuen, kasik begiratu ere egin gabe.

Hau? esan zuen. Barkatu lagunak, baina uste dut ez duzuela gauza handirik uler... azken unean iritziz aldatu eta beste mutur batetik ekin zion: Bon, ikasi duzue kanon, kanon literario bat edukitzeko beharrezkoa dela ulertzen den hizkuntzarik, idazlerik, hiztunik, unibertsitatetik, erakunderik... Eta libururik! Liburuak, batez ere! Liburuak, noski! Hori guztia ikasi duzue. Tira, zer edo zer bada. Orain, horrelakorik eduki gabe ere, edo erdizka edukirik, nonbaitetik hasi beharko duzue. Esaterako: ez al zaizue Filologia Fakultate bat antolatzea bururatu? E? Zergatik ez? Ea, ekin gogor. Eutsi goiari. Ezina ekinez egina. Gora gu eta gutarrak. Ni banoa. Hor zehar, galaxiaren luze-zabal osoan, badaude hizkuntza gutxiak dituzten planeta asko, eta segitu behar dut nire mezu askatzailea barreiatzen. Ez zenuten uste

izango betiko geldituko nintzela, ezta? Gora munduko gutxituak! Lortu egingo dugu, bukatu zuen, ukabila goian.

Hau esanik, bere gauzak prestatzen hasi zen, gu han ez bageunde bezal-bezala. Partitzeko tenoria.

Zerbaitek agindu zidan, barru-barrutik, gauzak ezin zitezkeela horrela gelditu. Ezin nion tirriari eutsi. Hurbildu eta B-12ren larru berdea ukitu nuen. Ukitu bezain pronto, larru berde hura zenbait tokitan altxatu egiten zela konturatu nintzen, arrain bati ezkatatzen zaizkionean bezala. Are, larru berde haragitik bereizten hasten zela iruditu zitzaidan, halako moldez non laster soinetik bereiz, zintzilik, dilindan zegoen bost-hamar zentimetro luzerako larru berde-muturra haztatu nuen. Tira egin nuen mutur hartatik. Susmatu bezala, larru berdea desitsasten hasi zen, pegatina txar bat bailitzan. Azpian larru zuriko gizon antiojodun bat agertu zen.

Horrorea izan zen.

Baina, baina, baina!!!???... Ez zen posible!!!

Ez al zen... Jo... Jo... Jo... Jo... Jua... Jua... Jua...

Juaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaarrrgggssfff!!!!!!